J. B. Dibildox, curé.

Vinson 447

N-500009357
ZRV 3386

# San Francizco Asisacoaren

## Hírurgarren ordenaco haurriden

## ESCU-LIBURUA.

# APPROBATION

## DU MINISTRE PROVINCIAL.

---

Sur le rapport favorable qui nous a été fait par le T. R. Père Emmanuel DE BEOVIDE, ex-Provincial, nous approuvons bien volontiers le Manuel Basque intitulé : *San Francizcoren hirurgarren ordenaco escu-liburua*, et composé par notre cher Père Antoine, du couvent de St-Palais. Nous le recommandons aux zélés directeurs et aux nombreux Tertiaires du pays basque.

L'esprit de Saint François contribuera puissamment, nous l'espérons, à conserver la Foi et la ferveur de la piété dans ces montagnes privilégiées.

Donné à Bordeaux, de notre couvent de N. D. des Anges et de S. Joseph, le 3 avril 1873.

Fr. RAPHAEL,
*Miss. Provincial des Franciscains de l'Observ.*

Permis d'imprimer :

Bayonne, le 15 avril 1873.

MENJOULET, *vic. gén.*

# SAN FRANCIZCO ASISACOAREN
## HIRURGARREN ORDENACO HAURRIDEN
# ESCU-LIBURUA

Aita ANTONIO BEOVIDE

SAN FRANCIZCOREN ORDENACOAC EGUINA

Aita Provincialaren bayarekin.

*Quicumque hanc regulam secuti fuerint,*
*pax super illos et misericordia.*
Erreguela hau beguiratcen duten guciec,
ucanen dute bakea eta misericordia.
*(Epist. ad Galat. c.* 6. *v.* 16.*)*

BAIONAN

Andre LAMAIGNÈRE, alhargunsaren imprimerian
Chegarayco carrican, 39.

—

1874.

# YRACURTZAILEARI.

San Francizco, Patriarca handiac, eguin izatu cituen espantuac, ez dire munduaz aski untsa ezagutuac. Euscal herriac, bizkitartean, nun ere igaan baitcen, Saindu miragarri hau, ez lituzke ilhunbetan utci behar; haimbatenaz guehiago ceren eta Euscaldun cembeit San Francizcoren ordenan, Saindu eta guizon aiphatu eguin baithire.

Hirur ordena esarri cituen Elizan, bata baino bertcea miragarriagoac eta hirurec Sainduen lombre handi bat eman izatu dute. Lehenbicico ordena, sainduki biciz, apostoluen

arabera arimac salbatceco. Bigarrena, munduari eta munduco gauzaric maitenei bethico adios eguinaz, bacartasunean saindutceco. Hirurgarrena, mundu huntan berean, bat bedera bere eguinbidei yarraikiz, comentuan becela sainduki bicitceco.

Hirur ordena miragarri horietaz, mintzo da lehenic liburu ttipi hau, helas ! untsa ttipia gauza horien ezagutu, maita eta besarca arazteco !

Yracurtzaile ona, iretch zazu beraz liburu chume hau oso-osoa ; ez dut eguin goi direnen adiarazteco, bainan San Francizcoren izpiritua ezagut araciz, lombre handi bat, haren hume dohatsu eguiteco.

Dembora berean hirurgarren ordenacoac, hemen caucituren dituzte berec eguinbide guciac, arguituren dire ordena huntaz eta ez diote Yaincoari guehiago baicen eskerrac bihur-

turen. Ordena huntaco ceremonia guciac beren oracionekin esarriac dire ; arropa artcecoac, profesionea eguitecoac, erreberritcecoac, eta bilcuretacoac. Caucituren dute oraino Mezaco sacrificioraco behar diren othoitzac, nun ez baitute bertce liburu beharric izanen. Ezarri dut oraino, Gurutcearen bidea, ordenaco devocione berecia becela, amore gatic eta maiz eguiteco ; Ordenaco arrosarioa edo corona zazpi misterioscoa ere bai. Ezarri dut, eriec nola behar diren bisitatu eta agoniaco othoitzac eguin.

Azkenean, sainduen erranac arguituz, ezagutu ondoan, zoin premiatsua den maiz comuniatcea, eta cer balio handitacoac ; amoregatic eta San Francizcoren haurrac, ongui preparatuac hurbilditezten gracien ithurrirat eta bihotz gucien ithurbururat ; ezarri dut asteco egun gucietaraco

exercizioa. Segurtatua naiz, frangoc onetsiren dutela eta handizki baliaturen direla beren communione sainduetan.

Horra certaz mintzo den liburu ttippi hau, iracurtzaile ona, eguia aithortceco, nitaz baino bertce ainitcez ederkiago eta hobekiago erranac izanen ciren; bizkitartean uzte dut zure ontasunaz condaturic, harditsiren dudala, arthu dutan chedea, eta nahi dutan azkena. Arimen salbamendua eta Yaincoaren loria.

# LEHEN PHARTEA.

## I[en] CAPITULOA.

### San Francizcoren lehen Ordena

(1182-1226).

Amabigarren mendearen acabanzara, Yaincoac ecarri zuen mundura guizon miragarri hau, aguertcerat emaiteco, munduco botherearen flakecia eta suhurtciaren ez deustasuna.

Gucia, Patriarca hau baithan, Yesus onaren sofricarien, nahigabeen eta laidoen iduria da. Francizco sorthu izan cen heya bathean, norat ere guidatua izan baitcen bere Ama, guizon arrotz batez. Guizon hunec berac atchiki zuen batayo-arrian, hunec espalda marcatu ceraucon gurutceaz

eta inhureari erran ondoan, beha cezan irrichcu gucietaric, Saindu bat izanen cela, eta yadanic debruac haren contra armatuac zaudela, yoantcen, eztcen guizona, bainan Ainguerubat.

Francizco handitu cen eta munduan bici cen, hunen gaichtakeria cutsatu gabe. Gaste lagunec maitatcen zuten, ceren beguitarte on eta aleguera baitzuen, hura zuten beren besta gucien aphaindura. Arropa ederrekin ibiltcea maite zuen, bere eta bere lagunen gostuac pagatcen cituen, ahatic Aitari ez tciozan atseguin eguiten. Francizcoc, maite cituen probeac, urricalmendu handi bat zuen heientzat, eta Yaincoaren amoregatic galdeguiten cionari, behin ere ez tcion ucatcen.

Yaincoac igorri ceraucon sugarra, sofricarietan ezagutu zuen munduco gaucen ez deustasuna; eta atseguin igaancorren arbuyoa, sarthu izan cen haren bihotcean. Sendatu cenean, itzalaren pare gogoeta salbagarri horiec pasatu ciren eta emantcen leheneco gostu beretan, ahatic ez tcen

uts handietan erortcen, cembaitec gaizki uste ucan duten becela.

Yaincoac arguitu zuen, toki bacar bathean eta erran cerauzcon hitz hauec: «*Nahi baduzu enekin ethorri, uco eguiozu ceure buruari, carraya zazu gurutcea eta yarraiki zaizkit.*»

Ordutic beretic, dio San Bonaventurac, Francizco probeciaren izpirituaz beztitu cen, utciric etcheco ontasunac, piltzarrengatic trucaturen cituen aberastasun guciac. Fincatu cen hoinbertcetaraino probecian, nun sobera ohore baitcitzaion Yesus Christoren probe izaitea ere. Nahi zuen ordutic beretic Yesus probe sorthuari yarraiki.

Francizco egun batez yoan cen paseora; Yaincoaz arguitua eta guidatua sarthu cen eliza probe batean. Han othoitz cartsuetan ari cela gurutcearen oinetan, aditu zuen hitz bat, gurutzetic heldu cena; hirur aldiz Yesus onac erran ciozan: *Zoaz, Francizco, errepara zazu ene etchea, erortcen da, ieusten duzun becela.*» Berehala yoantcen etcherat, arthu cituen cembeit oihal peeza, saldu cituen eta itsuli cen bere toquirat.

San Damianeco apezac ez tzuen diru hura errecebitu nahi, orduan Francizcoc aurdikitzuen lehiotic elizarat. Orduan cen Francizcoren aita coleran sarthu yakin zuenean oihal peeza heien galtcea! Bere coleran, laster eguin zuen semearen bilha, bainan Francizco beldurrez gorde cen. Bizkitartean cembeit egun penitencian igan ondoan, urrundanic ezagutcen zuelaric aitaren fulia, athera cen gordea zagoen tokitic eta piltzarrez estalia, gathilu bat escuan yoan cen bortaz borta, escale bat becela yakiaren galdez. Aita ez baitzen urrun bainan han berean, icusten zuen aldi guciez coleratcen cen eta gaizki tratatcen zuen. Francizcoc gucia yassaiten zuen pacienki. Behin ecin guehiago aita coleratu cen eta dehitu zuen yuyearen aintcinerat. Francizco yoan tcen ; yuyeac igorri cituen apezpicuaren ganat ; Francizco gogo onez erori cen aitaren nahirat ; aguerthu cenean yaun Apezpicuaren aintcinean, mintzatzeco astiric aitari utci gabe, buluztu cen eta erran cion : orai artelo deithu

zaitut ene aita, hemendic harat fihdanza guehiagorekin erranen dut: *Gure Aita Ceruetan zaudena.*» Aphezpicuac estali zuen bere capaz eta besarcatu zuen.

Franzcizco ari cen Elizaren erreparatcen kar handi bathekin, bera cen guidari, bera arguin, bera peoy, eta Eliza finitu zuten. Francizco eman cen bici molde berri bati, bacartasunean, bere gorputza hilduratuz, othoitzaz arima borthiztuz preparatu cen apostolutasunerat. Aguerian ceraman bicia, guciz miragarria, Yainco guizon eguinaren copi lehiala cen; yassaiten cituen munduaren arrailleriac pacienki, chercatcen cituen beheratasunac, arbuioac, maitatzen zuen gurutcea eta huntaz armatua mundua garaitcen zuen.

Cembeit asi ciren Francizco baitan, guizon saindu bat ezagutcen, eta graciac unkituac haren bici moldea besarcatcen. Berac arguitu cituen eraman behar zuten bicitce garratz haren eguinbidetan, gurutcea celaric eracasle. Francizcoc, gurutcea zuen icastoquia, gurutcea guidaria, gurut-

cea bere arma, gurutcean biciz, gurutcerat guciac dehituz, gurutcean hil nahi zuen. Gurutcean cituen bere atseguinac, gurutcea zuen maite eta orori maita araci nahi zuen. Yaincoac, pagatu nahi izan cion mundu huntan amodio hori ; bere botz sauri sacratuen marca ecin borratuzcoac emanaz.

Hori da Yaincoac bere urricalmenduan hautatu izan zuen guizona anichco arimen salbatceco eta Eliza saindu aiphatuenez aberasteco.

Francizco mundurat ethorri cenean, gucia gaizki zoan, ecin gaizkiago. Guizonen bihotzac costuma gaichtoez usthelduac, adimenduac guezurrez ilhunduac, guciec galtcen ari ciren. Eliza, handizki athacatua, Albigeoen heresiaz iguitua, erranen cen erortcen ari cela. Guizon, ainagueruen pareco hau, mintzatcen cen Yaincoarequin becoz-beco, bertce orduz Moïsec becela, eta hunec Yaincoaren leguea bezela, Francizcoc fraide guciac beguiratu behar zuten erreguela errecebitu zuen. Francizco bere lagunekin yoan tcen Erromarat,

Aita Sainduari erreguela haren baymena galdeguiterat. Aita Saindu Innocent III$^{ac}$ sobera garratz caucitu zuen, bainan biharamunean aguertceco erran ciozan. Gau hartan, Aita Sainduac amets batean icusi zuen Latraneco Eliza erortcerat zohala eta probe batec aitchikitcen zuela. Berehala comprenitu zuen Aita Sainduac mysterio hura eta Francizco bere ordenarekin cela escale hura.

Biharamunean Francizco aguertu cen Aita Sainduaren aintcinean eta hoin ongui mintzatu cen probeciaz, nun Aita Sainduac aprobatu baitzuen erreguela eta heien bici moldea.

Francizco boscario handian yoan tcen Ama Birginaren caperarat, eskerren bihurtcerat eta bere ordena berriaren gomendatcerat; han eman zaren icen hau bere laguneï: «*Fraide ttippiac deituren zarete.*» Aingueruec eta beren Erreguinac onhetsi cituen guizon saindu horiec, zoinen lombrea laster tchimiztaren pare edatu baitcen.

Erroman caucitu zuen San Dominica lehenago seculan elgar icusi ez

cirenac, elgar ezagutu zuten, besarcatu eta eguin ciren adizkide handi. Ez dakit, Yaincoac orduan bi guizon garbi hoieri, aguertu zaren bacoitzac beren eta beren aur izpiritualen icerdiaz eta odolaz arregatu behar zuten lurraren phartea ; ez dakit ezagut araci zaren bietaric sorthu behar zuten familiac, Sainduac eta guizonic aiphatuenac ; bainan dakidana da, eta munduac ez du ahanxico, egun hartan Francizcoren ordena eguin cela, eta San Dominicarena eguiteco deliberatu cela.

Francizcoren familia bazoan emendatcen, yaun aberatsac, apez khartsuac, apezpicuac, nahi cituzten munduco ontasunac utci eta Francizcori yarraiki ; nahiago zuten piltzarrez estaliac ibilli Francizcoren ordenan, ecen ez huntari campo aberats bici. Egun batez Patriarca Sainduac familia bereganat bilduric, Profeten maneran, cerutic arguitua, erran zaren : Curaye ar zazue, bozcaria zaitezte Yauna baitan ; ez icitu guizon chimpleac garelacotz , ceren Yaunac aguertu daut, bere benedicioneare-

kin, familia ttippi hau zoinaren Aita baita, hedaturen duela mundu gucian. Ichilic gorde nahi nuen icusi dudana, bainan zuen alderat duan amodioac mintza arazten nau ; icusi dut lombre handi bat heldu dela guregana, gu becela bicitcerat ; icusi ditut bide guciac guizonez betheac, Francesac heldu dire, Españolac laster eguiten dute, Anglesac eta Alemanac zoin lehenago heldu dabiltza, cartiar guciac iguitu dire eta huna nun ene beharriec aditcen duten obedienciaren pian egon nahi duten guizonen azantza. Francizcoc erran becela, berehala lombre handi bat ethorri citzaioten ; etchea tchipichco zuten gucientzat, eta Francizco obligatua izan cen, Asisaco apezpicuari Eliza chume eta probe bathen galdeguiterat ; apezpicuac ihardetsi cioen penarekin ez tzuela ; orduan Francizcoc fidanza handian jo zuen Aita Benedittinoen bortha, ceinec eman ceraucoten Porcionculaco Eliza probea, nun ere entzuten baitcituzten Ainguerueс cantuz. Francizkoc biciki maite zuen bacartasuna, bizkitartean

Yaincoac aguertu cioen, beren salbatceco eta bezteren arimac, ordena hau eguin zuela.

Hunela Francizco mintzatu citzayen bere lagunei egun batez : Ene anayac, gogoan igaan dezagun gure deitcea ; ez gaituz Yaincoac choilki gueure arimen salbatceco deitu, bainan gueureekin bertcerenac. Deituac gare , penitenciaren predicatcera , hitzez baino guehiago exempluaz. Arbuiagarriac iduriric ere, ez lotsa, Salbatzailea baitan esar zazue fidanza, zoinac garaitu baitzuen mundua. Zoazte beraz penitenciaren predicatcera, becatuen barcamendua eta bakea ; causituren ditutzue guizon on eta lehialac, ongui errecebituren zaituztenac eta atseguin handiarekin entzunen zaituztenac, cauciturem ditutzue ere guizon gaichtoac, lehialtasun gabecoac, zuen contra altchaturen direnac. Yzpirituan esar zazue, gucia pacienki yassan behar duzuela ; ez lotsa, laster ethorrico dire zuhur eta yakinsunac , erregue , prince eta munduco handiei predicatceco gai izanen direnac. Yzan zaitezte,

nahigabeetan paciencia handitacoac, othoitcetan khartsuac, lanean ascarrac eta Yaincoaren erresuma, bethierecoa baita, izanen da zuen saria.

Francizcoren hitzac, sustatu cituen, bilcura hartan ciren aur izpiritualac, oroc nahi izan zuten pairatu, oroc penitencia predicatu, arimen salbatzea gatic, beren odola itchuri. Francizcoc, Evangelioco hitz hauec erran zazten : « *Ez dezazula izan ez urreric, ez cilharric, ez diruric. Bidean, zohacenean ere, ez dezazula izan, ez soinecoric, oz oinetacoriz, ez eta makillaric.* » Orduan benedicatu cituen eta igorri binasca munduaren bastar gucietarat. Yoan ciren Francizcoren aurrac, apostoluen pare, probe eta gauza gucien beharrean ; bainan hec becela Yaincoaren amodioan sustatuac, hec becela Izpiritu Sainduaz arguitua. Hedatu ciren laster munduan, eta munduaren eta Aingueruen icusgarri eguin ciren.

Francizco bera, Yaincoaren amodioan sustatua, martirioaren cherca zabilen ; Italia ez tzcen aski haren hkarrarentzat , Franciatic España-

rat, handic Italiarat, guero Egyptora jo zuen, bainan Yaincoac bertce martyrio suerte bat eman nahi ceraucon. Norc erran dembora laburrez, Francizcoc eguin cituen espantuac! Zombat arima salbatu! zombat heri sendatu! eta zombat hil phiztu cituen! Erranguentzake creatura guciec obeditcen zutela, creatzailea becela.

Euscaldunen amoregatic choilki esarriren ditut hemen cembeit exemplu eder, ezagut arasteco Francizcoren izpiritua, orain ez baita ene chedea Francizcoren biciaren izkiriatcea.

Amodioc gambiatu zuen Francizcoren bihotza gradu berezian, erran nahi dut hitz bacoitza, amodioscoa, zuela, Yaincoaren amodioac bihotza gaindituz campora noiz nahi eta nun nahi yeilkitcen cela. Emaiten zaren Yaincoaren creaturei, anay arreben icena; hala, Yaincoaren laudatcerat edo eskerren bihurtcerat deitcen cituenean, erran ohi zuen ene anaya eguskia edo ene arreba arguizaia. Profeta erreguearen pare, nahi zuen creatura guciec Yauna lauda cezaten.

Entzun dezagun San Bonaventura espantu horien erraiten. Yaincoaren serbitzaria, Francizco, bidean zohalaric behin, heldu cen tchoriz bethea cen toki batetara ; hetarat hurbildu cenean, ontasun handi bathekin salutatu cituen. Arbole ondo bathen saietcean, zagoen, noiz eta tchoriec adarretic adarrerat zabiltzan alegrancia handian. Batzuec ethortcen citzaizcon bururaino, bertceac lepoa luzatuz, sho eguiten cioten. Francizco tchoratua heien arthean, bi hitz erran zazten : « Ene anayatchoriac, laudatu « behar duzue zuen Creatzailea, zoi- « nac beztitu baitzaituzte lumaz, « eman dauzkitzue egalac, aicez aice « ibiltceco, eta bascatcen zaituzte « ceuen buruac necatu gabe. » Hunela mintzo citzaien demboran, tchoriec aguertcen zuten beren boscarioa, batzuec, lepoa luzatuz, bertceac, egalac safratuz eta bertceac mocoa zabalduz ; eta Francizco heien erdien cebilen, bere arropaz unkitcen cituelaric. Finean eman zaren benedicionea eta yoaiteco bayac, egaldatu ciren guciec cantuz. Francizco bere lagunetarat

itzuli cenean, acusatu cen, ceren ez tzuen ordu artean tchoriei predicatu. Oh! Sainduaren lañotasuna! Adam berria, creaturac obeditcen zutena, nola gure urgullua esestatcen duzun!...... Bertce behin, dio Doctor aiphatuac, present ardi bat ecarri cioten; errecebitu zuen eta cembait abisu eman ciozcan, yatzarria egon zadin eta ez cezan fraideen izpiritua barraia; ardiac lehialki manu horiec beguiratu cituen. Entzuten zuenean Elizan cantua, bere baitaric Elizara yoaiten cen, Mariaren oinetan belhaunicatcen cen; mezaco demboran errespeturic handienean egoiten cen eta elevacionean osoki ahuzpez emaiten cen. Exemplu unkigarria, fede ttippico guizonentzat.

Erroman celaric, gorde zuen berekin bildox bat, Yesus maitearen eztitasunaz orhoit arazten zuelaco; handic yoan beharra ethorri citzaionean, eman ceraucon beguira cezan Yacoba de Settisoli andere noble bati; bildox hau Francizcoc arguitu izan balu becela, presuna hori Elizarat yoaiten cen aldi guciez yarraikitcen cen. Goi-

cean goicic yeikitcen ez bacen, bildoxac yatzar arazten zuen, eta adi arazten bere moldez Elizarat yoaiteco. Andere hunec arthatcen zuen, Francizcoren icasle miragarria.

San Verecundaco comentuan celaric, ardi batec eguin tzuen humea, zoina acienda batec yan tzuen. Francizcoc yakin zuenean cer guerthatu cen, nigar eguin zuen, cioelaric : « Oh ene anaya, bildox gaizua, era« custerat emaiten duzu Yesus-Chris« toren iduria zarela. Yzan bedi ma« daricatua zure atchuria hil duena, « nehorc ez dezala haren araguia « yan, ez guizonec, ez cabalec. » Berehala hiltcen acienda hura eta aurdiki zuten cilho bathetarat.

Eguiazki, madaricatua da, Yesus, bildoz notha gabea becatu mortala, hil araci nahi duena ; ceruco eta lurreco madaricioneac bere gain ditu eta baldin urrikitcen ez bada, entzunen du bildox hunen arrazta : « Zoaz « eneganic, madaricatua, bethico er« retcerat. »

Egun batez ecarri cioten Francizcori herbi bici bat, utci zuen lurrean

nahi zuen tokira yoan zadin, bainan gueldi zagoen ; Francizcoren deitze ezti batez ethorri citzaion belhaunerat. Orduan Francizcoc bere bihotzaren contra ezarri zuen, cioela, ez guehiago bere burua atsemaiterat usteco ; eman tzuen lurrean, bainan berriz ere Francizcoganat nahi zuen ; orduan manatu zaren bere lagunei, ar cezaten eta eraman ihiztariric ez tcen-tokira, hala eguin zuten.

San Bonaventura loriatcen cen exemplu horiec aiphatcean, hala Francizcoren saindutasuna ezagutuz loria gaitecen. Francizco bere lagun batekin Veniseco alderat zoalaric, guertatu cen tchori tropa bat cantuz ari cela ; erran cion bere lagunari : « Gure anaya tchoriac Yaincoa lau- « datcen ari dire, goacen gu ere, « heiekilan oficioa erranen dugu. » Hurbildu cirenean, tchoriec ez tciren iguitu, han gueldi gueldiric zauden. Abiatu ciren oficioa erraiten, bainan tchoriec hoin gora ari ciren, nun ez baitzuten elgar aditcen ; orduan Francizcoc erraiten dare : ichil zaitezte ene anaya tchoriac guc lehenic Yaincoa

laudatu artean. Tchoriec ichildu ciren. Oficioa finitu eta Francizcoc berriz cantatceco baya eman ciotenean, seculan baino gogotiago ari ciren, eta Francizco loriatua zaucaten.

Porciunculaco comentuan Francizcoren ganbela ondoan caucitcen cen pico ondo bat, nun ere ari baitcen ttirrita cantuz ; cantu hunec Yaincoaren laudatceco guticia emaiten cioen ; egun batez deitu zuen bereganat eta ttirrita escurat ethorri citzayon. Ene arreba ttirrita, dio Francizcoc, adiaraci ditzagutzu zure cantuac eta lauda zazu ceure creatzailea cantu horiekin. Ttirrita cantuz asi cen eta ez tcen baratu, Francizcoc manatu arteio. Zortci egun egontcen han Sainduaren nahirat eta egonen cen guehiago, baldin Francizcoc bere aur izpiritualac bilduric erran ez bazaren : « Gure arreba libro utzi behar dugu, zortci egun badire gombidatcen gaituela Yaunaren laudatcerat. Igorri zuen beraz eta ez tcen guehiago aguertu Francizcoc debecatu ceraucolacotz.

Ecarri guentzazke bertce guehiago

ere, bainan batekin finitu nahi dut, dena miragarria baita.

Otso icigarri bat zagoen Gubbio hiri inguruan, guizonac ez cicen menturatcen attacatcerat eta bizkitartean atzeman gucia eramaiten zuen. Francizco icustean gende hen beldurra, urricaldu cen, eta erran zaren bera yoanen cela otsoaren bidera, guizonac icustean otsoa okin-arra aguerian zucen Francizcori heldu cela, durduran zauden.

Francizco hurbildu citzaion eta gurutcearen seinalea eguin otsoari, cioela : « Augui huna, anay otsoa, augui huna. » Oh Francizcoren botherea! otso hori, oraino errabian zagoena, ahuna aurdikitcen zuena, ezti eztia erorícen Francizcoren oinetarat. Orduan erran cioen Sainduac : Anay otsoa eguiten dituc inguru hautan desmaci handiac, ez choilki ithotcen dituc cabalac, oraino hil nahi dituc, Yaincoaren iduriac, guizonac; mereci duc hiltzaille bat becela gaztelurat eramaitea eta han gatheez amarratua atchikitcea. Nahi diat anay otsoa hirico yendeekin bakeac egui-

tea, hitz emanez ez ducala guehiago calteric eguinen, eta hec ez aute guehiago attacatu eta ukanen dut egun guciez behar ducan basca. Hitz horiec aditcean, otsoac aphaldu zuen burua, onhesten zuela Francizcoren ideia adi arazteco. Francizcoc, anai otsoa, ene ideia onhetsi duanez guero, nahi diat hireganic marca bat, eta luzatcen dio Saindúac escua eta otsoac bere aztaparra. Francizcoc, deranco oraino otsoari, anay otsoa, Yesus Christoren icenean eta ororen biztan, behar diagu hitz hori berritu, augui... eta otsoa badoha Francizcoren alde aldean hirico plazaraino ; han leheneco itza berritu zuten, eta yende biciki nola baitcen, ocasione eder huntaz baliatu cen Francizco conversioneaz, penitenciaz eta ifernuaz mintzatceco ; cer? cioen, otsoaren aztaparren beldur zarete eta ez duzue Satanen aztaparrenic ? ez dakizue bada becatuan biciz becatuan hiltcen bazarete, eternitadean erretcen egonen zaretela ?

Hunela Francizco, baliatu cen ocasione hortaz arimen salbatceco ; ot-

soa egun guciez yausten cen hirirat bere bascaren tcherca eta beti ucaiten zuen.

Hunela Francizco, Yaincoaren serbitzari miragarria, ibilli cen arrasoina gabeko creaturekin ; bertce asko eta asko gauza erranguentzazke, bainan utzi ditzagun, eta utz dezagun Francizco bere bide onean.............

..................................

..................................

Patriarca Sainduac, fincatu cituen bere aur izpiritualac, Evangelio Sainduco cimenduan ; Apostoluen maneran, probecian eta beheratasunean bici behar zuten. Mundurat igorri cituenean, escaleac becela, untutzic, diruric eta bertce gauzaric gabe, Yesus Christoren Evangelioa predicatcerat eta haren erresumaren handitcerat igorri cituen. Horrec galde eguiten dituz hirur gauza : saindutasuna, yakitatea eta apostolutasuna. Francizcoc eta bere lagunec ucan zutela saindutasuna ez da dudaric, Saindu ciren eta gradu goorenean.

Apostoluaren arabera, ez ciren mintzo guizonen maneran, bainan

Izpiritu Sainduaz arguituac mintzo ciren. Francizcoc bacekien yakitatea behar cela, eta horrengatic lehenbicico haur izpiritualei manatu zaren lehenic bere aintcinean mintzatcea; hoin ongui mintzatu ciren, nun, orduan berean igorri baitcituen. Apostolutasuna bazuten, ceren Yaincoaz lehenic eta Aita Sainduaz guero igorriac izan ciren.

Yracurtcen da orduco liburuetan, honin bici molde saindua. « Francizcoren aurrac, dio Cardinal de Vitrye, munduarentzat duten arbuioaz, beren piltzarrekin, eguiazki oraico fraide, ttippi eta humillenac dire; eguin ahal gucia eguiten dute Elizaren lehen bertuteac phitz arazteco.

Evangelio Sainduan hoin ongui icasten dute, nun, manuac eta contseilluac beguiratuz, Apostoluei yarraikitcen baitire. Arnegatcen dituzte beren ontasunac, eta ez dute lurraren gainean gozamenic, halaco maneran, nun, ez baitute ez echeric, ez Elizaric, ez lurric, ez bertce gauzaric berehena deitcen ahal dutenic; ez dute berea erraiten ahal burua pau-

satceco arri bat bera ere ; buluziac, Yesus buluziari dare, beren nahia utciric, gurutcera carraiatcen dute eta perfecioneco bidean, lazterca dohaci. Ygortcen dituzte binasca predicatcerat, eta ez dute bidean eramaiten, ez gambiatceco arroparic, ez yakiric, ez diruric, ez oinetacoric. Emaiten zaitena yaten dute, ez dute biharamuneco gordetcen. Horien predicuec, bereziki, horien exempluac, anichcori arbuia arazten dare mundua. Aberatsac utciric beren yaureguiac, besarcatcen dute probecia eta beztitcen dire piltzarrez. Fraide horiec dembora laburrez hoimbertcetaraino emendatu dire, nun ez baita guiriztinoetan provinciaric horietaric ez denic ; orori aguertceco miroilla garbian becela , munduco handitasunen ez deuskeria. Ez zuten bortha nehori cerratcen yakiric ez tzutelaco, bainan Yaincoaren Providencian hoin fidanza handia zuten, nun bere misericordian deitcen cituenac, errecebitcen cituzten. Agueri da, mundu huntan berean, Yaincoac emaiten zarela ehun guehiago. Sarracenoac

berec, miragarri caucitcen zuten horien bici moldea, eta predicatcerat hetarat yoaiten cirenean, boscario handian errecebitzen cituzten.

Hitz horietaric agueri da, Francizcoren aurren saindutasuna; berthutean fincatuac, ez tzuten nehorren beldurric, ez goce egarrien, ez nahi gabe eta arbuioen beldurric; Yaincoari, amodioaz bat eguinac zauden, norc berechten ahal cituen?

San Bonaventurac dio, biciki guizon Yaincoaren graciac unkituac ethortcen citzaizcon Francizcori eta ordena egun batetic beztera hedatu cen mundu gucian guizon saindu horiec, beren aberastasuna trucatu zuten probecian, beren nahia obediencian, beren atseguinac hildurapen icigarrietan. Norat nahi yoaiteco beti prest zauden, bideric nekeen eta luzeenac ere; nola ez baitzuten lurrean gozamenic, hala ez tzuten lurrecoac iduri. Toki gucietan segur zaren, deusen galtceco irrichcu gabe, beti bihotceco bakea gozatcen zuten. Goicean iguricatcen zuten sosegu handian, arratceco atherbea, biharamu-

naz casoric eguin gabe. Eguia da, comunzki yassan behar ukan cituzten arbuioac eta manera gaichtoac, bainan Yesus Christoren eta Evangelioaren amodioac, eguin cituen hoin pairaezgarri, nun nahiago baicic ez baitzuten pairatcea eta hala pairatceco tokira yoaitea, zuten maiteena.

Hunela cebiltcen munduan, Francoren aurrac, lecu gucietan bihiaren ereiten, Yaincoaren itza hedatcen, eta arimac ehortciac zauden bicio tzarretaric, graciarat phizten. Norc erran zombat tokietan ibilli ciren, zombat icerdi ichuri, zombat uratch eman cituzten, arimen salbatceco eta ardi errebelatuen edireiteco ! jo dezagun escuin edo ezker, igaan ditzagun itsasoac, sar gaiteien morturic lazgarrienetan, han dire Francizcoren aurrac. Africa, China, America, Yapon, Asia eta Turkia, Egyptoa eta bertce tokiac Francizcoren aurren icerdiz eta odolaz arregatuac dire.

Toki horietan Yesus Christoren bandera esarri zuten, Yesus bera, ezagut araci, adora eta maita araci zuten. Oh zombat ! merecimenduez

aberastuac igaan dire cerurat! Zombatec ez othe dute irabaci, Yaincoac preparatu zaren coroe ederra! Fede gabeco yendeetaric milla eta bozt ehun igaan dire beren palmac escuan ceruco loriarat. Uropan berean cer ezdute Francizcoren aurrac sei mende huntan eguin! zombat arima satanen gathibo zarenac libratu! zombat arima contsolatu! zombat ceruco bidean ezarri eta guidatu! zombat dohatsu eguin, ene lumac ez dituz espantu horiec marcatcen ahal; choilic horiengatic untsa erraiten ahal dela: Zoin eder diren bakea eta onguia eracasten dituzten oinac. « *Quam pulhcri pedes evangelizantium pacem, evangelizantium bona!* »

Ordena hunec ecarri cioen Elizari mende trizte hetan contsolamendua eta izan cen bere sostengua. Eman derauzco Saindu handiac Elizari, erranguentzakegu, Yaincoac, Francizcoren erreguelari, sainduac eguiteco gracia berezi bat eman dioela. Erreguela hau, berac dioen becela, Evangelioaren araberacoa da, obediencian, probecian eta garbitasu-

nean biciz. Erreguela huni yarraikitcea baliosa eta merecimendu handia da. San Bitchintcho Ferrier, Dominicanoac erran ohi zuen : Erreguela hori lehialki beguiratcen duena Saindu bat da, eta azkeneraino lehialtasun hortan irahuten duena, canonizatcen ahal dutela.

Eta eguiazki Francizcoren aurren erreguela, Saindua da, purra, perfecta, oroc Yaincoaren graciarekin, beguiratcen ahal dutena, erreguela hau, Evangelio Sainduaren cepi lehiala da, horrengatic Francizcoren aurrac, bereciki deitcen dire Evanlioco guizonac.

Margarita Cortonacoac eta Santa Brigidac ucan cituzten cerutic arguiac erreguela hunen gainean. Sainda Brigidac, ucan zuen Yesus Christoren ganic fagore hau. Francizco, erreguelan ez da zureric batere, gucia enea da, eta nahi dut hitzez-hitz beguiratcea ; badakit zombat den guizonen ahal ttippia, badakit ere zombat lagundu behar ditudan.

Santa Margaritari Yaincoac erran

cion : Francizcoren aurrac, mundu huntan diren, arimen arraintzailleric handienac dire ; apostoluen probeciari eta kharrari yarraikiz, eguiten dute fruitu handia arimetan. Maite ditut, amodio berezi batez, ceren diren guizon humillac, probeac eta hilduratuac. Ifernuari kendu arima gaichoez, cerua aberasten dute. Erran zaezu, emanen daretela beren eguinbidei lehial izaiteco gracia. Beldurric gabe, ongui frogatu ondoan, ethortcen zazten guciac errecebitceco ; aberatsac nola probeac, nobleac nola languilleac. Horien ordena porthu segur bat becela da, munduco ola hantuetaric urrun, nun ere hoimbertce irrichcu baita. Nor nahi sar dadin, oficioaren erraitea, obediencian, probecian eta garbitasunean bicitcea bertceric ez eguinic ere, segurtatua du arimaren salbamendua.

Erreguela hunec Elizari eman derauzco, ehun eta hogoita sei Saindu, ez dugu tokiric heien icendatceco, aski da yakitea gradu gucietaric cirela ; buruzaguiac, misionestac, ba-

ratce zainac, bortierrac, cocinerac eta oficio gucietacoac. Comentuan humil eta nehorc ezagutu gabe bici cirenac Yaincoarekin ceruan daude eta aldareetan ohoratcen ditugu. Bertce zombat ez othe daude, aldaretan ez egonic ere parabisuco tronu ederretan! Saindu gucien beztan erraiten dugu : Icusi dut tropa handi bat, nehorc condatcen ahal eztzuena. *Vidi turbam magnam, quam dinumerare nemo poterat*..............

..................................

..................................

Francizcoren bertce aurrac, igaan zuten bere dembora escolaric handienetan eracasten. Eracasleric aiphatuenac ciren ; Alexandro de Halés, eracasten zuen fama handiarekin, Parisen, 1222ᵉⁿ urthean ; haren icasletaric cen S. Thomas aiphatua, alaber S. Bonaventura. Jean de la Rochelle arthu izan zuen guero haren lecua ; San Bonaventura icendatu zuten Doctor Seraficoa. Roger Bacon izan tcen famatua, eta Duns Scott, pareric gabea, zoinac Pariseco escola guciari sinhets araci ceraucon, Andre

dena Maria notharic gabe concebitua izan cela. Ichilic uzten ditut, ordena hunec eman izatu dituen yakintsunac, nola S. Antonio, S. Bernardino, etc., etc., etc.

Hoimbertce saindu eta yakintasunekin, ordena hunec eman cerauzcon Elizari, Cardinaliac hirur ogoi ta guehiago, Patriarca edo Archapezpicuac berrehunta guehiago, eta bi milla baino guehiago Apezpicu. Ordena miragarria, Aita Sainduec bethi maitatu eta laudarioric handienac eguin dituztena. Yean XXII[ac] bere bulan eguin tzuen laudario hau : Francizcoren ordena, Elizac bay emana da, fedean argui, « *fide clarus* » ezperantzan borthiz, « *spe validus* » obediencian khartsu « *obedicione devotus.* » Ordena hunec eguskiac bere arayoez munduan diztiatcen duen becela diztiatu du. « *Velut singulare jubar, universum per orbem claruit.* »

Hori da Francizcoren lehenbicico familla ; oraico dembora lasgarrietan, iduri baitu ifernua Elizaren eta bere ordena Sainduen contra alt-

chatu dela, famillia hunen membroac, observanciacoac choilic «*ogoita hamar mila*» dire. Segurtatuac daude ordena huntaco fraidea, mundua finitu arteco, iraunen duela ordenac, Yesus Christoc Francizcori aguertu baitcion. Bethi sei mende horietan Yaincoaren Providenciac laguntcen ditu; erresuma batetic casatuac badire, bertce batec borthac sabaltcendazte. Francian errevolucionē handian fraideac casatu cituzten eta comentuac erre; huna hemen berriz nun sorthu diren Francizcoren aurrac, Donapoleon, euscal herrian; hau da guerostic eguin diren eta eguinen diren comentu gucien ama. Horra beraz Francizcoren aurrac, hoimbertce saindu eguin dituen erreguela harekin berarekin.

Ah! zombat utziric munduco atseguin igaancorrac, ontasun galgarriac, zombat ertciric beharriac Sirena lilluragarriari, eta arnegaturic Babyloniaco ur cikinac, ethorrico dire Eseboneco ur garbietarat!!!

Aguian ainitz! aguian oroc!

## IIen CAPITULOA.

### San Francizco Asisacoaren bigarren Ordena.

(1212).

---

Francizcoc guizonentzat eguin tzuen ordena eder hori, nun ere condicione gucietacoac saindu eguin ciren ; bainan behartcen cerbait eguin munduan zauden birginentzat. Francizcoren bigarren begui golpea, hori izan cen, eta Yaincoac guidatu zuen hoin ederki, nun lombre gabeco birginac Elizari eman ciozcon, hara nola. Francizco sorthu izan cen herri berean, Clara mundurat ethorri cen ; burhasoac ethortce handitacoac cituen. Birgina hau aur aurretic asi cen othoitzaren eguiten eta andre dona Mariaren maitatcen. Garbitasuna eta probeen alderaco amodioa ciren beregainki haren baithan guehiena seinalatcen ciren berthuteac.

Yaincoaganaco amodioa, Clara baithan, adinarekin emendatuz zohan.

Ez tzuen bathere laket munduco atseguin eta bere gaucetan. Lehiatcen cen munduari ihes eguiterat, ecin bertcez zarabiltzan yaunstura ederrac ; ezagun ere cen gogoaren contra aguertcen cela bere sortceari zagoscon appainduretan. Clara osoki Yaincoarena cen, berthutean aintcina zohan, bainan ifernua errabian ethorri cen, hunen galdu nahiz eta hortacotz baliatu cen molde guciez. Hurbildu cen eguardico eguskiaren pare, munduaren ilhumbeac arguitu behar cituen dembora. Aguertuco du ifernuac bere malicia, Clarac bere berthutea eta garaituren du. Etsaiac bildu ciren, armatu ciren eta guduca abiatu cen ; ahal guciac eguinen dituzte, Clarari, Ainguerueu pare eguiten duen berthutearen gal arazteco : hele tzarrez, arinez, aphainduraz, edertasunaz, eta atseguinez. Oh ! zombat arima g aicho Clararen adineco, ez dituzte hele horiec lilluratu eta Eva becela engainatu ! Clarac aguertu izan zuen fermutasun handi bat, eta etsaien guduan victorios gueldItu cen.

Lagun gaichtoen artetic urruntcen cen, larderia bihotcean, suguearen biztatic becela eta bacartasunean bere gorputza hilduratuz, bortizten zuen arima. Ahal gucia eguin zuen beguitarte ederraren itsuzteco. Clara, etche handico alaba, noblea, aberatsa, calitate guciac cituena, oroz galdeguina cen haren escua, bainan gorritcen cen Birginaren beguitartea orhoitza penaz ere. Gazte gucietaric batec, ucan zuen Clararen burhasoetaric, arraiñamendu baten eguiteco fagorea, bainan Birgina gasteac ez tzuen aipatu ere nahi ; yadanic Yaincoari consegratua cen eta Yesus baitan causitu zuen espos maitagarriena. Orduan abiatu cen guerla icigarria, ifernua, mundua eta araguia garaituz, Clarac, ainguerueі bereri, icusgarri bat emanen darena. Aita amec, nahi zuten Clara escondu ; Clara yadanic Yaincoari emana da ; cer eguin ? cer pentsa ? nola Yesus abandona ? nola Birginen coroa galdu ? ez, ez ; bainan escontcen ez bainaiz aita amec manatua ez dut eguinen, fulian ene gain erorico dire ; cer eguinen dut

beraz? gogoeta lasgarriac! Arima garbiarentzat bihotz erdigarriac!!!

Bertce orduz Yaincoac Danieli igorri izan cioen becela Aingueru bat contsolatcerat, Clarari igorri cion Serafin bat, izpirituac argituz, bihotceco bakea ecarriz, bide onean guidaturen zuena; Francizco cen Clararen ihes tokia. Orducotz Francizcoren fama handia barraiatua cen cartierrean, Clarac aditcera zuen, bicimolde garratz bat zaramala; eman tcen Francizcoren peco, obeditcen zuen eta yarraikitcen haren contseillu zuhurrei. Yoan tcen beraz bere guidarien ganat eta aguertu cion bihotza; Francizcoc icusi cituen secretoric handienac, eta fincatu zuen Birgina izaitean.

Ama izaiteac ikaran esartcen zuenac, Sararen pare, ukan cituen ecin conda ahal aur izpirïtual, izarrac becela, Elizan arguitu dutenac. Francizcoc erran becela, Clara, arrats aphalerat, munduari uko eguin ondoan, aita amaren ichilic, eguin zuen bide Porciunculaco Eliza chumerat. Francizco eman cen bere fraide lagu-

nen buruan, eta errecebitu zuten Clara preztua, torchac escuetan, psalmoac cantatcen cituelaric. Birgina gastea egon cenean aphur bat othoitcean, motch-araci cituen bere illeac, kendu cituen soineco arropa ederrac eta artu zuen aldarearen oinetan penitenciazco arropa sacu iduri bat, ceina estecatu baitzuen, sokazco guerrico batez. Gauza hunec haro eguin zuen hiri gucian; Clarac mundua garaitu zuen, bainan helas! ez oraino burhasoac; orai hekilan behar du guducatu eta fermuki.

Aita eta ama, handizki damustatatuac izan ciren, ceren eta halaco etcheco-alaba penitencia dorfe hari emaiten cen. Uzte izan zuten, nobleziari trufa eguitea cela eta etcheari zagocon handitasunari. Hunela yuyatcen du munduaren araberaco zuhurtciac, ez ordrea Yaincoarenac. Armatu ciren beraz, eta yoan ciren Clara cen tokirat, onean nahi ez bazuen, bortchaz yeilki arazteco chedeekin. Aitac bildu cituen ahaideac eta fulian yoanciren comenturat; aita emaiten da bere alabaren aintcinean,

baliatcen da molde guciez mundurat itzularazteco, bainan alferretan ; ez amaren nigarrec, ez aitaren mendecuac, ez ahaideen erranec, ez tzuten Clara iguitu ; cer nahi erran cioten, nola nahi arbuiatu zuten, azkenic yoan ciren obretaraino ; bainan Clararen fermutasun miragarria !

Aldarearen contra ahuzpez eman cen, bere burua billo superra motchtua aguertcen dare eta beguiac guruteerat altchatuz dio : Huna hemen hautatu dudan espos maitagarria, bihotz gucia eman diotana, hau izanen da ene ihes-tokia, hau ene indarra zuen escuetaric libraturen nauena.

Hitz horiec aditcean, burhasoac galdu cituzten beren armac, ahaideac beren colera eta Clara victorios gueldítu cen.

Clara guelditu cen beraz comentuan, bainan gauza batec bihotza lasduran sartcen cioen ; bere ahizpa gastea, Agnesa, utci izan zuen munduan. Costuma berecoac ciren, bathasunean bici ciren eta elgarrenganic berechtea penagarri zuten. Clara ari

cen bere ahizparen daco Yaincoaren othoizten, galdeguiten cion sendi arazteco Agnesari graciaren eztitasuna. Clarac ardietsi zuen galdatcen zuen fagorea. Agnesa, mundua utciric eta munduco ohoreac, ethorri citzaion comentura Yaunari consegratcera. Cer zori ona Clararena! cer errabia aitarena!!!

Aditu zutenean Agnesa gastea ahizparenganat yoan cela, colera goren gorenean cen; ez tzakiten cer eguin, cer arma.

Biharamunean, hamar hamabi lagun bere ahaideetaric bilduric yoan cen comentura. Lehenic iduri zuten ezti eztiac heldu cirela, eta comentuan sartu cirenean, Agnesari erran cioten : Certarat ethorri zare huna? ea laster etcherat? Ez, dio aur gasteac, ez naiz etcheraco, ez dut ene ahizpa bacarric utzico ; orduan batec bere coleran buruco billoetaric artu eta erreztatu zuen. Ardi innocenta otsoaren aztaparretan cen. Ene ahizpa, cioen, ene ahizpa, othoi zato ene laguntcerat. Clarac othoiztu zuen Yaincoa eta miraculuz ahizpa utzi zuten

Agnesa prestua, bere ahaideec mendia behera erreztan zaramaten, urratuz cituen arropac, buruco illeac lapharetan ereinaz; bainan huna hemen nun bet-betan hoin pezu caucitcen den; ez baitzuten ez berec, ez lanean ari ciren laborariec iguitcen ahal. Osaba han zuen, arraillerian irriz ari cen, bainan eguin ahal guciekin icustean ez tzuela irabazten, altchatu zuen besoa Agnesa jotceco, eta hilen zuen baldin han berean, Yaincoac eman izan ez bacion min bat guero ere urtheetan iraun cioena. Ycas bide ona, haurrac comentuetarat igorri edo yoaiterat utzi nahi ez dituztenen aita amentzat. Mundu huntan ucaiten ez badituzte castigu horiec, Trentoco bilcurat dio, ucan litzezketela handiagoac bertce munduan.

Clara, Yaincoaz arguitua, yoan cen guduca tokira eta caucitu zuen bere ahizpa erdi hila; othoiztu zituen ahaideac urruntceco handic eta berac ukanen zuela Agnesaren artha; ez cioten gogo onez utzi. Hec handic urrundu cireneco, Agnesa lurretic

altchatu cen eta aleguera, Yesus Christoren amoregatic cerbeit pairatu zuela, çomenturat itzuli cen.

Francizcoc errecebitu zuen, contsolatu zuen, arguitu besarcatu zuen bici-moldeac emaiten cerauzcon eguinbidetan eta berac illeac mochtu cion.

Bi ahizpac San Damianeco comentuan zauden, laster heien saindutasuna baztarretarat hedatu cen, eta nezcatch gasteac mundua ntziz, heekilan penitencian bici nahi zuten. Yzan ciren presuna esconduac ere, elgar adituz, cenharrac lehen ordenan eta emasteac bigarrenean gogo onez sartu nahi zutenac. Berehala Birgina sainduan lombrea handitu cen; baciren gaste gasteac, baciren guciz delicatuac, baciren orotaric, probeac, aberatsac, languileac eta nobleac, guciec bat eguiten zuten. Penitenciaric dorpheenac eguiten cituzten; erranguentzakegu Birginen coro ederra apaindu nahi zutela martiren coroarekin, arrosaric gorrienac honi kenduz.

Francizcoc nola maite baitzuen

itchutuki probecia eta fraideac berthute huntan fincatu baitcituen, bigarren ordena ere hala izaitea nahi zuen eta icendatu zuen : *Andere probeen ordena*. Hau da Francizcoren bigarren familia, familia hirusa, ceruan becela lurrean bici direnena. Clarac, bere ahizpa izpiritualekin, galdeguin cion Francizcori erreguela bat, fraideentzat eguin tzuenaren parecoac ; orduan bertce comentuetan ciren erreguelac, Clarac sobera ezti caucitcen cituen. Patriarca Saindua mintzatu citzaion Hugolino Cardinaliari eta biec eguin izan zuten Aita Sainduaren manuz bigarren ordenaco erreguela, lehenbicicoaren iduricoa, Evangelio Saindutic atheria.

Erreguela hori izkiribatcean, Francizco nigarrez ari cen, ceren eta birgina gasteac, beren indarren gaineco penitencia eguin nahi zuten. Patriarca Sainduac 1224en urthean eman izan zaren erreguela. Honorio IIIac encargatuz, Cardinale hunec beraz baimena hitzez eman zuen, eta guero Aita Saindu eguin zutenean,

Gregorio IX^en icenarekin eman zuen izkiribuz. Erreguela hau izanic ere garratza, eta manaturic ere probeciaric handiena, nun ez baithute gozamenic, bainan bici baithire, emaiten zarenakin, erreguela garratz hau diot hitcez-hitz beguiratua izan cela Damianeco comentuan lehenic eta guero bertce ainitz comentuetan. Aita Saindu Gregorio IX^ac eta Ynocencio IV^ac eztitasun cerbeit ezarri nahi izan cioten, bainan Clarac bere aurride izpiritualekin beti beguiratu izan zuen, garratcena, Francizcoc emana.

Hedatu cen munduan bigarren ordena, eta ainitz comentutan beguiratcen zuten probecia handia; bertce batzuetan eztitasun cerbaitekin, horiengatic erreguela garratza cen oraino.

Yzabela Franciacoac, San Luisen arrebac, Yaincoari bere birginitatea consegratu zuenean, Conrad, Frederico bigarrenaren semearen escua utziz, eguin zuen 1255^en urthean seroren comentu bat icendatu zuena : « *Andre dena humillarena* » Parise-

tic hurbil, à Longchamp. Bildu izan cituen sei Doctor, lehen ordenacoac, San Bonaventura cen bat, bigarren ordenaco erreguelaren idurico baten eguiteco, eztichago bat ; eguin izan zuten eta Aita Saindu Alexandro IV$^{ac}$ bay eman cion, 1258$^{en}$ urthean.

Erreguela hori ere, garratz caucitu zuten eta othoiztu zuten Aita Saindu Urbano IV$^{ac}$ eztitzeco oraino ; Aita Sainduac eguin zuen, eta eztitasun horiec artu cituztenac deitcen cituzten « *Urbaniztac.* » Clarac bere peco comentuekin beti, hil arteio, San Francizcoc eman erreguela beguiratu zuten.

Bigarren ordenac eman ditu Sainda handiac, berthute miragarriac, penitencia espantagarriac. Aipa ditzagun choilki cembaiten icenac.

Santa Claraz ene mihiac ez daki cer erran, ene lumac cer izkiriba ; erraiten badut birgina cela, erran behar dut ere bere penitencian martira cela ; erraiten badut humilla cela, erran behar dut ere izpiritualeco gaucetan Doctorra cela ; Clara cen, clarki ceruco bidea bere contseilluez eta exempluez eracasten zuena.

Agnesa bere ahizpa, Sainda handi bat eguin cen ; erran dugu nola garaitu cituen mundua eta araguia. Icigarria cen Agnesaren penitencia, aipatceac berac bihotza saurtcen du. Oguia eta ura ciren haren bici gueicoyan yan edariac ; cilicio bat zorrotza, gorputzaren burreua, zoina hil arteio ez zuen kendu. Escu lanac eguiten cituenean, othoitzari emaiten cen osoki ; eta ardura urtsoaren pare Yaincoaren ganat egaldatcen cen. Gau batez othoitz khartsuan zagolaric, bere ahizpa Clarac icusi zuen lurretic altchatua eta hirur coroe ederrez coroatua ; icusten zuen ere Yesus sorthu berria becela aguertcen citzaiola. Agnesa eguin zuten burusagui, gucien modela cen, izan cen frango birginen ama izpiritual ; guidatcen cituen ceruco bidean, arguitcen beren eguinbidetan. Merecimenduz betea hil izan cen, Santa Clara bere ahizpa hil cen urthe berean eta igaan cen cerurat haren arima birginencoroa errecebitcerat.

Sainda Cunegonda, Poloniaco erreguina, guciz aipatua, sorthu zeneco

Maria salutatcen asi cen; oraino ttippi zelaric gorputza hilduratcen asi cen, ceren asteazkenetan eta ostiraletan behin baicic ez tzuen bulharra artcen; inhureac elizarat besoan eramaiten zuenean, burua aphaltcen zuen Yesus eta Mariaren icen sainduac aditcean. Gaste dembora, othoitcetan, amoina eta penitencietan eraman izan zuen, bere nahia cen birgina bethi izaitea eta ardietsi zuen escondua izanic ere.

Boleslao Poloniaco Dukea zuen cenharra, zoinac utzi baitzuen birgina, hunen nahiaren arabera. Zenharra hil citzaionean, munduco gauzac utziric, osticaturic ongarria becela, Clararen ordenan sartu izan cen eta penitencia imitagarriagoac baino miragarriagoac eguin cituen. Behin huna cer miraculu eguin izan zuen; comentutic urrun zuten ura eta penatcen ciren; Cunegonda burusaguia yoan cen errecarat eta manatu cion bide hura utciz, comentutic igaiteco, eta hola guertatu cen, patarrac pasatu beharra ucanic ere. Sainduan ohorean hil izan cen.

Catalina Boloniacoa Sainda handia. Andre dena Mariac aguertu izan cion hunen aitari, eguskiaren arguiaren pare sorthuco cela. Bere aurtasuna, aingueruen parecoa izan cen. Ogoi urthe cituen, amac Santa Clararen comenturat eraman zuenean. Han, lampa batec becela arguitcen zuen ; beheratasun eta caritate handitacoa cen, eta galtcen ari ciren arimentzat hoin urricalmendu handia zuen, nun, Yaincoari erran ohi cion (ahal bacen) arima heien ifernutic libratceagatic, bera yoanen cela. Obediencia ecin guehiagozcoa zuen ; behin erran cioten ez manduz, bainan frogatceco, ez tzuela surat bere burua aurdikitzcen ; aitchiki ez balin bazuten aurdikitcen cen. Mezaco demboran, Santusean bereciki, aditcen cituen Ainguеruec cantuz, eta hoin eztiki eta ederki cantatcen zuten, nun, guehiago irahuten bazuen, hilen cela cioen.

Anaya convertitu zuen, ahizparen arima icusi zuen cerurat igaiten ; hoimbertce berthutez aberastua, Yesusen icen saindua ezpainetan

igaantcen cerurat, Birginen Birginarekin erreguinatcerat. Santa Catalina Boloniacoaren gorputza, oso osoa dago oraino.

Salome dohatsua Galliciaco erreguina, Clararen aur izpiritualetaric cen. Aurtasunetic aguertcerat eman zuen saindutasunerat heldu cela. Bere gaste demboran, Yaunari garbitasunaren votua eguin zion, bainan erresumaco nahasmenduac gueldit-ceco escondu behar izan zuen. Escondu ondoan ere birgina bici cen, eta hunen beguiratceco, hirur armaz baliatu cen, cilicioaz, barhuraz eta othoitzaz. Gau osoac othoitcetan pasatcen cituen eta penitencietan. Zenharra hil izan citzaionean, Clararen ordenan sartu izan cen, bere saindutasunac ecarri araci cituen bertceac, beren burusagui icendatcerat eta hala eguin izan zuten. Erreguelaren copi leyala cen, eta berthute gucien mirailla. Evangelio Saindua iracurtcen aditcen zuen demboran, heritu izan cen, erran zuen noiz hilen cen, eta guciei berthutea contseillatu ondoan, Maria bere Seme Yaincoarekin erre-

cebitzceco zori ona ucan ondoan hil baino lehen, yoan cen guero heyekin erreguinatcerat. Santa Coleta, berthute handitacoa, Yaincoac Clararen penitenciac eguitera eta bezter exemplu emaiterat ecarri zuen.

Aur aurretic asi izan cen probeac maitatcen. Othoitza biciki maite zuen eta gorputzaren hilduratcea, ichilic yoaiten cen toki gordeetarat eta han bere gorputz biguna asoteaz jotcen zuen gatheez lotcen eta holaco maneraz cebatcen zuen. Hamalaur urthe cituelaric, bere beguitarte ederraren, itsuzteco fagorea Yaincoaganic ardietsi zuen. Debruez tentatua, attacatua izan cen, bainan bethi garaitu cituen ; Aingueruekin noiz nai hele eguiten zuen. Bigarren ordenaco erreguela comentuetan beguira arazten bere leheneco garratztasunean asi cenean, mututu eta itchutu izan cen ; osoki Yaincoaren vorondateari emantcen ; Yaincoac berriz ere eman izan ciozcon hitza eta bizta eta khar guehiagorekin eman cen lan handi hartan. Probecia maite zuen eta comentu gucietan maita arazten zuen ; paciencia eta caritate handitacoa cen.

Ibilli izan cen ainitz tokietan, comentuac ordre onean ezartcen, hedatu cen Bourgognetic Franciaco asco provincietarat, Alemaniarat eta bertce erresumetarat. Ezarri cituen comentuan, Francizcoren erreguelaç beren garratztasunean ; bigarren ordenean badire oraino harec ezarri comentuac, bici direnac amoinaz, choil choilic caritatez eramaiten diotenarekin , egun guciez bahurcen dituztenac, ile lodizco arropaz bezti direnac , untutsic dabiltcenac, hitz baten penitencia dorphea eguiten dituzten arima garbiac. Birgina gasteac, delicatuac, erreguin eta Princesaç badute animu handi bat besarcatceco bici molde garratz hori ! utciric fortuna handiac, silhegui ciren atseguinac, nahi-izan dute laur murruen erdian, munduari hilac penitenciaric handienetan bici ; eta mundutar hobendunac gogor cauçitcen dute barhur baten eguitea, beren arropetan gutti bederen hilduratcea, modestiaren maitatcea ! Oh cer ahalguea ucanen duten Yaincoaren tribunalean eta arima garbi horien biztan emaiten dituztenean !

Bertce asco sainda eman izan ditu bigarren Francizcoren ordenac, bainan guehiegui luza guintzake liburu hau, heien berthuteac aipatu behar baguinduz. Aski da erraitea berthute hanticacoac cirela, emesortci aldareetan ohoratcen dire, bainan, bertce zombat ez othe dire, beren lampa piztuekin ceruco lorian sartu! Zombatec penitencia, hildurapenic handienac ez othe dituzte eguin bacartasunean! Francizcoc, erraiten ahal dugu, ifernuari eta munduari arima garbiac ebatsiz, cerurat lorios igorri dituela. Cer familia ederra ez du orai icusten Yaincoaren tronuaren aintcinean!

Bigarren ordena, Francizcoc eguin fincatu eta guidatu izan zuen bere azken egunetaraino. Mundu huntaz guehiago casoric eguiten ez tzuelaric ere, bere heritasunean igorri zaren letra bat, zoinetan erraiten zaren: Nic, Francizco, guizon ttippia, nahi dut, yarraiki zaitezten Yesus Christoren eta bere amaren bici molde probeari eta hortan azkeneraino irahun. Othoizten zaituztet oroc, beti eta osoki probe bicitcea, probeciaren sainduta-

suna handia baita ; eta ez aditu nehor ere, hunen contra contseillu emailleric.

Ordenaco guizonic aipatuenac eta dembora hetacoac diote, hil baino lehen igorri zaren letran erraiten zarela : Yaunac bildu zaituzte khartier diferentetaric, guciec bat eguinic berthute sainduen praticatceco, caritatea eta beheratasuna ; probecian eta obediencian hil arteio bicitceco. Bereciki probecian fincatu cituen.

Ez da loria handiagoric comentuentzat, ederragoric Elizarentzat, Clararen aur izpiritualac, lehenbicico erreguelaren arabera bicitcen icustea baicen. Badire, Yaincoari esker, orai ere, munduco aberastasunac utziz, munduari, fortunari, atseguinei adios eguinic, penitencian bici diren birgina gastea. Eske edo amoinaz bici dire, ile lodizco arropa dute, untutsic dabiltce, gau erditan yeikitcen dire Yaunaren laudaicerat. Oh cer bici-molde saindua ! munduaz abandonatuac, bainan ez ; munduac berac eguiten ditu horien laudarioac, choilki ez baitute berthute handiric heier yarraikitceco.

Francian, baciren lombre handian Santa Clararen comentuac errevolucione handia baino lehen ; orduan cembeit salbu bertce guciac saldu edo erre izan cituzten. Badire bizkitartean orai ere Santa Clararen comentuac, huna zoin tokietan : Alençon, Arras, Aurillac, Bastia, Béziers, Cambrai, Châteauroux, Gourdon, Lavaur, Le Puy, Limoges, Lyon, Marseille, Montbrison, Mur-de-Barrez, Nantes, Périgueux, Perron, Perpignan, Poligny, Saint-Omer, Toulouse, Versailles, etc., etc.

Ordena saindu huntan sartceco, bertce gucietan becela, lehenic Yaincoaz deitua izan behar da ; penitencian bicitceco birginitatean eta munduari bethico adios eguinaz, laur murruen erdian bicitceco deliberoaren froga onac eman behar dire. Ez da dotea, behar beharra, doteric hoberena litzake birginen lombreco izaitea ; bizkitartean latina iracurtcen yakin behar du, eta box onaren ukaitea ez litzake calte, amoregatic eta Yaunari laudarioac cantatceco.

Aguian ainitz deliberaturen dire !

## III^en CAPITULOA.

### San Francizco Asisacoaren hirurgarren Ordena.

(1221).

---

Patriarca Sainduac eguin izan cituen bi ordena miragarriac, bata guizonentzat, bertcea emaztekientzat; comentuac arima garbi eta berthuosaz bethe izan cituen. Bai bainan, munduco yende guciac ez ciren comentuan sartcen ahal; eta bizkitartean comentuco bici-moldea, etcheetarat heda baledi, cer ongui eguin lezakeen! cioen Francizcoc. Pentsa, erran eta eguin, horra cer izan cen Francizcoren deliberoa. Asmatu izan zuen etcheaz comentuaren eguiteco hirurgarren ordena bat, penitenten ordena, icendatu zuena; eguiazki yaureguietarat nola etcholetarat, saindutasuna ecarri izan zuena. Pobreac nola aberatsac, nobleac nola languilleac, guciec saindu eguiten ahal cituen.

Lukesio deitcen cen guizon ontasunei guehiegui estecatu bat bere emaztearekin convertitu cen Francizcoren predicuian, 1221en urthean. Horiec othoiztu zuten, Francizco, heientzat ongui cen bicitceco manera saindu bat edo erreguela bat emaiteco. Orducotz Francizcoc hirurgarren ordena eguiteco ideia artua zuen, eta iardetsi cioen : « Pentsatu dut « hirurgarren ordena baten eguitea, « nun ere esconduac, Yaincoa cer- « bitzaturen baitute manera perfec- « tagoaz, eta iduritcen zaut, ongui « eguinen duzula hortan sartcea. »

Lukesio eta Bona-Dona bere emazteac besarcatu zuten bicitceco manera berri hori ; San Francizcoc eman izan zaren auts-colore arropa bat eta corda, cer eguin behar zuten, hitzez Francizcoc erran zaren erreguela eguin arteio. Beti becela Francizcoren aurrac laster hedatu ciren ; yende orotaric, condicione gucietaric, sartu izan ciren, penitenciazco, beheratasunezco eta probeciazco ordenan. Uropa guciac Francizcoren hirurgarren ordena onhetsi izan zuen

eta amiragarri caucitu izan zuten erreguela saindu hori.

Italian, nun ere lehenic ezarria baitcen, hedatu izan cen hoimbertcetaraino, nun, Pierre des Vignes, Elizaren etsaiac, igortcen ciotzan, Frederic II, Alemaniaco emperadoreari: « San Francizcoren aurrac, Italiaco « herri gucietan hedatu duten izpiri- « tua, ordena berri batekin, zure « ideientzat bortitzago, da, armada- « ric̄ handienac baino. Ez da nehor « ordena hortaco ez denic. »

Hunela ordenaco liburuac diote, ehun eta ogoita hamar erregue eta erreguinec artu izan zutela penitenten habitua; Españian, Portugalen eta Suedean, etc.

Francian, Luis VIII[ac] eta bere espos Blanche Castillacoac; Luis IX[ac] Margarita Provenzacoac eta Blanche beren alabac; Santa Yuana Valoiscoac, Anna eta Maria-Theresa Autrichacoec, Luis XIV[en] esposac eta amac. Oraino conda ahal guentzazke icen handiac, guizonic ohoragarrienetan, yaun aberatsac, general famatuac, apezpicu khartsuac, cardinaliac eta

Aita Sainduac ere. Pie IX[ac] hoin miragarria eta loriosa Francizcoren hirurgarren ordenaco da. Eguiazki San Francizcoc eman izan ceraucon Elizari, armada errespetagarria, erresuma gucietan lorioski erreguinatu izan duena.

Frutuetaric ezagun da arbola; hirurgarren ordena, arbole Saindua ezagutceco, cembeit fruitu aguerian emaitea on izanen da. San Luis Franciaco erreguea, San Ferdinando Españiaco erreguea, horra bi guizon, bi erregue, bi saindu, Elizaren sostenguac eta Francizcoren hirurgarren ordenaren ohoreac. Santa Elisabeta Portugaleco erreguina, Santa Elisebeta Hungriaco erreguina, horra bi sainda famatuac, beren gortheco eguin bidetan ere, penitencia eguinaz, Francizcoren erreguelari yarraikiz saindu eguin direnac. San Ebzear, Santa Delphina, San Roke, Santa Margarita eta bertce fruitu asco eta eder eman izatu ditu ordena saindu hunec. Hirurogoita hamabi saindu edo dohatsu, aldareetan esarriac, Elizac condatcen ditu; berrogoi Aita

Saindu Pie IX$^{ac}$ esarri ditu aldareetan. Hirurgarren ordenaco aurrideac, lehembicico eta bigarren ordenaco sainduac, lombre handitacoac beren model eta patroin artcen ahal dituzte, ceren guciec aita bera dute, familia handico membroac dire.

San Francizcoren hirurgarren ordena, bethi izatu da eta da, Aita Sainduen aldetic amodio bereziaz maitatua ; ehun eta bederatzi bula dire lecucotasun. Erreguela bera lehenic Honorio III$^{ac}$ eta Gregorio IX$^{ac}$ aprobatua, guero izan cen solanelki Nicolas IV$^{ac}$ bere bulan. *Supra momtem.*

Berrogoi Aita Saindu baino guehiago, hirurgarren ordenaz mintzatu dire ; batzuec hunen merecimenduac aipatceco, bertceac hunen etsaiac garaitceco, finean indulgenciaz aberasteco. Hirurgarren ordena eguin ceneco, bi Concilio Generalac fincatu zuten, Viennacoac eta Latranecoac. Nola Aita Saindu horien gucien hitz contsolagarriac ecarri liburu ttippi huntan ? ez da eguiten ahal ; bizkitartean ez ditut utzi behar oraico

demboretan Gregorio IX[en] hitzac. Aita Saindu hunec dio, izan dadin nor nahi, aski ausartce ukan lezakena, criticatceco, atacatceco edo hirurgarren ordenaz arrailleriac eguiteco; erran balitzazke hitz hauc edo hunen iduricoac; ordena hau, esconduentzat eta libroentzat eguina, ez dela « *ona eta baliosa.* » Yaincoaren eta bere Apostoluen madaricionearen pian erortcen da.

Nor nahic, ez atacaturic ere, ez baya emanic ere, ausarta baledi norbeit sartu nahi duenaren guibelaraztera, « *eguiten du, uts handi bat* » ceren guibel arazten baitu arima hura, gauza on bat eguitetic, eta esartcen derauzcon izpiritualeco gaucetan trabac. Yaincoaren ontasunaz, arbuio guehiago eguiten ahal othe da, bereganat itzuli nahi duten arimen gueldi arazteaz baicen? Ez dakite bada Yaincoaz madaricatuac direla, haren serbitsutic urrun arazten dituzten guciac?

Hunela mintzatu izan cen Gregorio IX[a] eta guisa berean mintzatu izatu dire bertce Aita Sainduac.

San Francizcoc eguin izan zuen hirurgarren ordena, ez da cofradia bat ez eta ere ordena bat erdizca, bainan ordena eguiazco bat. Elizaren bertce ordenac becela ; Benito XIIIac bere Constitucionean, « *Paterna sedis* » urriaren hamarrean, 1725an urthean, erraiten du : « Ordena Saindu hunen etsaien contra egoiteco, gure aintcinecoen exempluari yarraikiz, ceinec bay eman, fincatu eta gōrāki laudatu baitzuten, iuiatcen dugu, eta declaratcen, ordena hau bera bethi izatu dela eta dela oraino, Saindua, merecimenduzcoa, eta guiriztino perfeten parezcoa, eguiten duela « *eguiazco ordena* » . . . . osoki cofradietaric bertce bat. . . . ceren baititu bere Erreguela berezia Aita Sainduac aprobatuac, bere noviciata, bere profesionea, habitua, ordenec usatcen duten becela. »

Bertce bula batean, asten cena « *Ad nostram audientiam,* » 1728añ emana, dio : « Hirurgarren ordenacoac, bici izanic ere munduan, comentuetaco fraidei igualatuac izan behar zutela, ceren heien ordena,

hirurgarrenaren icenean San Francizcoc eguin zuen, Aita Sainduec aprobatu eta gracia eta indulgenciaz aberastu, gueronec fincatu bulan «*Paterna sedis*» horietaric agueri da, Elizaco ceremonietan, hirurgarren ordena, cofradia guciec baino lehenago dela; edo ohoresco lecua horiena dela.

San Francizcoc hirur ordena eguin izan cituen fraideena, andere probeena eta penitentena. Hirurgarren ordenacoac Aita miragarri hunen izpirituari yarraiki behar dute; hura becela beheratasunic handienean, bici behar dute; humil barnez eta campos, manera, hele, yestu, behatce, gauza gucietan aguertu behar dute beheratasuna; ohartu behar dute beren aita San Francizco aberats izanic ere, Yesusen amoregatic escale eguin cela; ez dute beraz ahalguetu behar probe izaiteaz, bainan probeciaren izpiritua ez izaiteaz. Ohartu behar dute penitenten ordenaco direla, erran nahi baitu hildurapen barnecoa eta campocoa ukan behar dutela. Berthute horier yarrai-

kiz, beren aita imitaturen dute; haren izpirituco badire, harekin dohatsu izanen dire. Erreguela saindu huni lotcen badire, hunen izpirituan bici badire, Yaincoaz maitatuac izanen dire. Huna cer erran cioen Yaunac, Santa Margaritac Cortonacoari : Ene aurra, ezarri, zaitut ene amodioaren baratcean ; ceren Francizco ene serbitzariac eta zure aita dohatsuac, maitatu nauen amodio pareric gabecoaz.

Seculan Eliza aurkitu izatu balin bada Francizcoren izpirituaren beharrean, egungo dembora lasgarrietan aurkitcen da. Orai, noiz eta mundua bere urgulluan errotcen ari baita, atseguin tzarrekin usteltcen, ontasunekin galtcen ; orai noiz eta guiriztinoen eguiazco izpiritua, Aita Sainduaren alderaco errespetu eta amodioa, aita amentzat behar diren ohoreac eta obediencia galtcen ari baitire, orai diot, hirurgarren ordenaco izpiritua behar beharra litzake, ezartceco becos-beco urgulluari beheratasuna, atseguin tzarrei hildurapena, ontasunen estecamenduari probecia

eta arbuioari errespetua eta obediencia. Ordena hunen izpirituac garaituren ditu Aita Sainduaren etsaiac, hunec maita aracico du Eliza eta Elizaren legueac, hunec ecarriren du familietarat bakea aspaldian hoin beharra. Hitz batez erraiteco, hirurgarren ordenac, igaan mendetan becela, mende hunen debruzco izpiritua casatuz, Yaincoaren izpiritua ekarriren du ; penitenciarekin Yaincoaren iusticia apaceguatuz, misericordia yaux aracico du.

## IVen CAPITULOA.

### Hirurgarren Ordenaco gracia izpiritual bereziac.

---

San Francizcoren hirurgarren ordenaco anay arrebec, familia batetaco membroac becela, lehen ordenaco othoitz, barhur penitencia, meza eta comunionetan partelier dire. Hori ongui ezagutceco aski litzake yakitea ez dela Francizcoren

ordena baino guehiago hedatcen denic ; lehenbicico ordenac condatcen ditu 40,000 fraide, bigarren eta hirurgarrenac lombre handi bat ; hirurgarrenac ehun mila, hor nunbait condatcen ditu. Bertce ordena Elizac solanelki aprobatuen, gracia, indulgencia, fagore izpiritual gucien partelier dire. Condatcen ahal ditugu aipatuenac ; Dominicanoac, Carmelitac, Agustinac, Trinitarioac, Serbitac, Theatinoac, Minimoac, Yesuitac, Passionistac ; horien eta bertce ordena handieneco gracietan partelier dire ; Beneditinoac, Chartreux, Premontrecoac, Camaldulac, Trapiztac, Redemptoristac, etc., etc.

Aita sainduec eman izatu dazte fagore handi horiec.

Benito XIII[ac] bere bulan, *Paterna sedis,* berritu cituen eta oraico demboretan Aita Saindu Pie IX[ac] lorioski erreguinatcen duenac eta San Francizcoren aurrac.

Huna hemen indulgencia osoac eta parcial edo condatcen ahal direnac, hirurgarren ordenacoec irabasten ahal dituztenac.

## § I[a]

Indulgencia osoac San Francizcoren hirurgarren ordenacoentzat Eliza Ama Sainduac emanac. Irabasten ahal dituzte indulgencia osoac, seinalatcerat goacen egunetan, cofesa, communia eta hirur ordenetaco Eliza edo capera bat bicitatuz eta han Aita Sainduaren chedeetan othoiztuz.

Gregorio XVI[ac] eta Pie IX[ac] emaiten dare gracia bat, eta da, baldin ordenaco norbait guerta baledi ordenaco Elizarat ecin yoanean, indulgencia hori irabasten duela parropian edo bertce capera batean bisita eguinic, condicione berekin. Liburu hunen acaberarat igorri dut ordenaco sainduen calendarioa, nun ere seinalatu baithitut indulgencia osoac irabasten diren egunac gurutce bathekin †, eta bi gurutcerekin ††, absolucio yeneralaren egunac. Segurren segurren indulgenciac, calendario huntacoac dire, lehenago seinalatu direnen dembora bethe delacotz. Aita Provincialaren escu-liburutic atheriac dire.

## § IIa

Hirurgarren ordenacoac irabasten ahal dituzten bertce cembeit indulgencia, condicione yadanic erranekin.

1a Habitu saindua artcen den egunean, cofesa, comuniatu eta Eliza bat bisitatuz han Aita Sainduaren chedeetan othoiztuz, irabasten da *indulgencia osoa.*

2a Profesionea eguiten denean ere bai, condicione beretan, *indulgencia osoa.*

3a Habitu artcetic eta profesionea eguitetic 25en eta 50en urthetan, condicione berekin, *indulgencia osoa.*

4a Yaunaren arrosarioa, 33 gure aita eta 5 agur Maria. Sahar eta heriec ecina badute, Yaunaren edo Mariaren psalmo bat erranez devoki, *indulgencia osoa.*

5a Francizcanoen corona edo arrosarioa erraiten den aldi guciez; hirurogoita hamairu agur Maria eta zortci gure aita, ama Birginaren urtheen ohoretan. Sahar eta heriec erran dugun becela.

6ª Hilen oficioa erraiten den aldi guciez edo zazpi psalmo penitencialac, edo gradualac purgatorioco arimen fagoretan. Saharrac eta heriec lehen erran becela, *indulgencia osoa*.

7ª Bozt hamarrecoa erraiten denean, bozt Gure Aita eta Agur Maria aldareco Sacramendu Sainduaren aintcinean erranaz, han ecina badu bertce nunbait, *indulgencia osoa*.

8ª Aita Saindu, Pie $II^{ac}$, Sixto $IV^{ac}$, Leon $X^{ac}$, Paulo $III^{ac}$, Urbano $VIII^{ac}$, Pie $VII^{ac}$ eta berriki Pie $IX^{ac}$ emaiten darezte hirurgarren ordenaco anay arrebei Erroman, Yerusalemen, Porciunculan eta San Yacobe, Compostelan, diren indulgencia osoac eta cheiac, sei Gure Aita, sei Agur Maria eta sei Gloria erraiten dituzten aldi guciez, Elizaren zorionetaraco eta Aita Sainduaren chedeetan.

Hirurgarren ordenacoec, sei Gure Aita, sei Agur Maria eta sei Gloria (edo comunski dioten becela, Sacramendu Sainduaren bisita), erraiten dituzten haldi guciez, irabasten ahal dituzte, Eliza hetarat yoan gabe, indulgencia guciac. Yerusalemeco eli-

zan irabasten ahal dire egun guciez anichco indulgencia osoac eta cheiac lombre gabecoac. Erromacò zazpi eliza berezietan egunean ogoita hamar badire osoac, cheiac lombre gabecoac.

Oh cer aberastasuna, Francizcoren aurrentzat !

Lehenago Elizan othoitz hori eguin ohi cen, bainan Leon X[ac] erran zuen nun nahi eguinaz irabasten ahal cirela.

Vaticanoan bilduric indulgenciaz ocupatcen den congregacioneac, martchoaren 31[an] 1856 urthean, declaratu izan zuen lecu gucietaco hirurgarren ordenacoec, irabasten ahal cituztela toki gucian eta aldi bacoitzaz manatuac diren oracioneac erranaz ; ez dela bertce othoitzic emendatcearen beharric eta ez direla beharrac *cofesioa* eta *comunionea,* horien irabasteco, azkenic purgatorioco arimentzat irabasten ahal direla.

9[a] Hirurgarren ordenacoec irabasten ahal dituzte oraino *Erromaco stacionetaco* indulgenciac, Eliza bat edo ordenaco capera bisitatuz, edo

ecina badu, edo cein, misselac seinalatu egunetan ; huna hemen egunac : *Urtharrilean*, urrtheberriz eta trufaniaz, *Erromaco stacioneac* ogoita hamar urthe eta ogoita hamar berrogueico.

*Erromaco stacioneac*, auste aintcineco hirur igandez, ogoita hamar urthe eta ogoita hamar berrogueico. Auste egunean eta garizumaren laurgarren igandean, hamabozt urthe eta hamabozt berrogueico. Garizumaco egun guciez hamar urthe eta hamar berrogueico.

*Erromaco stacioneac*, Bazcoz, indulgencia osoa, eta Octavaco egun bacoitcean, ogoita hamar urthe eta ogoita hamar berrogueico.

San Marcos eta Errogacionetaco hirur egunez, berdin.

Salbatorez, *Erromaco stacioneac*, indulgencia osoa.

Mendecozteco larunbatean, hamar urthe eta hamar berrogueico. Octavaco egun guciez, ogoita hamar urthe eta ogoita hamar berrogueico.

Buruileco garthetan, hirur egunez, hamar urthe eta hamar berrogueico.

*Erromaco stacioneac*, Abenduan, 1en, 2en eta 4en igandetan hamar urthe eta hamar berrogueico.

Hirurgarren igandean, hamabozt urthe eta hamabozt berrogueico. Eguberri gau erdico mezan, hamabozt urthe eta hamabozt berrogueico.

Eguberri egunean, indulgencia osoa hirur egun ondorecoetan, ogoita hamar urthe eta ogoita hamar berrogueico.

10a Igande guciez eta Yesus-Christoren besta egunetan, Mariarenetan ere, irabasten ahal dute indulgencia osoa hilentzat, cofesa, comunia eta Aita Sainduaren chedeetarat othoiztuz.

11a Leon Xac emaiten dare oraino indulgencia oso bat, comuniatcen diren aldi guciez. *Dum præ excelsa* errearoaren 19an 1515an eta *Dudum per nos* abenduaren 10an 1519an emanac.

12a Absolucione yenerala seinalatu ditugun egunetan errecebitzen ahal dute cofesor aprobatu batenganic, zoinac, karitatez bederen emanen baitare. Aste Sainduco egun guciez

ere errecebitzen ahal dute eta urthean aldi bat, bacoitzac berac nahi duen egunean.

13ª Urthean laur aldiz errecebitzen ahal dute cofesor aprobatu baten ganic *Aita Sainduaren benedicioa*; hau da hirurgarren ordenacoen privilegio handia.

14ª Horen erdi bat edo bederen horen laurden bat meditacionean egun guciez illabete osoan, igaiten dutenec, irabasten ahal dute indulgencia osoa, berec nahi duten egunean cofesa, comunia eta Eliza bisitatuz.

15ª Illabeteco bilcuretan, cofesa, comunia, eliza bisitatu, Aita Sainduaren chedeetan othoiztu eta bilcurarat yoaiten denac, *indulgencia osoa* irabasten du, bilcurarat nehola ere ecin yoan denac, obra onez.

16ª Indulgencia osoac zortci eguneco erretreta eguiten duenac, cofesa eta comuniatuz.

17ª Indulgencia osoa, hirurgarren ordenaco anayari bere lehenbicico meza emaitean; eta aurride izpiritualec meza entzun eta hartan comuniatuz.

18ª Indulgencia osoa Eliza besta egunean, othoizten dutelaric Aita Sainduaren chedeetan.

19ª Indulgencia osoa agonian dagoenac, mihiaz eta bihotzez, Yesusen icen saindua erranez, mihiaz ecina badu, bihotcez contricionearekin.

20ª Agonian berean absolucione yenerala errecebitzen badu, cofesor botherea duenaren ganic.

21ª Indulgencia osoa, ordenaco habitu handia soinean hiltcen bada, edo ohiaren gainean ezar arazten badu, harekin ehortceco chedeetan.

22ª Lehen ordenaco comunicacionez, hirurgarren ordenaco apezac, buruzaguiac seinalatu aldarean (1), emaiten baditu hirur meza bere burhasoentzat, Erromaco San Gregorio eta San Sebastianen aldaretan irabasten diren indulgenciac irabasten dituzte.

23ª Hirurgarren ordenaco apezac erraiten badute, beren aita, ama edo bertce ahaidentzat, edo 1en, 2en, 3en

(1) Superiorac seinalatu du Ama Birginaren aldarea.

ordenaco aurride izpiritualentzat, cordaco cofradian direnentzat, Yaincoac hala nahi duelaric, arima horiec purgatoriotic atheraco dituzte.

24ª Porciunculaco indulgencia famatua, ceina ez baitha Francizcoren aurrentzat choilki, bainan guiriztino gucientzat.

Indulgencia miragarria, Yesus maiteac berac emana, Francizcoc Mariaren arartecotasunaz ardietsia, Aita Sainduec aprobatua. Indulgencia osoa irabasten da, asiric, andredena Maria Ainguerruen bezperatic, biharamuneco eguskia sartu artean, Eliza bisitatcen den *aldi guciez* « *toties quoties* » han Aita Sainduaren chedeetan othoizturic ; comunski, 6 Gure Aita, Agur Maria eta Gloria erraiten dire ; cofesatu eta comuniatu behar da, ahatic, ez da necesario comunionea Eliza hartan berean egutea. Huna hemen latinez :

DECRETUM :

« *1° An visitantes Ecclesias ordinis S. Francisci, die secunda Augusti*

*lucrentur, indulgentiam plenariam, toties quoties in eas ingrediendo et parumper ibi orant? 2° An requiratur ut communio fiat in eadem Ecclesia?»*

*« S. C. resp. affirmative ad primam partem; negative ad secundam die 22 Febr. 1847 et 8 Julii 1850.»*

---

## V^en CAPITULOA.

### Hirurgarren Ordenaco Erreguelaz.

Bicitce hori garratza othe da? ez, guiriztino on izaitea baino guehiago. Lehenic ez du becatu mortalic eguiten erreguela hau autsiz, nun ez duen dembora berean golpatcen Yaincoaren edo Elizaren manua. Aita Saindu Leon X^ac eta Paulo III^ac diote, ez duela ere becatu venialaren pian manatcen; choilic erreguela golpatcen dutenec, ordenaco gracia eta merecimenduez gabetcen dire, eguiten dituzten utsen penitencia eguin

behar dute ; aldiz arthoski beguiratcen dutenac, Yaincoaz benedicatuac dire eta Patriarca Sainduaz maitatuac ; horientzat erraiten da profesionea eguitean : « Horiec eguiten badituzu, Yaincoaren phartez hitz emaiten dizut bicitce bethierecoa. »

San Francizcoren chedea, hirurgarren ordena hau eguitean cen, comentuetaco bici moldea, bere gracia eta merecimenduekin mundurat hedatcea, bacoitza bizkitartean bere eguinbidei yarraikiz. Hortacotz eguin izan zuen erreguela bat, guciec aiza beguiratcen ahal dutena, erregueec nola cerbitzariec, aberatsec nola probeec, yaun handiec nola languilleec, sanoac nola eriec.

Ordena saindu hunen bidez, Francizcoc, orduraino laur murruen erdian eguiten ciren penitenciac, praticatcen ciren bertuteac, munduan aguertu izan cituen. Nun ere ezagutua cen ordena hunen erreguela, han cen saindutasuna. Elizaren amodio berezia, fede ascarra, obediencia itchua, beheratasun handia, hildurapen icigarria, probeen amodioa, gu-

cien bathasuna eta bakea, hitz batez, Yainco beraren izpiritua, ecarri zuen Francizco mundurat bere hirurgarren ordenaco erreguelaz. Cer bakea ez tzuen ecarri famillietarat ! Zombat nigar tchorta ez ditu tchucatu ! Zombat famillia behartsu socorritu ! Zombat eri cendatu ! Zombat arima convertitu ! Saindutasuna, comentuetaco bici moldearekhin hedatu cen munduan eta hala hirurgarren ordenac, lombre gabeco sainduac eman ditu. Mundua ez tzuen Francizcoc itzulico, baliatu izan bacen erreguela garratz batez, ceren, batsuec bortitz caucituren baitzuten eta bertceac ez baitciren menturaturen haren besarcatcerat. Bainan Francizcoc bacekien guizonen izpirituaren arabera, ezagutcen zuen heien indarren neurria eta eguin tzuen erreguelaz, ardietsi zuen bere azkena. Erreguela hau, erraiten ahal dugu Yaincoaz arguitua dela, eta eman dioela, Sainduac eguiteco botherea. Ez da garratza, ez du guizonen ahala baino guehiago galdeguiten. Erraiten ahal dugu ere, guiriztino khartsuen bici molde sain-

du bat dela. Huna nun hemen eguinbideric premiatsuenac eta bereziènac; edo erreguela bera gucia, laburski ezarria.

## § Iª

### *Hirurgarren ordenaco erreguelaren phundu bereziac.*

*Lehena.* — Bici molde saindu hau, hautatu dutenec, errecebitcean, fedeaz eta Elizaren obedienciaz frogatuac izan behar dute. Fede eguiascoa dutenac eta Elizaren hume lehialac errecebituac dire; aldiz fede gabecoac eta Elizaren peco izan nahi ez dutenac gauza gucietan, casatuac.

*Bigarrena.* — Sarthu baino lehen, etsairic duenac behar du baketu, iniustoki darucanac ere lehenic bertcerena itzuli. Hori eguin ondoan, emanen diote frogantzaco habitua eta corda.

Urthe osoa igaanen du frogantzan eta baldin bertutearen froga onac emaiten baditu, errecebituren dute

urthe burian profesionea eguitera. Profesionea eguin ondoan osoki eta bethico San Francizcoren aur eguiten da. Ez du yeilki behar, nun ez duen aintcinatcen, comentu cembeitetarat yoaiteco ; ez du guibelatu behar, ceren, hec ez dire onac ceruraco.

*Hirurgarrena.* — Ordena saindu huntaco anay arreba izpiritualec, ekarri behar dituzte soinean arropa, ez balio handitacoac ez eta ere gucia zuriac; bainan probe eta humillac ; beztitcen ahal dire propiki eta modeski, ez arroki eta arinki mundutiarrac becela. Barnez becela, campoz aguertu behar dute humillac. Arropen azpian bethi eraman behar dute ordenaco habitua. Habitu saindu hunec, Aita Saindu Yulio II$^{en}$ arabera, izan behar du aski lucea, pasa ahal dadin cordaren azpitic aintcinean eta guibelean, eta espaldaco banda bacoitsac ukan behar ditu laur erhi zabal. Habituac eta bandec oial bera izan behar dute. Colorea autzarena edo hile natural colorezcoa. Corda lenazcoa edo calamuzcoa, hirur corapillorekin, guerrian emaiten da ; ez

da manatua larru arratzean eramaitea ez eta habitua ere, bizkitartean silhegui da.

*Laurgarrena*. — Erreguela hunec debecatcen du, othuruntza handietatarat yoaitea, biltzarri joco, bala eta bertce holaco arinkerietarat Familliacoac ere eguin ahalaz urrun araci behar dire, eta soiñulariei fritchic ezdare eman behar.

*Bozgarrena*.—Nola ordena saindu hau penitentena deitcen den, eta leheneco guiriztinoen bici moldea daramaten, San Francizcoc nahi du, asteazken oroz mehe eguitea, ostirale oroz barhur ; alaber Abendu gucian Eguberri arteco mehe eta barhur egun guciez, igandetan salbu.

Hirurgarren ordenaco garizuma asten da astelen inhautiz.

Eriec eta flacoac guidariaren arabera eguiten dute.

*Seigarrena*. — Patriarca Sainduac nahi du bere aur izpirituala aguer dezaten campora, barneco devocionea cembeit aldiz, hortacotz erraiten dare urthean hirur aldiz cofesa eta comuniatceco, bacoitzari berea erren-

datu eta ororekin bakea eguin ondoan. Eguberriz, Pazcoz eta Mendecostez eguiten ahal dire.

Ordena huntacoac, eguin ahalaz ardura hurbildu behar lukete mahain Saindura, eta egun guciez hurbiltceco maneran bici; maiz eta ongui comuniatceac gracia handiac ekartcen ditu; passioneac ithotcen ditu, bertutearen cimenduac eguiten ditu, eta arimari emaiten dio indar handi bat etsaien garaitceco.

*Zazpigarrena.* — San Francizcoren bihotza guehiena unkitcen zuen gauza cen, Yesus maitearen eztitasuna, hortacotz ez tzuen nahi aurride izpiritualen arthean aharraric, eta mokokaric. Debecatcen dare armaren ecartcea, nun ez duten guerla eguiten Elizaren etsaiei eta ez diren attakatuac beren kartierrean, orduan ere aintcindarien bayarekin.

*Zortcigarrena.* — Gomendatcen dare othoitza; egun oroz Ama Birginaren officio handia, edo berrogoita hamalau *Pater* eta *Gloria*, bi *Sinhesten ditut*. Egun oroz *Miserere* bat edo hirur *Gure Aita*. Oraino egun oroz

*De profundis* bat ordenaco hillentzat. Baskal eta afal aintcinean *Pater* eta *Requiem,* ondoan hori bera edo *Deo gratias.* Urthean behin hillen officioa edo berrogoita hamar *Pater* eta *Requiem* ordenaco hillentzat.

*Bederatcigarrena.* — San Franciz-coc ecin guehiago maite zuen probecia, hortacotz erraiten dare hirurgarren ordenacoei, hemen sartcen direnean, ontasun funtsezcoric bereric dutenean, ordenu baten eguitea, omoregatic eta munduco ontasunei ez estekatceco eta hiltceco prezt egoiteco.

*Hamargarrena.* — Gomendatcen dare caritatea, elgarren amodioa eta bathasuna ; caritatea, bihotz gucien lokarria, bathasuna, gucien indarra. Debekatcen dare, medicenzia, aharra eta holaco ostasunac, ez baitute nahasmendua baicic ekartcen.

*Hamaicagarrena.* — Baldin balitz norbait, hirurgarren ordenaren contra, haren zucen eta pribilegioen contra altcha ditekenic, ordenaco miniztroac, Yaun Apezpicuarekin antolatuco dute.

*Hamabigarrena.* — Debecatcen du cin falso eguitea, cin eguiaren gainean ere behar beharrez campo. Egun orozco solacetan, behatu behar dute arnegu edo yuramendu eguitetetic, baldin arratceco concienciaren examinan, hobendun caucitcen badire , erranen dituzte penitencian hirur *Gure Aita*.

*Hamahirurgarrena.* — Ahalaz egun oroz entzun behar dute Meza Saindua ; hilabete guciez bilduco dire, aintcindariec seinalatu capera edo elizan eta bilhaturen dute predicari bat, Yaincoaren hitza, erranen darena. San Francizcoc manatcen dare bilcuretan, oficioetan eta bezte elizaco gaucetan, ichiltasuna, modestia eta errespetua.

*Hamalaugarrena.* — Baldin norbait eritcen bada aurride izpiritualetaric, artha handi bat ukanen dute eta maiz contsolaturen dute. Sacramenduac errecebitcerat ekharriren dute, behar bada ; eta elgar bilduz beharretan bada, lagunduren dute. Hiltcen bada, oroc yoanen dire enterramendurat eta ez dire yeilkiren

gucia finitu artean. Erranen dute officioa edo berrogoita hamar *Pater* eta *Requiem* arima harentzat.

*Hamabortzgarrena.* — Aitcindaritasunac arthu behar dire humilki, ez ohore becela, bainan carga becela, eta fermutasun handiarekin, harec eman eguinbidei yarraiki. Nehor ez da icendatua bethico, bainan dembora seinalaturaco.

*Hamaseigarrena.*—Bisitaren eguiteco guciec bilduco dire caperan eta humilki errecibituren dute emaiten zaren penitencia. Urthean behin bederen bisita eguin behar da. Correitu eta obeditu nahi ez duena, eztitasunarekin abichatcen da hirur aldiz. Hori eguin ondoan, leheneco bada, contseillua bilduric ordenatic campo ezartcen da. Pikatcen da adar ustel hori, arbole ondo gucia ez dezan usteldu.

*Hamazazpigarrena.* — Tribunalac, eguin ahal guciez utzi behar dire, eta balitz ocasione behar behar bat, bakean eta eztitasunean antolatu.

*Hamazortcigarrena.* — Guidariec eta bisita-eguilleec badute botherea,

motivo onengatic eta Yaincoaren aintcinean on dela iuiatcen dutenean, erreguelaco cembeit gauza, nola baithire barhurac, cambiatceco. Erraiten du guidariec, ez edoceinec eta nor berac.

*Emeretcigarrena.* — Aitcindari lehenac, aguerian eguiten diren utsac, Aita Bisita-eguilleari erran behar derauzcote, hobendunac errecebi ditzan penitenten guichan ; eta baldin balitz hoin bihotz gogorrecoric, hirur aldiz abichatu ondoan, correitu nahi ez duenic, contseillua bilduric erranen diote bisita-eguilleari, amore gatic eta ezar dezan campoan ; eta lehenbicico bilkuran ororen biztan erranen du, nola campoan ezarria den eta ez dela guehiago San Francizcoren hume.

*Hogoigarrena.* — Gauza horietan gucietan, ez du manatcen San Francizcoc, becatuaren pian, nun ez den golpatcen dembora berean Yaincoaren edo Elizaren manua ; choilki utsic eguiten badute, humillki errecibituren dute, emaiten zayen penitencia, berec profesionean hitz emaiten duten becela.

Horra laburski, San Francizcoc eguin izan zuen hirurgarren ordenaco erreguela. Erreguela Saindua, Evangelioco izpirituan fincatua, hoimbertce Saindu Elizari, eta dohatsu ceneari, eman dioena.

Erreguela huntaz, Francizcoc, munduco izpiritua casatu zuen etchetaric, familliétaric, eta ekarri Yaincoaren izpiritua; izpiritu humilla, ona, bakezcoa, saindua.

§ IIa

*Gauza sobera eta handiac manatcen ditu.*

Norbaitec erran lezake, bere uztez zucenarekin, cer diozu? oficioac, meheiac, barhurac.....? eta oraino diozu ez dela erreguela hori garratza? goacen baratche, baratche.

Hirurgarren ordenaco izpirituari osoki datza eta erreguelari berari, ahalaz nehor ez berechtea Francizcoren familliatic, nehori ez bortharen ertzitcea, erreguelaren eguinbide

guci guciac beguiratcen ahal ez direlacotz. Hirurgarren ordenaren azkena da, arimen saindutasuna, hortaraco erreguelac emaiten dituen medioac, behar beharra denean, bertce cembait mediotan cambiatcen ahal dire.

« *Hirurgarren ordenaco guidariec, dio Aita Saindu Nicolas IV*ac, *motivo zucenengatic, ongui yuiatu ondoan eta hala behar dela ezagutcen dūtenean, cambiatcen ahal darezte, anay, arrebei, mehiac, barhurac eta bertce penitenciac.* »

Hemen ez dut erran nahi erreguela gucico articuluac cambiatcen ahal direla ; erreguelac berac dio, *mehe* eta *barhuric eguiten ahal ez dutenean,* aitcindariac cambiatcen ahal daroztela bertce gaucetan. Ez da mintzo egun orozco oficioaz, guerostic ez dut uste cambiatcen ahal dela.

Cambio silhegui diren horiec ez dituz nor berac eguiten ahal, ez eta nor nahi cofesorec, hirurgarren ordenaco guidariac edo bisita-eguilleac izan behar du. Cambio horiec ez dute San Francizcoc eman erreguela ttipit-

cen, ez merecimendua kentcen, ez dire ere haren izpirituaren contra, choilki erran nahi du, ez dela sobera garratz eguin behar hirurgarren ordena, eta guciac dehitu beharrean, guciac icituric igorri. Ez da ere guiriztino on bathi, erichco delaco, edo bertce gauza ttippi bat duelaco, hirurgarren ordenaco bortha ertzi behar, eta San Francizcoren aur izan nahi duenari, debecatu. Horiec ez ditu izpiritu onac guidatcen. Molde huntan edo bertce batean, guidarien arabera eta ez bacoitzac nahi duen becela, cambio horiec eguiten ahal dire. Asteazkenetan, mehe eguiten ahal ez duenari, emaiten ahal zayo, Aldareco Sacramenduaren bisita, edo *Miserere* bat, besoac zabalduz edo azoteaz aphur bat joz. Ostiraletan barhurtcen ez denari, emaiten ahal zayo *Gurutcearen bidea* edo bietan *Miserere*, goicean eta ilhuntcean besoac gurutcean; edo *De profundis* edo egun hortan *Meza Sainduaren* entzutea.

Egun orozco *Pater* eta *Gloriac* erraiten ahal dituzte, lanean ariz, edo bidean yoanez, bainan bethi devotki.

Abenduco mehe eta barhuren gatic hori bera eguiten ahal da. Horra nola eguiten ahal dituzten guidariec cambioac ; bainan bethi biztan ukan behar dute, cer ere den probechosona hura behar dutela eman *hic et nunc* ezagutuz galdeguillearen izpirituaren beharrac.

Agueri da horietaric, nehor ez dela hirurgarren ordenan, sartcen ahal ez denic, nun ez den fede gabeco cembait, edo bekataros publicoa, edo escandala emaiten duena. Lehenago bicitce tzar bat eraman duenac, emaiten badu penitencia eguiaskoaren marka, errecebitzen ahal da, ceren hirurgarren ordenac baditu bere penitentac, nola Margarita Cortonacoa, aldareetan ohoratcen duguna.

Agueri da ere, munduco gradu gucietan erreguela hau beguiratcen ahal dela ; beraz gastheac eta adinecoac, probeac eta aberatsac, apezac eta apezpicuac, cardinaliac eta Aita Sainduac, guciac sartcen ahal dire hirurgarren ordenan. Pie IX[a] Aita Saindu guciz aiphatua, ordena huntaco da, eta lorioatcen da bere beharre-

tan orhoitzapen hunekin. Ez du ainitz dembora erraiten zuela gauza frangoren beharrean gaude, bainan orhoitu behar dugu San Francizco probearen aurrac garela.

Bainan ihardetsi lezake norbaitec, nola languilleac eta laborariac, erreguela hori beguiratcen ahal dute ?

Languilleac eta laborariac, nehorc baino hobeki. Lanean ari diren demboran, othoitz horiec eguin litzazkete, puzca bat orai, guero bertce bath. Ah ! zombat hobe litzakeen othoitcen eguitea, ecen ez hele ahalgue garrien erraitea ! nola nahi dute Yaincoac, bekatuan eguin lanac, erein bihia, benedicatcea ? Languille batec, laborari batec, bere icerdi nekeac, penac eta nahigabeac, Yaincoari ofreituz eguin lezake becatuen penitencia ; bainan helas ! beren solaz tzarrekin galtcen dute gucia. O zombat eder den laborariac Yaincoari beren nekeen ofreitcen ikustea ! Zombat eder den edo arrosarioa edo erreguelaco *Paterac* erraiten entzutea !

Beraz guciac sartcen ahal dire eta guciec bilduric eguin Elizaren armada errespetagarria.

## VIen CAPITULUA.

### Hirurgarren Ordenaco izpirituaz

Izpiritu hau gucia eta osoa lehen ordenacoa da, Evangelio Sainducoa. San Francizcoren chedea cen, comentuetaco izpiritua munduan hedatcea hirurgarren ordena baten medioz, erran nahi baitha, saindutasunezco, garbitasunezco, beheratasunezco izpiritua. Hala, San Francizcoren aur batek ez du munduan munduco izan behar, bici behar badu gorputzez munduan, izpirituz izan behar du comentuan ; eta mundutiarren artean, bere saindutasunaz, eguzkiaren pare arguitu behar du.

Horrengatic, toki gucietan, gauza gucietan izan behar dute lehenic guiriztino on eta kartsu. Guiriztino on beren hele, manera, gogo eta gauza gucietan. Ez dute beraz munduco izan behar, ceren erreguelac debecatcen dare, eta hortacotz manatcen dare ez yaunstura eder eta baliosic

erabiltceco. Debecatcen dare mundutiarrac becela, besta, plaza eta satanec asmatu libertimenduetan ibiltcea.

Ez dut erran nahi San Francizcoren aurrac, Pharisauac becela trizte izan behar dutela, ez da hori hirurgarren ordenaco izpiritua, izpiritu ilhun eta beltza ; bainan San Francizcoc nahi zuen ukaitea izpiritu aleguera, bihotceco bakea aguertcen duena eta Yaincoaren amodioa. San Francizco bera icusi dugu nola noiz nahi tchoriekin loriatcen cen ; hala nahi du bere aurrac cerbitza dezaten Yaincoa alegranciarekin. Erran guentzake, San Francizcoren aurren seinale berezia dela, izpiritu aleguera baten ukaitea.

Hirurgarren ordenaco izpirituari datza oraino beheratasun handi bat eta Yainco aldarecoaren amodio khartsu bat. Hoartu behar dute zombatenaz barrenago cimenduac eguin, hambatenaz heietan altchatcen den obra ascarrago dela ; zombatenaz guehiago beheratu, hambatenaz bertutea segurtatuago izanen dela. Ber-

tute eder eta balios hau gabe, ez da bertceric ukaiten ahal ; bezte alde, urguillua, bicio gucien bihia da.

San Francizcoren aurrac orhoituren dire, beren aitac aldareco sacramenduan ukan izan zuen amodioaz eta errespetuaz, eta ahalaz aitaren exempluari yarraikiren dire. Hurbil bitez ongui preparaturic, maiz mahain saindurat eta hurbil araci beren ahaideac, ezagunac eta lagunac ; aguertu guciei, zombat on eta ezti den Yesus guciz onaren errecebitcea! zombat probechos ! Maitaturen dute beraz Yesus aldarean, errespetaturen dute eta nola Yesus, den gucia heiei emaiten den, hala emanen derauzcote beren bihotzac, beren ontasunac, aldarean maitatuz, Sacramendu adoragarri huntan behar dituen gauzac emanaz.

Badute oraino bertce devocione berezi bat eta da, gurutcearen bidea, ordenaco ohorea, eta privilegio handia. Orhoituren dire beren anay izpiritualec yassan eta yassaiten dituzten pena eta nahigabeez, heien odol itchurtcez ; orai berean ere nola gau

eta egun Yesus Christoren hobia beguiratcen duten, egonaz Turcuen menean. Beraz gurutcearen bidea, beren anay izpiritualec munduan, maitaturen dute, eta maiz eguinen dute, becatuen urrikia ezurrataraino sarthua dutelaric. Gurutcea maitaturen dute, besarcaturen dute beren arimen salbamendua becela.

Hirurgarren ordenaco izpirituari datza oraino. Mariaren alderaco devocionea. Hirur ordena San Francizcoc eguinen, patroi berezia, da Maria eta Maria notharic gabe concebitua. Beraz Mariaren aur onac izan behar dute, maitaturen dute, othoiztu eta dehituco dute etsaiac azaldatcen dituenean. Devocione eguiasco baten ukaiteco yarraikiren dire Mariaren bertute miragarriei.

San Francizcoren aur guziec, Elizari, arroca ecin autsizcoari bethi, fedezco eta amodiozco locarriez amarratuac egonen dire. Bethi Elizan eta Elizarekin egonen dire.

Horra hirurgarren ordenaco izpiritua, beheratasunezco, caritatezco eta obedienciazco izpiritua.

## VII[en] CAPITULOA.

### Hirurgarren Ordenan sartceco cer behar den eguin.

---

Gracia handia eta baliosa da, Yaincoaz ordena batetara salbamenduco porturat dehitua izaitea. Egun guciez fagore horrengatic, Yaincoari eskerrac behar litzazke bihurtu.

Gauza handia da hirurgarren ordenan sartcea, eta nola gauza handiac ez baitire behinere arinki eguin behar, hala gauza hau, frogatuz eguin behar da.

Yaincoaren graciac unkituric, sartu nahi duenac, lehenic erreguela ongui iracurri behar du eta haren izpiritua ezagutu. Guero contseillu galdeguin, apez arguitu eta khartsu bati, erreguela untza ezagutcen duenari edo frayde bati.

Ez da galdeguin behar nor nahiri ; huna cer dioen apezpicu khartsu, Segurrec : « Badire gende errespetagarriac, apez hoberenac eta bertuo-

senac, San Francizcoren hirurgarren ordena ezagutcen ez dituztenac, *à priori*. Comentutaco guizonen usainez ere, mesfiatcen direnac, eta ahalguetceco dena! Cembeit aldiz belztu nahi dutenac, ordena saindu bat, handizki Elizac onetsia, laudatua eta gomendatua. Horien chedea, ez dut dudaric ona dela, bainan hortaric heldu ondorioa, nigar eguingarria da, eta horra cergatic, gauza huntan ez den contseillu galdeguin behar lehen ethortcen denari. » Guero, sartceco eguna seinalatua denean, hirur egun aintcinetic bacartasunean preparatcen ahal da, eta egun horietan Yaincoari galdeguin San Francizcoren izpiritua. Seinalatu egunean cofesa eta comuniatcen da, indulgencia osoaren irabazteco eta ecarriren ditu habitua eta corda, on litzake ahalaz erreguela ere.

Famillia saindu huntan errecibitua izan ondoan, eguin ahalaz entseiatuco da sainduki bicitcera, arima graciaz aphaindua, merecimenduez aberasturic cerurat eramaiterat. Erreguela beguira dezala eta laster eguinen da

Aita San Francizcoren aur maitagarri, eta guero ukanen du hirur ordenetaco aurride izpiritualekin, bethi Yaincoa icusteco, maitatceco eta laudatceco zori ona.

Uzten diot berriz ere luma, apezpicu yadanic aiphatuari :

« Yaincoac aguian nahico du, dio, hirurgarren ordenaco izpirituac irabaz dezan guero eta guehiago apeztasuna, eta heitaz guiriztinoen gradu guciac. Frederic IIen demboran becela, errevolucionea, ola hantuac itsaz baztarreco sablian lehertcen diren becela, penitent humillen ordenan leher dadin. Segurtatuac egon behar dute, ceren frogantzac egun oroz aguertcen du, hirurgarren ordenac, ezartcen denean bere cimendu eguiascoarekin, ascatcen duela parropietan devocionea, laguntcen handizki Erretoren kharra, eta emendatcen obra onac eta arimen conversioneac. »

Aguian, aguian, hala izanen da.

# BIGARREN PHARTEA.

## Hirurgarren Ordenaco arroparen hartceco othoitzac (1).

Guidariac hartcen ditu surplicea eta estola eta arropa hartzailleari dio : *Ene haurridea cer galdeguiten duzu?* Hunec humilki ihardesten du erranaz : *Ene aita othoizten zaitut, Yaincoaren, Birgina Maria notha gabecoaren eta aita San Francizcoren icenean, eman diezadazun penitenten ordenaco arropa saindua, eguinen dut nik ere othoitz zuretzat ene bici gucian.*

Guidariac hemen exorta eguiten

(1) Ceremonial hau, Erroman eguin den erreguelatic hartua da, eta Aita Provincialaren manuz esarria.

ahal du eta handik lecora, erraiten dio arropa hartzailleari, absolucione generala emaitera dohala eta becatuen urriki handi baten biltceco. Guero erraiten da *Confiteor*; *Misereatur* eta *Indulgentiam* erran ondoan, guidariac escuin escua altchatuz, galdeguillea auzpez dagolaric, dio :

Dominus noster Yesus Christus, per suam piissimam misericordiam et per merita suæ sacratissimæ passionis te absolvat, gratiam suam tibi infundat; et ego autoritate ipsius, qua fungor, nec non Summi Pontificis tibi concessa, mihi autem in hac parte commissa, absolvo te ab omni vinculo excommunicationis majoris vel minoris, si quod incurristi, et restituo te comunioni fidelium, nec non sacrosanctis sacramentis Ecclesiæ. Ytem eadem autoritate absolvo te ab omni transgressione mandatorum Dei, et ab omnibus peccatis tuis in quantum possum et valeo. In nomine Patris et Filii et Spiritus Sancti. Amen (1).

(1) Quamvis enim ritus hujusmodi absit ab ordine Romano ad aramcœli, nec non a pervetusto illo, quem priv. Collectos describit in fine suii compendii; alicubi tamen in usu esse

℣. Adjutorium nostrum in nomine Domini.
℟. Qui fecit cœlum et terram.
℣. Sit nomen Domini benedictum.
℟. Ex hoc nunc et usque inseculum.
℣. Domine, exaudi orationem meam.
℟. Et clamor meus ad te veniat.
℣. Dominus vobiscum.
℟. Et cum spiritu tuo.

OREMUS.

Omnipotens sempiterne Deus, qui propter tuam solitam bonitatem, et per mortem unigeniti tui Domini nostri Jesu Christi, mundum fractum restaurare misericorditer dignatus es, ut a morte perpetua nos liberes et ad gaudia perducas Paradisi, respice, humiliter quæsumus, pietatis tuæ oculo, præsentem et devotam familiam tuam, hic hodie in tuo nomine congregatam, cujus famulus tuus B. Franciscus, tibi ut augeatur credentium numerus, extitit institutor, ut eam supra firmam petram, quœ Christus est, taliter semper confirmes, quod ab omnibus turbationibus mundi,

scimus, et certo certuis laudabilis est ; eoque magis, quod Tertiari ipsi vere pœnitentes ac confessi et sacra communione refecti indulgentia plenaria fruuntur tam in vestitione, quam in professione Tert. Ord.

carnis et diaboli sit secura, et incendens per tuorum semitam mandatorum, post ergastulum prœsentis vitæ, meritis acerbissima Passionis Filii tui et Immaculatæ Virginis Mariæ, ac Patris nostri Francisci, tuorum que omnium sanctorum, gaudia vera possideat. Qui vivis et regnas in secula seculorum. Amen.

## Arropa benedicatcean.

### Oremus.

Domine Yesu Christe, qui tegumen nostræ mortalitatis induere dignatus es, quique glorioso confesori tuo beato Patri nostro Francisco, ut tres ordines institueret, salubriter inspirasti ac per operis tui vicarios, summos Ecclesiæ tuæ Pontifices, ipsos aprobare fecisti, immensam clementiæ tuæ, majestatem suppliciter exoramus, ut hæc incumenta, quæ idem B. Franciscus ad innocentiæ, mortificationis, et honestatis indicium, ac pro valida contra sæculum, carnem et dæmones armatura, commilitones suos, Fratres de pænitentia in tertio ordine portare decrevit, ita benedicere † et sancti ficare † ut hic famulus tuus (hœc famula tua) devote recipiens, te intra se taliter induat, quod sicut honestam humilemque vitam indumenta ipsa

prætendunt, sic etiam generaliter vitio subacto, veraciter corde, ore et opere vivere mereatur et a te nullis tentationibus separetur. Qui vivis, etc.

## Corda benedicatzean.

OREMUS.

Deus, qui ut servum redimeres, Filium tuum per manus impiorum ligari voluisti, benedic † quæsumus, cingulum istud et præsta ut famulus tuus (famula tua) qui (quæ) eo velut ligamine pænitentiali cingitur, vinculorum ejusdem, Filii tui D. N. J. C., memor existat, et in ordine quem assumit salubriter perseveret, et tuis semper obsequiis se alligatum (aligatam) esse cognoscat. Per eumdem Christum.

Aita Guidariac ur benedicatua emaiten du habitu eta cordaren gainerat.

Hemen cantatcen edo erraiten da *Veni Creator,* belhaunico. Hau finitcean dio :

Exuat te Dominus veterem hominem cum actibus suis, et eripiat de corde tuo seculi pompas, quibus abrenuntiasti, dum Baptismum suscepisti. Amen.

Emaiten dio arropa musu emanaz, dioelaric :

Ynduat te Dominus novum hominem, qui secundum Deum creatus est in justitia, sanctitate et veritate. ℟. Amen.

Emaiten dio corda, artzailleac guerrian ezartcean dio :

Præcingat te Dominus cingulo puritatis, et extinguat in lumbis tuis humorem libidinis, ut maneat in te virtus continentiæ et castitatis. ℟. Amen.

Emaiten dio erreguela eta escuan daducan demboran dio :

Accipe regulam quam tibi servandam trado, quod si ejus præcepta servaveris, ipsa custodiet te, et addet Dominus vitæ tuæ benedictionem. ℟. Amen.

Emaiten dio thortcha piztua erranaz :

Accipe Frater carissime (vel Soror carissima) lumen Christi in signum immortalitatis tuæ, ut mortuus (vel mortua) mundo Deo vivas. Exurge a mortuis, et illuminabit te Christus. In nomine † Patris et Filii et Spiritus Sancti. Amen.

Othoitz hau acabatcean eskerren bihurtceco oracioneac erraiten dire. Aita guidariac arropa artu duenari emaiten dio ordenaco Sainduen icen bat, guero asten du *Laudate*, eta anayac han badire aldizca erraiten edo cantatcen dute.

Cofradia den tokietan, aitcindariec laguntcen dute arropa artzaillea, anay gucietarat, horiec emaiten diote musu erranaz : *Bakhea dela zurekin*. Ihardesten du : *Halabiz*.

Hori bera eguiten dute aizpa izpiritualec elgarrekin, eta ez litzake hoimbertce mendez irahun duen costuma hori, galdu behar.

℣. Confirma hoc Deus, quod operatus es in nobis.

℟. A templo sancto tuo, quod est in Jerusalem.

℣. Salvum fac servum tuum (vel salvam fac famulam tuam).

℟. Deus meus, sperantem in te.

℣. Mitte ei, Domine, auxilium de Sanctum.

℟. Et de Sion tuere eum (vel eam).

℣. Nihil proficiat inimicus in eo (vel ea).

℟. Et Filius iniquitatis non apponat nocere ei.

℣. In conceptione tua, Virgo, immaculata fuisti.

℟. Ora pro nobis Patrem, cujus Filium peperisti.

℣. Signasti, Domine, servum tuum Franciscum.

℟. Signis Redemptionis nostræ.

℣. Domine, exaudi orationem meam.

℟. Et clamor meus ad te veniat.

℣. Dominus vobiscum.

℟. Et cum spiritu tuo.

OREMUS.

Deus qui corde fidelium Sancti Spiritus illustratione docuisti, da nobis in eodem Spiritu recta sapere et de ejus semper consolatione gaudere.

O arima dohacabea, cer eguin dantzu Yesusec ? cer Mariac ? O dolorezco ama ! ene hobenac dire zure eta zure semearen bihotzac ezpataz igaan dituztenac. O Maria ! ardiets dizagazu barcamendua eta Yaincoaren amodio khartsua.

Gure Aita, etc.



## V^on ESTACIONEA.

*Simonec laguntcen du gurutcearen kharrayatcen.*

Contsidera zazu Yesusen zu ganaco ontasuna. Ez du escas indarra gurutcearen yassaiteco mundua yassaiten duenac ; bainan nahi dautzu eracaxi lagunekin pairatcen.

O Yesus ! eguidazu munduco nahi gabeac, sofricariac pacienki yassaiteco gracia, ene nigarrac zureekin bat eguinic, ukan dezadan zurekin Parabisuan izaiteco zoriona.

Gure Aita, etc.



## VI^en ESTACIONEA.

*Beronicac chukatcen dio begui-thartea.*

Contsidera zazu Yesusen beguitartea icerdiz, odolez, erreautsez eta thuz cikindua, eta nola emacume hunec chucatu ciotzan. O Yesus edertasuna bera! ene bekatuekin cikindu dudanez guerostic zure beguitharte Aingueruec berec icusten ahal ez dutena, othoi eguidazu gracia ene becatuen nigarrekin garbitzecoa eta marcazazu ene bihotzean zure beguithartea, ecin borratuzco maneran Beronicaren oialean marcatu cinduen becela.

Gure Aita, etc.



## VIIen ESTACIONEA.

*Yesus erortcen da bigarren aldicotz.*

Contsidera zazu bictima saindu horren egon manera, hedatua sacrificioco egunaren azpian, osticatua lurregoez, eta barbaroki tratatua. Ah! hemen emaiten dizu zuretzat duen amodioaren froga berri bat.

O Yesus! ukan dut zureganic becatuen barcamendua ardietsi ondoan, berriz erortceco zorigaitza, zure guehiago damustatcecoa, emadazu othoi ez guehiago erortceco gracia, ocasionei ihes eguiteco eta fermutasun handi bat, lehenago hil, ecen ez zu ô Yesus! damustatu becatu mortalaz.

Gure Aita, etc.



## VIII[en] ESTACIONEA.

*Yesusec contsolatcen ditu Yerusalemeco presunac.*

Contsidera zazu nola Yesusec Yerusalemeco cembeit presuna yarraiki ciozconac bere Passionean, contsolatu cituen. Ohar zaitez badituzula bi motivo nigar eguiteco, lehenic Yesus, zuretzat pairatcen duena eta zu ez dakizuna bicitcen ezkergabeez Yesus damustatuz baicen. Ah ! othoiztu zazu eta erran : O amodios bethea zauden Salbatzailea ! nola ene bihotza ez da puzcatcen eguiasco urrikiaz ?

O Yesus ! emadazu ene becatuengatic nigar eguiteco gracia, amoregatic hetaz garbitua izan dezadan zurekin izaiteco contsolamendua.

Gure Aita, etc.

✝




## IX^en ESTACIONEA.

*Yesus erortcen da hirurgarren aldicotz.*

Contsidera zazu nola Yesus bildox notagabea soldaduec errestatcen duten jotcen eta aurdikitcen. Ah! becatu madaricatua! zuc hunela Yaincoaren Semeari paira arazten diozu, zuc osticatcen duzu eta jotcen.

O Yesus! ezagutcen dut ene eroricoac, lurrerat aurdiki zaituztela, bainan huna hemen non nahicen delibero fermu batekin ez guehiago zuri nahigaberic emaiteco ene hobe-

nekin. Yesus! milaca aldiz erranen dut, ez tzaitut guehiago damustaturen, ez Yauna, ez tzaitut guehiago damustaturen.

Gure Aita, etc.

†



## X^en ESTACIONEA.

*Yesus biluzten dute.*

Contsidera zazu nola Yesusen sofricariac berritu ciren biluztearekin ; ikas zazu ere nola zure modestia escasengatic, urguilluengatic pairatcen duen ; nola zure gurmandisa eta ordikeriengatic edaten duen ozpina.

O Yesus ! ikhusgarri nigar eguingarri horren bistan ahalguetcen naiz. Ezagutcen dut ez naicela bide zucenean, ceren zu zaren gucia sauriz estalia, odoletan suntsitua eta nahi gabeez bethea, ni aldiz urguilluz eta

guritasunaz bethea. O Yainco ona! othoi eguizu cambia nadin, emadazu orai zure Passione sainduco garraztasuna, guero izan dezadan ceruco loria.

Gure Aita, etc.

✝



## XIen ESTACIONEA.

*Yesus gurutceari itxatua da.*

Contsidera zazu cer sofritu zuen Yesus onac, itceac sango escuetan sartcean, sainac ethentcean ! nola ez da zure bihotza unkitua izanen sofricari horien eta ceure becatuen orhoitzapenarekin ? Ah ! errazu nigarra beguian :

O Yesus guciz eztia ! Yesus nigatic gurutceari yozia ! sartu zazu ene bihotz gogorrean zure amodioa eta zure beldur saindua, eta nola ene becatuac izan baitire zu gurutceficatu

zaituztenac. Ah! eguidazu ene urrikiaz ene passione guciac itzatceco gracia, mundu huntan zurekin gurutcean biciz, guero zurekin izaiteco.

Gure Aita, etc.

--

†



## XIIen ESTACIONEA.

*Yesus hiltcen da gurutcean.*

Contsidera zazu Yesus gurutcean, beha zazu nola beguitharte eder hura hiltcen ariden ; entzun zazu cer dioen Mariari, cen Yaundoni Yoanesi ; entzun zazu nola etsaientzat bere Aitari barkamendu galdeguiten dioen, nola bere arima aitari gomendatuz, hiltcen. Yesus hil da zuretzat ! eta zu cer ari zare ? Ah ! bihotza saurtua, beguiac nigarretan errazu :

O ene Salbatzaile amultsua ! ezagutcen dut ni naicela hil zaitudan burregu crudela ; ez dut barcamen-

dua mereci, bainan aditcen zaitut ceure etsaier barcatcen. Ah Yesus ! cer eguinen dut zuretzat ? Huna hemen zure amoregatic nun nahi daretan gaizki eguillei barcatu. Bai Yesus ona ! bihotcez barcatcen daret, hortaz uzte dut entzunen dudala zure ahotic, egun enekin izanen zare Parabisuan.

Gure Aita, etc.

✝



## XIIIen ESTACIONEA.

*Yausten dute Yesus gurutcetic.*

Contsidera zazu nola Yesusen gorputza gurutcetic kenduric esarri zuten Ama Birginaren belhaunetan. Cer ezpatac igaan tzuen Mariaren bihotza ikustean bere besoetan bere Seme Yaincoaren gorputz hila! Ah! nola berritu ciren bere doloreac gorputz sauriz bethe haren bistan! Bainan cerk guehiena puzcatcen cerauçon bihotza? Becatuac. Astia zazu beraz becatu madaricatua, eta errazu : O Martiren Erreguina! ardiets za-

dazu, gau eta egun ene becatuengatic nigar eguiteco gracia, amoregatic eta nigar horiekin, eta esperantzarekin, hil ondoan, bici nadin zurekin ceruan.

Gure Aita, etc.

†



## XIVen ESTACIONEA.

*Yesus emaiten dute hobian.*

Contsidera zazu nola Yesusen gorputza hobian eman zuten, eta nola han zauden guciac bereziki, Maria, zauden nigarretan. Azken estacione huntan jo zazu ceure bihotza, igaan zazu, dolorezco ezpataz, eta ahuspez emanic errazu :

O Yesus urricalmenduzco Yaincoa! emadazu othoi zure amodioan irahuteco gracia, eguidazu zure eta zure amaren icen sainduac espainetan, contricionea bihotcean asken atsa aurdikitceco fagorea. Halabiz.

Gure Aita, etc.

## San Francizcoren Ordenaco Arrosarioaz.

Arrosario hau edo alegrantciazco zazpi hamarrecoac, eguiten dituzte hirurogoita hamabi Agur Maria, Ama Birginaren hirurogoita hamabi urtheen ohoretan. Dehitcen dute ere Francizcanoen corona, obserbanciaco ordenan, 1422en urthean aguertu celacotz. Ceruco Erreguinac berac erakatsi ciotzan ordenaco guizon gaste bati ; hara nola Wadingue.

Bacen dembora hetan San Francizcoren ordenan, novice bat Mariaren devocione handitacoa, ceinac munduan cen demboran costuma zuen, egun guciez Mariaren oinetan coroe baten esartecoa. Comentuan eguiten ahal ez tzuelacotz, kendu nahi izan zuen eta yoantcen lehenic Mariari agur eguitera. Maria aguertu citzaion eta erren : Ez hadila erori trizte, loreac eni ofreitcea utci behar ducalacotz. Erakhatsiren diat present horren trucatcen eta coroe eder bat, ar-

rosazcoa baino ederrago eguiten. Coroe hau eguintzac, ez loreez, ceinac laster hiltcen baitire, bainan othoi itz khartsu Ainguerua erakatsiez ceina bethi ezartcen ahal duc. Lehenic erraitzu hamar *Agur Maria* eta *Gure Aita* bat, Yesusen contcibicionearen orhoitzapenean. Bigarrenecoric, santa Elizabeti bisita eguitera lasterca nintcenecotz. Erraitzu hirurgarreneco, Birgina izaitea galdu gabe, Yesus sorthucenean ukan izan nuen alegrantciagatic. Seigarreneco, Yesus lorioski piztu celacotz eta finean zazpigarreneco, cerurat igaan nintcelacotz. Baldin egun guciez lehialki erraiten badituzu, yakin zazu, ene bihotzarentzat agradagarri izanen dela eta zuretzat probechos.

Frayde gaste hura bici izatu cen sainduki ordenan eta hil cenean, icusi zuten haren arima lore suerte aitnitcez cerurat igaaiten cela eta Mariac errecebitcen zuela. Laster hedatu zuten devocione hau ordenaco sainduec, laster bildu cituzten ere fruituric handienac, nun Aita Sainduec aberastu baitzuten aitnitz in-

dulgenciez ; bereziki San Francizcoren ordenacoec irabasten dute, erraiten duten aldi guciez indulgencia oso bat. Erraiten dire beraz zazpi hamarreco, zazpi misterio alegrantciazcoen ohoretan ; guero *Gure Aita, Agur* eta *Gloria* bat Aita Sainduaren chedeetan eta finitcean *De profundis* eta *Sub tuum* erraiten da.

Ohora dezagun Maria, othoitz dezagun, maita dezagun eta aipa ditzagun, Mariaren loriac eta ukanen dugu bicitce bethierecoa. *Qui elucidant me vitam æternam habebunt.* Yarraiki gaitecen Mariaren bertutei ; galda diozagun ukan zuen beheratasun pare gabecoaren puchca bat, bere garbitasunaren, pacienciaren, eta Yaincoaren alderaco amodioaren su aphur bat. Eta confianza muga gabecoa ezar dezagun Maria baitan, gucia da ona, eztia ; debruen aztaparretaric libratuz, azken mementoan errecebituren gaituz.

« **Maria mater gratiæ ,**
**Dulcis parens clementiæ,**
**Tu nos ab hoste protege**
**Et mortis hora suscipe.** »

## Erien bisitaz eta Agoniaco Othoitzac.

—

Hirurgarren ordenacoac badakite, erreguelaren arabera, norbait eritcen denean bisita eguin behar diotela. O cer gauza ona, baliosa eta caritatezcoa, erien bisitatcea ! Cer urricalmenduzco obra, heien laguntcea, gorputceco eta arima gaucetan ! Yesus guciz onari, zombat agradatcen zayon ! nun dehitcen baititu bere membroac.

Hirurgarren ordenacoac beraz, aditcen dutenean, beren ordenaco norbait eritu dela, berehala lehenic hurbillenac, eta congregacioneco bada, Aita Guidaria eta aintcindaria yoanen dire. Bisita hori eguiten da, lehenic, arimari animua emaiteco hele amodioan sustatuekin, haren contsolatzeco, erranaz zombat hirusden Yesus maitearendaco pairatcen badu, ea harec gure amoregatic zombat pairatu duen ! Ekarri behar da eria Yaincoaren nahia eguiterat

eritasunean ere ; ceren harec baitaki cer den on gure arimarentzat. Beraz osoki Yaincoac nahi duena eguiteco prest izaiteco, erran nola Yesus bere pairuetan izan tcen pacienciaren eta eztitasunaren miraílla ; nola yassan cituen ichil ichilic tormentaric handienac, bildox bathec hiltcerat eramaiten dutenean baino guehiago ez tzuen eguin. Ekarri behar zayo ere Yob saindúaren exemplua, Martirena eta finean erran cer merecimenduac irabasten diren dembora labur huntaco sofricariekin. Aita San Francizcoc bere aurrer erraiten dare : Ene aurr maiteac eta benedicatuac, entzun zazue, entzun zuen Aitaren itza, gauza handiachitz eman ditugu, handiagoac eman daizkigute, atseguina labur da, bethicoa pena, sofricarioac ttippiac, loria finic ukanen ez duena.

Gorputzeco beharretan ere lagunduren dute, behar badu yaki, edari, oial, garbitasun, hitz batez, misericordiazco obra on guciac eguinen dituzte, uhartuz Yesus maiteari berari eguitea becelatzu dela. Ycusten edo ezagutcen bada eria ttipitcen ari

dela, azken orduraino luzatu gabe, ekarriren dute Sacramenduen errecebitcerat, alaber Aita Sainduaren benedicionea eta erreligioneco fagore guciac, arimari animo saindu bat emaiten baitute.

Agonia hurbiltcen denean, orhoituren dire, eriotce saindutic bethico dohatsutasuna, eta becatuzcotic bethico zori gaitza; behin salbatcea, bethico salbatcea eta behin galtcea, bethico galtcea dela. Orhoitu ere agonia hurbiltcean, Satanec bere ahalac eguiten dituela arima haren beretzat irabazteco. Orduan beraz, arima nahigabeez, sofricariez eta etsaien tentacionez cargatu hura laguntceco, etsaia garaituz; cerurat yoaiteco erranen dute :

Yainco guciz ona! zuc maite duzuna eri hura niz, zu zare ô Yesus, ene sendatzaile bakharra, zuc eguina naiz, zurea naiz, eta zu baithan esartcen dut ene esperantza gucia. Eri naiz, bainan cer dire ene sofricariac, zuc enetzat yassan dituzunei igualatuztceco! Sofritcen dut, bainan ô Yesus! ez nauzu abandonaturen. Ama

batec ez du ahantzten bere sabelean ekharri duen haurra; bainan yasan nahi ditu haren nahigabeac bere baithan eta ecina badu, bederen laguntcen du yasaiten.

Yesus zu zare ene ama, zuc eguin nauzu gurutcean, zure odolecoa naiz, beraz nola abandona zure haurra?

Yainco ona, eguia bera zarena, fermuki sinhesten ditut Eliza Ama Saindac sinhesten eta eracasten dituen eguia guciac, ceren zuc arguitcen baituzu ecin utseguinezco arguiaz. Yauna, emadazu ceronec sinheste hori. O Yainco Yauna! guciz botheretsua, guciz ona, ontasuna, osoki zu baithan esartcen dut esperantza.

Emadazu, piztzazu, ceronec ni baithan esperantza hori. O Yainco amultsua! hoimbertce maitatu eta maitatcen nauzuna, ah! nola eztzaitut maitaturen? Bai Yauna, maitatcen zaitut, bihotz guciaz, maitatcen zaitut maitagarria! Ene pena, ene guciz gucien gainetic, maitatcen zaitut ô Yesus! ô Yesus! ô Yesus!

urriki dut Yauna zu ontasun pare gabea maitatu beharrean, becatua maitatu dudala. Ah! norc emanen dauzkit beguietan bi ithurri ene becatuez nigar eguiteco! Ezagutcen eta aithortcen dut Yauna, ene crimen belztasuna; heien lombreac ikharatcen nau, bainan zu zare urricalmenduzco Aita, barcatcen dakisuna. Cembat nahi hobendun izan nadin, cembat nahi eguin dezan Satanec ene ukaiteco, zu baithan ucanen dut esperantza. O Yesus urrical nezazu!

O Maria! Maria ene maitea! othoi, othoi! ô Ama, ez ni memento huntan abandona. Ifernu gucia armatu da ene contra, bainan zurekilan etsai guciac garaituren ditut eta suntsituco. Maria, becatoren ihes tokia, Maria, misericordiazco Ama, Maria, gucien eta becatoreric gaichtoenen arartecoa, ô Ama maitea! zure besoetan eman nahi dut ene azken hatsa, zato beraz eta errecebi nezazu.

Yauna, errecebi zazu zure cerbitzaria, zure misericordiatic igurikitcen duen salbamenduco lekhuan. Halabiz.

Yauna beira zazu hunen arima ifernuco irrizcu gucietaric, debruaren arte eta tentacione gucietaric. Halabiz.

Yauna, beira zazu cerbitzariaren arima lehenago Enoc eta Elias guizonen heriotce comunetic beiratu cintuen becela. Halabiz.

Yauna beira zazu zure cerbitzariaren arima, Noë uholde generaletic beiratu cinduen becela. Halabiz.

Yauna, beira zazu zure cerbitzariaren arima, Abraham Ur Caldeacoaren escuetaric beiratu cinduen becela. Halabiz.

Yauna, beira zazu zure cerbitzariaren arima, Ysaac, Abraham bere aitaren escuetaric, beiratu cinduen becela. Halabiz.

Yauna, beira zazu zure cerbitzariaren arima, Lot Sodomaco suyetic beiratu cinduen becela. Halabiz.

Yauna, beira zazu zure cerbitzariaren arima, Moïs Pharaon Egyptoco erregueren escuetaric beiratu cinduen becela. Halabiz.

Yauna, beira zazu zure cerbitzariaren arima, Daniel lehoinen putzutic beiratu cinduen becela. Halabiz.

Yauna, beira zazu zure cerbitzariaren arima, Susana faltsoki acusatua cen crimatic beiratu cinduen becela. Halabiz.

Yauna, beira zazu zure cerbitzariaren arima, David, Saul Erregueաren eta Goliaten escuetaric beiratu cinduen becela. Halabiz.

Yauna, beira zazu zure cerbitzariaren arima, Yondoni Petri eta Yondoni Paulo presondeguitic beiratu cinduen becela. Halabiz.

Eta nola beiratu baiduzu Santa Tecla, Birgina eta Martir dohatsua, hirur suplicio dorpheetaric, hala, othoi, beira zazu zure cerbitzariaren arima, eta emozu, ceruco loriaz gozatceco gracia. Halabiz.

Yesus! Yesus! Yesus! Maria, San Yosep, Aita San Francizco!!!

Yauna zure Tribunalean aguertu baino lehen ene becatuen barcamendua galdeguiten dizut. Barca, Yauna, barca zure creaturari sorthuz guerostic eguin izatu dituen hoben guciac. Barca ô aitaric hoberena zure haurrari eguin dituen utz guciac, ez dut ez guehiago eguinen; madari-

catcen duzun becela, bainan benedica zazu urrikietan dagoen cerbitzaria. Ez dut ifernua bezteric mereci, bainan Yesus orhoit zaitez enetzat ni salbatceco odola eman duzula.

O Trinitate adoragarria, Aita, Semea, Izpiritu Saindua, cer zoriona zutaz gozatcean mende gucien mendetan!!! O ceru ederra, nere begui hoyetaz ikhusiren dudana, aguindua zautana seculacotz!!!

Yesus, Maria, Yosepe, emaiten dauskitzuet ene bihotza, arima eta bicia!

Yesus, Maria eta Yosepe, lagun nezazu ene agonian!

Yesus, Maria eta Yosepe, eguidazue bakean eta zuen companian hiltceco gracia!

Yesus guciz eztia, Maria samurra eta Yosepe ona, urrical zaitezte bekatoreez, agonian daudenez eta purgatorioco arimez!

Ene Aingueru beguiraila, ene Patroin ona, San Francizco ene aita dohatsua, hirur ordenetaco ene haurride guciac, lagun nezazue. Aingueru eta Arcangelu, Patriarca eta Profeta,

Apostolu eta Evangelista, Martir eta Cofesor, Birgina, Saindu eta Sainda guciac, ararteco balia zaizkidate. Yauna ezperantza dut zure baithan, ceren zaren guciz ona, guciz saindua eta guciz misericordiosa. O Yaincoa maitatcen zaitut! Yesus enegatic hil zarena ·ene bicia ofreitcen dautzut! Yauna zure escuetan uzten dut ene arima! Yesus, Maria, Yosepe. . . . . Yesus! Yesus! Yesus! . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Hunela lagunduren dute aldizca agonian dagoen eria; maiz emanen diote gurutcea espainetan, besarca dezan; maiz ganberan eta ohe inguruan ur benedicatua hedaturen dute; eta han aurkitcen dire guciac emanen dire belhaunico, erranen dituzte edo Ama Birginaren edo Sainduen letaniac, edo San Francizcoren arrosarioa, edo gurutcearen bidea eta bertce holaco othoitzac. Yndulgencia osoa irabas dezan hiltcera dohanac, soinean ez badu ohearen gainean esarrico dute ordenaco arropa.

Hil ondoan emanen zaizkio, hobirat berekilan eramaitecotzat, hirur

gauza, hirurgarren ordenaco arropa hori bera, profesioneco gurutcea eta nola eguintzuen, aukitcen den paperra. Congregacioneco aitcindariac, membro guciac yakin aracico ditu nola hil den eta nola obligatuac dauden haren ehorsketarat yoaitera. Oharturen dire ere, cer manatcen daren erreguelac, yadanic erran dugu, hortacotz hemen ez dut berriz aiphatcen.

---

## Maiz Comuniatzen direnentzat

Aste gucico

## EXERCICIO IZPIRITUALA.

### IGANDETAN.

*Contsidera zazu Yesus heldu dela zare bihotcerat, Erregue bat becela, eta ar zazu chede cin bat zure bihotcean erreguina arastecoa.*

§ Iª

Zato Yesus, gucien Erreguea, ni baithan erreguinatcerat. Eneganat heldu zare, ene Yaun Soberanoa, ene bihotzaz yabetcerat eta han ceure erresumaren ezartcera. O zoin hirus

naicen ! Altcha zaitez Yesus, ken tzaitzu eta aurdiki ene bihotcean diren etsaiac ; ehortcia nindagon gathiboen legueez, hec ciren nitaz yabetu, bainan zuc ô Yesus ethen tzatzu gathe horiec eta emadazu libro izaiteco zoriona.

Nola ez dut Yauna baithan esperantza ukanen, egun libraturic debruaren eta becatuaren aztaparretic, ezarri nahi bainau bere legue ezti eta amodioscoen pian ! Nori Yauna gozaturen zaitut ! noiz ukanen dut ene bihotcean erreguinatcen, manatcen icusteco zoriona ! O Yesus guciz ona ! emadazu zure ongui ezagutceco gracia eta aphain zazu ceronec ene bihotcean eguin behar duzun tronua. *Ecce rex tuus venit*, horra nun heldu den zure Erreguea, susta zaitez haren amodioan. Zato, ene Yaun eta Yaincoa, zato Yesus zure erresumarekin, ene bihotceco gauza guciac galdeguiten zaituzte, zure igurikitcen daude eta berantetsiac.

Yauna, ofreitcen dauztzut ene adoracione eta ohore guciac ; ofreitcen dizut amodioaren urrea, intsentsua-

ren oracionea eta hildurapenaren mirha. Ofreitcen dizut ene bihotz gucia, zurea da, ar zazu, sustazazu zure amodioaz gorritu labean.

§ IIª

Ah ! ene arima badakizu nor heldu zaitzun ? Munduaren yabe soberanoa, ceruan, lurrean eta ifernuan bothere guciac dituena. Aingueruen eta guizonen erreguea, bethidanecoa eta bethiere izanen dena ; bera da loria, botherea eta edertasuna ; bera iustua, saindua, aberatsa eta handitasun paregabecoa. O cer zoriona erregue hunec bere bisitaz ohoratcen duen arimarena ! Ah ! munduco erregue bathen hitzac, ongui ethorri batec, hoimbezte alegueratcen eta contsolatcen baditu munduco gendeac, cer alegrancia, boscarioa eta zoriona ez dire izanen, Erregue gucien Erregueac bisitatcen duen arimarena ? ez choilki bisitatu, bainan, ariman esarri bere tronua, eguin bere egoitza, erreguinatu bere lorian eta handitasunean.

Horra zombateraino heldu den zuretzat duen amodioa. Zu izanic ere probea eta hura aberatsa ; zu, ez deusa eta hura guciz botheretsua, nahi izatu zuen arerosi bere odolaz zure bihotceco erresuma : hortaracotz yassan cituen arbuioric handienac, azoteac, elhorrizco coroa ; hortacotz izatu cen laidostatua, suntsitua, eta hil izan cen, zure bihotzeco etsaiac garaituz, handic aurdikiz, bere erresumaren esartceco.

Eta zure eskergabea noraino ez da heldu ? Zure amoregatic pairatu duena, hil dena, casatu baithuzu bihotzetic eta haren ordain bere etsaiac ekarri baitituzu ; izaiten ahal da eskergabe belztzagoric ?

Helas ! Yesus ! cer eguin dut ? Ah ! barca Yainco guciz ona, urriki dut eta ezurretaraino urrikietan sarthuric barcamendu galdeguiten dizut. O ene Yaun eta Yaincoa zure gracia sainduaz garbi zazu ni baithan dagoen belztasun hori, ken zazu zure gogotic horren orhoitzapena, ceinaz zure ontasun gucizcoac segurtatcen nau. Heldu naiz beraz egun ene ho-

benen aithortcerat, hurbiltcen naiz ene etsaiaz aurdikiz zureganat, zuri osoki ene bihotzaren emaiterat.

Ycendatzen zaitut Aita Eternalarekin gucien Erreguea, eta bereziki hautatcen zaitut nerea.

Zato beraz Yaun Soberanoa, mana zazu, erreguina zazu ene bihotcean.

O bihotz eta Ainguеru gucien Erreguea! icusten dut izanic ere guciz aberatsa, ene bihotzaz yabetceco guelditu zarela aldareco Sacramenduan. Zato beraz, ceren ez baithut bezte asgorapenic, bezte nahicunderic, zure amodioan sustatcea, zurekin bathasunaren eguitea baicen.

Ydeki zaitezte, hoimbertce demboran, Yesus maiteari, ertciac egon zareten bihotceco borthac, ideki zaitezte eta utz zazue sartcen Ceruco Erreguea. Sar zaitez Yesus! sar zaitez ene bihotcean, ah! errecebitcen ahal ez bazaitut zure goratasunari datzan becela, bederen nahi zaitut errecebitu amodiozco, adoracionezco eta urrikizco sendimenduekin. Ofreitcen dauzkitzut, Ainguеruen adoracioneac, laudarioac eta Serafi-

nen amodioa. Ofreitcen dauzkitzut Cerurat igaitean ukan izan cinucen ohoreac.

Zato beraz Yesus! ene bihotcean erreguinatcera, zato Ceruco bakhea, Ceruco loria. O Yesus ene Salbatzailea! Yesus ene Erreguea! Yesus ene amodioa! zurea naiz gucia; zurea ditudan gauza guciekin, zurea oraico eta bethico.

## Eskerren bihurtceco.

### § I[a]

Ene bihotcean zaude ô Yesus, Ceruco loria eta Erreguea! ezagutcen eta adoratcen zaitut ene Erregue becela. Cer zoriona, zuc Yainco botheretsuac, ceruaren edertasunac ene bihotcean eguin tuzu! Ceruac eta lurrac, ohora eta lauda zazue enekin Yaun Soberanoa; bereziki Aingueru garbiac eta dohatsuac, maita, adora zazue, ceren eni eguin baithaut ohore ecin guehiagocoa. Ohore eta loria orai eta secula Erregue bethicoari.

Bainan ô Yesus! eneganat ethorri zarenez guero, eguizu, othoi, ene bihotcean zure egoitza, esar zazu zure tronua, tronu arguizcoa eta suscoa, iusticiac eta saindutasunac diztiatcen dutena. Zu zare Ceruco loria, Aingueruen Erreguea, gracien emaillea, zu gabe flaco naiz, probe eta trizte, askar zazu ene arima, aphain zazu eta edertu ceure egoitza eta erranen dizut creatura guciekin bethi bici bedi Yesus! erreguina beza bethi : *Vivat Rex in æternum*. Zurea da ene bihotcean manatcea, aberastea, apaintcea eta edertcea, ceren zu zaren guciz botheretsua, aberastasuna eta handitasuna bera.

O Yesus ni baithan diren guciec adoratcen eta maitatcen zaituzte, adimenduac ezagutuz gucien Erreguea, memorioac ohartuz ongui eguille handienaz eta nahicundeac maitatuz, Erregue ecin amodio guehiago ukan lezakena. Tronu huntan diren etsai guciac garaitzatzu Yauna; hor dire gaiskiraco lehiac eta gaiztakeri gucien erroac, suntsi esesta eta hil tzaitzu guciac eta auts horien

gainean altcha zure bictoriosco tronua.

Ycusten duzu, zoin urrikalgarri den ene bihotza, gucia ebatsi dute, gucia porroscatu, aurdiki, cikindu eta belztu dute etsaiac. O Yauna! bethe zazu zure ontasunez, aphain zazu zure edertasunez, aleguera zazu zure loriaz, garbi zazu zure saindutasunez eta beguira zazu etsaietaric.

Ezar zazu zure legue saindua, marka zazu zure odol baliosaz eta eguidazu horren arabera biciz, zu baithan pausatceco gracia. Zure legue saindua Yauna, gucia amodioa da, eztitasuna, bakea; gucia, beheratasuna, obediencia eta hildurapena; eguizu beraz horien besarcatceco fagorea, bethe zazu ene bihotza zure amodioaz, landa zazu bakea, erein zazu bertute eder horien bihia eta bereziki zure amodioa, hau aski dut eta frango aberats naiz horrekin.

O Yaun Soberanoa! ene ganat ethorri zarenaz guerostic zure bothere handian, gucia zurea dehitcen naiz, zu zare ene Yaun eta Yaincoa, zu ene Erreguea. Ah! erreguina zazu

othoi, bethi ni baithan, ez dut bertceric nahi, zuri emaiten dauzkitzut ene amodioa, ene ohore, adoracioneac. Mana zazu ene bihotcean, mana zazu bethi ceren bethico Erreguea baitzare. O Yesus ! gorde nazazu zure bihotz sacratuan, beguira nazazu etsaien errabiatic eta emadazu haur bethi izaiteco gracia : ni naicen gucia zure cerbitsuco emaiten naiz, ene gogoeta, hele, lan, nahi gabe eta pairu guciekin, zurea naiz eta zurekin bicico naiz.

Badituzu oraino bertce cembeit erresuma ô Yainco ona ! Eliza zoinaren Eguilea, Guidaria eta aintcindaria baitzare, zure erresuma da. Bainan badire cembeit hunen pian egon nahi ez dutenac, hunen hume dehituric, huntaric urrun dabiltcenac ; becatuan daudenac, guerostic Satanen peco. O Yauna ! horien conversionea galdeguiten dizut. Badire oraino, ardi galduac, Elizatic campoan dabiltcenac, Elizaren contra altchatu direnac ; ô Erregue guciz bothereretsua ! garaitzatzu zure graciaz, argui itzatzu zure diztiaduraz eta ekarri zureganat,

guciec eguin dezagun arthalde bat, eta egon gaitzen artzain bathen pian.

## § II[a]

Laudatcen zaitut Ceruco Erreguea, eta izan zaitez bethi laudatua, Yesus! ceren eneganat ethorri zaren zure ontasun paregabezco erresumaren ene bihotcean esartcerat. Ceruac eta lurrac zatozte enekin Yaunari eskerren bihurtcerat, Yaunaren laudatcerat, maitatcerat.

Erreguina zazu ô Yesus! ene bihotcean, mana zazu, eguizu zure nahia. Badakit ni baithan diren etsai gaichtoac errabian altchaturen direla, gucia aurdiki eta puzcatu nahiz, bainan zuc guciac apaceguaturen dituzu, zuc esestaturen dituzu edo gathibo esarriren.

Horhoit zaitez ô Yesus maitea! zure odolaren gostuz irabaci duzula ene bihotza, aberas zazu saindutasunaz, bertute guciez. Ez, ez dut bertce Erregueric nahi, zu baicen. Hitz emaiten dizut, zure graciarekin, lehial izanen naicela, bai Yesus ona,

hitz emaiten dizut berriz ere, zurekin nahi dutala egon, zurekin eta zu lagun, guducatu, etsaiac garaitu, eta bictorios guero zurekin erreguinatu.

*Rex meus, in auxilium meum respice.*

## ASTELEHENEAN.

*Contsidera zazu Yesus zure Aita ona dela, zuc utzi ondoan, berriz ere harēñganat itzultcean, errecebitu zaituela. Yaikiren naiz eta yoanen naiz ene Aitaren ganat.*

### § I[a]

Ah ! nun naiz, nola naiz, Aita onaren ganic urrun, probe, gose eta biluzcia !!! Certarat ekarri nau bekhatuac? ene Aitaren galtcerat! ontasun gucien galtcerat ! neure burua zorigaitcez bethetcerat ! Oh zorigaitz handiena ! Certaco guehiago naicen molde triztean egon ? altchatuco naiz beraz eta yoanen naiz Aitaren ganat erranaz, oh ! Aitaric hoberena, huna non den piltzarrez estalia zure Se-

mea, ah! Aita! bekatu eguin dut zure eta Ceruaren contra, othoi barka zadazu eta errecebi zure etchean, serbitzarietaric bat becela!

Phiztu zaitez, haur dohacabea, ceren egun acabatcen baitire zure zorigaitz guciac, zure gosea, egarria, eta probecia. Aita onac, ahantsiric eguin darozcotzun arbuioac, eman dioscotzun nahigabeac, nahi zaitu berriz ere errecebitu eta bere graciez aphaindu. O Aitaric hoberena! ceure etchean errecebitcen duzu bekhatore urrikietan sarthua; huna hemen zure oinetan handien, handiena; emadazu othoi leheneco arropa garbia, zure gracia, leheneco erestuna, fede Saindua, leheneco oinetacoac esperantza, amoregatic eta aphaindura hunekin hurbil nadin preparatu dautasun othuruntzara.

Oh Yesus! emaiten datazu ceure gorputza yaterat eta odola edaterat; bicitce bethierecoa emaiten duen oguia eta Birginac eguiten dituen arnoa. Emaiten diozu, ardi errebelatuari ô arzain ona! ceure gorputza yatera eta odola edaterat! O Yesus!

garbi nazazu zure errecebitceco, susta nazazu zure amodioan.

§ IIa

Huna hemen, Aita ona, huna hemen hoimbertce pena eta nahigabe eman dizkitzun haurra ; zure oinetan da bere lohikeriaz zuc eman ontasuna tchatu duena, bere bici molde tzarrez, zuc eman arropa churia lohiarr errestatu duena. Ah ! badakit hoben handiez cargatua nagola, badakit ez dudala barcatcea mereci ; bainan Aitaren bihotz ona ezagutuz, ahuspez emanen naiz, eta erranen diot : Oh ! Aita ona ! ene beguiac ez dute aski nigar, bihotceco belztasunaren garbitceco. Damustatu zaitut, eta handizki utzi zaitut eta itsuzki. Oh ! zombateraino ene bihotza saurthua dagoen !

Orhoit zaitez haur dohacabea, zombat eguinbide diozun zure Aitari. Yeus zazu cer ontasuna ukan izan duen zuretzat, eguin zaitu, beguiratcen zaitu, eta hoimbertce aldiz damustatu ondoan, barcatu dizu urri-

kietan eman zarenean. Bainan bereziki zure bihotza unkitu behar duena, eman dizu graciazco bicitcea, bere pena, neke, icerdi eta arbuioac yassanez, guerostic dolorezco haurra zare, Aitac bere odolaz arerosia. Yzaiten ahal othe da amodio handiagoric? Entzun othe da nihon ere eskergabe beltzagoric?

Ezagutcen dut, Yesus, amodio ecin guehiagococa, esker gabe icen gabezcoaz pagatu dudala. Zure legue saindua autsi, zure ontasuna arbuiatu, eta zure laguntza astiatu ditut. O zombat aldiz ez dizut erran, maitatcen zaitut eta guelditu naiz zuretzat elhurra bezain otz. Zuc aldiz bethi maitatu nauzu eta orai ere maitatcen nauzu. Ene eskergabeac ahantsiz, errecebitcen nauzu zure besoetan, besarcatcen nauzu, bainan oh amodioaren gaindidura! emaiten zare gucia, ene arimari, amodiosco sacramendu huntan. O Yainco Yauna! nola ez da unkituren bihotsa, icustean zuc diozun amodioa? nola ez du cerbait eguinen, hoimbertce eguiten dioenari? Bai Yauna, lehenic astiat-

cen dut ene becatua, milletan barcamendu galdeguiten dizut, lehenago hil, ecen ez berriz zu damustatu. Hemendic aintcina, izanen naiz lehiala ene eguinbidetan, khartsua zure amodioan. O Yesus! boscaria zaitez, horra nun heldu den, zure haura, galdu cen eta edirein duzu, hil cen eta phiztu duzu. Errecebi nezazu Yesus, zure othuruntzan, esar nazazu zure bihotzaren contra. Zato, Yesus, zato, ene bihotcerat, gucia zuri emaiten naiz.

## Eskerren bihurtceco.

### § Ia

Ni baithan zare Aita ona, ene bihotcean. Oh Yesus! Yesus! maitatcen zaitut, maitatcen zaitut! Nundik eni hoimbertce fagore? Ah! Yauna zure amodio neurrigabecoac, ekharri zaitu eneganat, ene bihotzarekin bat eguitera. Ahantsi dituzu ene eskergabeac, ene hobenac, barcatu dauskidatazu, bainan horrec berac erakasten daut ene arimaren belztasuna

eta zure Amodio ecin guehiagococoa. Orai ezagutcen dut nor dudan ene erokeriekin damustatu, Aitaric hoberena, maitagarriena. Cer emanen dozut fagore hunen ordain? Ene arimac bethi benedicaturen zaitu, ene mihiac bethi laudaturen zaitu, ene bihotzac bethi maitaturen zaitu.

O Ceruetan eta ene bihotcean zaren Aita, emaiten naiz ahuspez zure oinetan, zuri dagoen ohore errespetuaren aguertceco, emaiten naiz, zuri ofreitceco ene obediencia, serbitzua eta amodioa. Zu zare ene Aita, zu eguin nauzuna, edirein eta phiztu nauzuna ; zure Seme nahi dut izan, Seme humil eta lehiala.

Ene erokeriec gal araci darate Aita guciz ona, eta bere amodioac edirein nau. Cer bilhatu dut Aitaren ganic urruntcean, nigarra baicen, lana, nahigabe eta probeciaz lagundua ? Ah ! nihun ez da hobeki egoiten ahal, nola zure etchean ô Yesus, zurekin eta zure ontasunekin. Zure escuetan naiz beraz, erakats datazu zure leguea, castiga nezazu, guida eta asca ; beguira nazazu irrichcu gucietaric

eta emadazu zure amodioa eta ceure iduria. O aita! cer ez dizut emanen, eguin datasun fagore hunengatic? Gucia, zurea naiz, ditudan guciekin, ene Amodios errespetu eta adoracionekin. Zu baithan confianza gucia esartcen dut, zure escuetan usten naiz, eguizu nahi duzuna.

Bai Aita, cerbeit atseguin nola nahigabe ethortcen zaitadanean, zure urriçalmenduzco escutic igorriac becela errecebituren ditut; izan nadin atsecabez bethea, nola onguiez, tentacionez asaldatua, nola bakeaz gozatua, zure nahia eguinen dut bethi. Eguin ahalaz zure berthutei yarraikiren naiz, zure Saindutasunac, zure perfeccioneac, phiztuco dute ni baithan saindutceco gogoa, eta haren ardiesteco kharra. Zure botheretic eta ez ene ahaletic, zure graciatic igurikitcen dut hori; emadazu beraz, Yauna, gracia, zure laguntza, eguin nadin Aitaren idurico, creatura bat eguiten ahal den bezambat.

Badituzu oraino, oh urricalmenduco Aita! bertce cembeit haur, zureganic urrum dabiltcenac, zure Etchea

utziz, bici molde gaichtoz zure ontasunaren tchautcen ari direnac. Oh ene Aita ! hec ere ene aurrideac dire, othoi beraz, unki itzatzu, argui itzatzu eta eguizu zureganat itzulditecen cerbait. Urratu izatzu heien bekatuen gatheac eta guida itzu zure artalderat, zure Elizarat.

Emaezu zure etchean eta zurekin bicitceco gracia, emaezu zure leguearen arabera beren urtheac igaitecoa ; finean emaezu zure amodioan biciz, zure amodioan hil eta zu bethicotasunean maitatceco gracia. O Yesus, zurekin nahi dut bici, zure amodioan, zure manuen pian ; ene atseguin gucia zu baithan izanen da eta zure nahia eguitean.

## § II[a]

Eskerrac bihurtcen dauskitzut ô Aitaric hoberena ! ceren eta hoin amultsuki errecebitu duzun zure haur errebelatua, ceure etcherat ekarri duzu, ceure gorphutzaz eta odolaz ascatu duzu ceure ontasunaz aberastu eta Ainguerucі baino besta handiagoa eguin diozun.

Ene bihotzac ez du bertce nahicunderic, ò Yesus! Zurekin egoitea baicen, ez du bertce atseguinic, lanic, losiaric zuri atseguin emaitea baicen. Ez, Yesus, ez naiz munduco zorion eta atseguinen bilha ibiliren, zu izanen zare ene bicia eta bethico zori ona. Ah! ene bihotzac, cer eztitasun gozatcen duen zu aitchikitcean, ene mihiac, cer atseguin, Yesus! icen saindu hau aiphatcean, ene izaite guciac, cer esperantza, erraitean: ene Aita!!!

Ohar zaitez bethi, Yesus, zure erraityetaletaco haurraz, lagun zazu munduco guduca gorrietan, askhar zazu eta harma, etsaien garaitceco, eta bictoríos zurekin bethi erreguinatceco. Ah! ez dezazula, seculan bacarric utzi, erori ez dadin leheneco lecean, bainan guida zazu ceronec Ceruco bidean.

Orhoituren naiz bethi, zure handitasunaz, bicico naiz hemendic aintcina ene sortceari dagoen becela, sainduki; errespetu eta beheratasun handi bat ukanen dut ene aitarentzat, eta maitaturen dut bihotceco amodio guciaz.

O Ceruac! lauda zazue Yesus, ene Salbatzailea! Oh Ainguerual! loria zazue eta Serafin loriosac maita zazue enetzat, orai eta bethi.

## ASTEARTEAN.

*Contsidera zazu Yesus Amultsua zureeracasle dela, eta erakatsi eguien ikas eta eguiteco chedea har zazu erakatz zadazu Yauna, zure legue saindua!*

### § Iª

Oraidaino bici izatu naiz ez-yakitean, guidatua guezurraz, ilhunbetan nindagon; bainan, huna hemen erakasle ecin utseguinescoa, guidari segurra, gucien arguia.

Yesus erakasle handia, argui gucien arguia, zato, guida nazazu zureganaco bidean, argui nazazu arimaco gaucetan eracatz zadazu salbamendua eguiten.

Utziric guezurraren bidea, hautatu dut eguiarena; bainan zato bethico eguia, zureganaco bidean guidatcera.

Dohatsua zuc, eracasten diozuna, dohatsu, zutaz arguitua eta guidatua dena; argui hunec, izar eder bathec becela guidatua helduco da Ceruco borthetarat.

O Yesus arguien arguia! emadazu bihotz on bath zure eguiac behar becela aditceco; adimendua, heien comprenitceco; suhurtcia heien yastatceco, maitatceco eta heiei yarraikitceco: igor zadazu zure izpiritua, bihotzaren sustatcerat, mintza zaitez Yauna, aditcen zaitut.

Yaincoaren eguia comprenitceco, arnegatcen daret munduco yakitate guciei; erran guciei eta guezur guciei; ez dut bertceric ezagutu nahi, ez seguitu nahi, Yesus, zure eguia saindua baicen.

Aldareco ogui sacratuan zare, adimenduaren oguia, ceren ongui errecebitcen zaituztenac bethetcen baithituzu ceure suhurtciaren arguiez; yakitatearen arbola, saindu eta yakintzun eguiten duzuna. O Yauna nahi dut zutaz arguitua eta guidatua izan!

## § IIa

Eguia da, Yaincoaren hitza, Aitaren arguia, Yaincoaren Semea, egun heldu dela, ceru gorenetic eneganat.

Bezte orduz, Profeta eta Patriarca Sainduen bidez mintzatu dena, orai nere arimari mintzatcera ethortcen da. Nor naiz ni, ô Yainco botheretsua ! fagore berezi horren ukaiteco ? Ah ! haur dohacabe bat, hoimbertce aldiz damustatu zaitudana ; hoimbertce aldiz zure eguia arbuiatu, zure dehi eztiac aditu nahi cituena. Ay Yauna, ahalgueac gorritcen nau, ene bihotza urrikietan dago puzkatu nahiz ; miletan barcamendu Yauna galdeguiten dizut ; othoi ahantsi ditzatzu ene uts igaanac, hitz emaiten dizut hemendic aintcina zure eguia sainduei yarraikiren naicela eta zure dehi estiac adituren ditudala. O Yesus argui nezazu !

Nola aski unkitua, miratua, ez naiz egonen, icustean, zuc duzun eneganaco amodioa ! Hoimbertce eskerga-

bez pagatu zaitut, eta oraino ethortcen zare ceruco bidearen eni eracasterat, zure eguia sainduekin ene arguitcerat, zure amodioarekin ene bihotzaren sustatcerat. Yesus! izanic zu infinituki ceure izaitez, zure mayestatearen handitasunaz, ni baino goragoco; eta nic damustatu ondoan ere, eneganat ethorri nahi duzu ene bihotcean zure egoitza eguin nahi duzu. O amodio gucizcoa! Heldu da beraz eneganat erakasle yakintsunena, zoinac baititu suhurciaren gordairic guciac eta Aita Yaincoaren yakitatea; eneganat heldu da ceruco eta lurreco argui gucien ithurburua, nun ere, Ainguerueс eta Sainduec arguitu baitire, eta huntaric urruntcen dena ilhumbetan baitago.

Yesus onac erakasten dituen gauzac, baliosac, premiatsuac eta cerucoac dire. Hurbil zaitez beraz, ceruco erakaslearen gana, eta galdeguiozu bere leguearen ezagutceco fagorea. O Yesus! gauzaric beharrenac ez dakizkit, horrengatic hoin gutti maitatcen zaitut. Ez dut bertutea achaletic baicen ezagutcen, ez dut hunen

barnea sundatcen ahal. Helas! biciki urrun naiz beheratasuna, hilduratcea, pairu eta ene ttippi izaitea ezagutcetic. Biciki urrun zu ô Yesus! ongui ezagutcetic. Ah! igor zadazu zure izpiritua, zure gracia, huntaz arguitua, guidatua ikas dezadan ongui eguia, hari lotceco.

O Yesus, zu yausten zare Cerutic aldarerat, ene bihotcerat, ceure odolaz, hor, eguiaren, eta suhurtciaren izkiribatcera. Ah! daut nehorc, zuc becela arguituco, aberastuco, maitatuco. Zombat gora den zure ontasuna, eta zoin miragarria enetzat duzun amodioa. Ofreitcen dauztzut, ene ohoreac, eta amodioa; adoratcen zaitut, ceru lurraren erakasle Yaincoscoa, maitatcen zaitut, eta onhesten ditudalaric zureeguia sainduac, nahi ditut zureganic ikasi.

Ah! ene bihotza nola aski untsa preparatcen ahal dut zure errecebitceco? Zoinac içan behar baithu, ikastokia, erraiteco alkia eta izkiribatceco liburua. O Yesus amultsua! aphain zazu ceronec, bigun zazu bere gogortasuna, susta zazu bere epheltasuna,

besarca araci zayozu zure eguia, eta argui zazu, garbi ditzan han diren puzuin guciac zure errecebitceco. Zato, beraz oh gucien eracaslea! Zato Yaincosco arguia! Zato, amodio paregabea, suhurtcia bera. Zato Yesus! ene bihotcerat.

## Eskerren bihurtceco.

§ Ia

Gozatcen zaitut beraz ó Yesus ene bihotcean? Cer zorion! cer fagorea! Ah! cer eguinen dut zuri eskerren bihurtceco? Yaus bitez Ceruco Ainguerú guciac ene bihotzerat, zure laudatceco, Serafin loriosac, zure maitatceco, dohatsu guciac zuri gorthearen eguiteco. Bildu bitez ni baithan creatura guciac, hororekin bat eguinic, adora, lorifica, lauda eta maita dezadan Yesus maitagarria! Ni baithan zaudenez guerostic Yainco Aitaren distiadura, arguien arguia, mintza zaitez, argui nazazu, esar zazu zure leguea ene bihotcean ecin borratuzco moldean. Huna hemen zu bai-

than ene bihotza, emaiten dautzut ikasle becela; erakats zayozu, zure maitatcen, zure cerbitzatcen, zuri atseguin eguiten; bera eta bere nahia ez behinere bilhatcen, bainan bethi zureari yarraikitcen. Eracats zayozu, gurutcearen eta hilduratcearen besarcatcen. Yzan bedi Evangelio Saindua, haren erreguela, aborri eta hastiaturic munduco atseguin igancorrac, zapaturic urguilluac, maita ditzan Ceruco zorion paregabecoac, eta heren ardiesteco, obra onac; esar dezan ô Yesus! zu baithan bere loria eta bere azkena.

Emaiten naiz ikasle becela, huna hemen ene adimendua; erakats deraucozu zure ezagutcen, zuc becela eta ez bere arabera, gaucen iuiatcen; urratu zazu ilhunbetan daukan estalkia, zoinac ez baiterauco usten, lurreco gaucen ez deuskeria ezagutcen, eta Cerucoen handitasuna, becatuaren belztasuna eta bertutearen edertasuna, munduco gaucen bilha dabiltcenen herokeria eta Cerucoac chercatcen dituztenen suhurtcia. Emaiten naiz gucia, zure ikasle, huna hemen

ditudan guciekin. Ene memorioa, zutaz maiz ohartcen ikasteco ; ene sentsuek zure leguearen arabera bicitcen ikas dezaten. O Yainco ona ! Zuri baicic ez dago, ni Yaincosco gaucetan yakintsun eguitea, ceren zu zaren adimenduaren eta yakitatearen emaillea. Aspaldi huntan zure ikas-tokian nabill, aditcen ditut zure hitzac, halaric ere, ni baithan da bethi ez yakitea. Orai bedederen, argui nazāzu, Yesus, othoizten zaitut ; borratu itzatzu lehenic, munduaren erranac, horiec ilhundu dute ene adimendua, lilluratu ene bihotza, eta enganatu ene arima. Astiatcen ditut eta zuri nago osoki Yainco ona. Nahi ditut zure hitz sainduac Israeldarrec becela, ene bihotcean eraman ; marka zazu oh Yesus ! ceronec legue Sain-dua, ene beguietan, bethi biztan ukan dezadan ; escuetan, bethi lehialki beguira dezadan. Marka zazu alaber, guiriztino gucien bihotcean, aguer zaezu ilhunbetan ehortciac daudenei, amoregatic eta oroc legue Sainduaren arabera biciz, zure laudatceco eta maitatceco.

§ II[a]

Eskerrac bihurtcen diztzut, Ainguerruen eta guizonen Eracasle divinoa, ceren ethorri baitzare, eneganat zure legue Sainduaren erakastera. O Yainco guciz ona ! icusten duzu ene bihotza cer beharretan dagoen, othoiz eztzatzulit utzi. Baldin urtcen badire ni baithan oguiaren iduriac, gueldi zaitez bethi zure graciaz. Izan zaitez bethi ene arguia, ene guidaria Ceruco bidean. Ohar zaitez ene ilhunduraz eta argui nezazu, amoregatic ez nadin bethico ilhunbetan erori.

Horhoituco naiz Yauna, zuc erakatsi gaucez ; munduaren arbuioaz, eta gurutcearen besarcatceaz. Urrun eneganic Baalen prophetac, munduco yakintsun faltsoac ; urrun eneganic urguillu eta handitasunaz mintzo direnac, nic ezti eta aphal Yesus onarekin bici nahi dut.

Hitz emaiten dizut, ô Yesus ! ez dudala bertce gauzaric ikasi nahi zure legue saindua baicen, bertceric zure maitatcen eta zure berthutei paregabecoer yarraikitcen baicen, ô Yesus ! maitatcen zaitut, bihotz guciaz. 15

## ASTE AZKENEAN.

*Considera zazu, Yesus ona, heldu dela zure bihotcera, Sendatzaile becela, galdegiozu Arimaco ozazuna: Nahi baduzu Yauna, sendaturen nauzu.*

### § Ia

O zoin dohacabe naicen! Zombat eritasunez ez othe dago ene arima cutsatua! Dembora berean itsutua, gorthua, mutu eta zauriz estalia aurkitcen da. Ah! norc eritasun horietaric sendatcen othe du? Zu izanen zare Yesus ene sendatcerat Cerutic yautsico zarena. Ez naiz gai zure errecebitceco ene atherbean. Yaun ona, bainan hitz bat errazu, eta sinhesten dut eritasun gucietaric sendaturen nauzula.

Zatoz beraz, Yaincozco Sendatzailea; zatoz, urrical nezazu icustean gucia zauriz estalia nagoela. Zu baithan dut esperantza gucia, ceren Aldarean zaren arimaco eritasun gucien

erremedioa. O Yesus! ceronec prepara nezazu, erremedio balios horren errecebitceco, ceinac emaiten baitu arguia, indarra, osasuna eta bicitce bethierecoa. Nahi baduzu, garbituren nauzu; nahi baduzu, arguituco nauzu, bortiztuco eta osoki sendatuco. Zato beraz, Yesus, arimen yanaria, arimen erremedioa eta contsolamendua! Zato, ene arimarat, eta eguizu han zure egoitza.

§ II[a]

Amodiozco sendatzailea, ceru gorenetic, ene zaurien handitasuna ezagutcen eta icusten duzuna; zuc, choilki sendatcen ahal nauzu, ez da mundu huntan bertce sendatzaileric, ez erremedioric, ni sendatceco gai denic. Zuretzat aldic gauzaric errechena da, errazu hitz bat eta sendatua izanen naiz.

Bainan, nola menturatu fagore hori galdeguiten, yadanic hoimbertce arbuiatu ondoan! Eguinen othe datazu gracia berri hau? Ceren ene indar guciac ezarri ditut etsaien cer-

bitsuan, golpatu naiz zure contra aitchiki dutan guerlan, eta zureganat dehitu nauzunean, ere, urrundu naiz. Sorthu duzu ithurri salbagarri bat becela, cembeit aldiz ene bihotcean becatuen urrikia, bainan, utzi izatu dut astio handi bathekin. Cer Yesus! sendatu nahi othe duzu arima eskergabez cikindua? Badakit eta aithortcen dut, ez dudala mereci; bizkitartean, zure amodio paregabeac ni baithan esperantza phizten du.

Ceren, certarat ethorri nahi duzu eneganat beztetarat, sendatcerat baicen? Certaco eguin dituzu hoimbertce espantu famatu ni zureganat hurbil araciz sendatceco baicen? O Yesus, horiec guciec diote nahi nauzula osoki sendatu.

Bertce orduz yoaiten cinen erien cherca, aski cen zureganat hurbiltcea sendatua izaiteco, uste dut bothere horrec berac sendaturen nauela, ceure amodio handian eneganat ethorri nahi duzunaz guerostic. Helas! aski herro izatu naiz orai artheio, zureganic urrun ibiliz, bainan utziz leheneco ene herrokeriac, hetaz

bihotza saurtua, arbuiatcen ditut, hala nola astiatcen baitut ene bici molde igaana. Barcamenduaren galdez nago Yesus amultsua! ceren cin cinez zure erremedioaz nahi dudan baliatu. Ez da sendatzaileric, zu baicen, bere gorputzaz eta odolaz, eria askartcen eta sendatcen duenic; ez da sendatzaileric bere bicia, ene osazuna bortizteco, eman duenic. Bainan, zuc ô Yesus guciz ona, ene amoregatic eman duzu zure odola, eman duzu zure bicia. O ecin comprenituzco amodioa! o ontasun mugaric gabea!

Cer igurikitcen duzu Yauna eneganic? ez dakizu bada, ez deus bat, probe escale bat naicela? Ah! ez duzu cerbaiten ukaitearen gatic emaiten arimaco bakea, bertce alde, zuregana hurbiltcen direnac, ceure ontasunaz aberasten dituzu eta dohatsu eguiten. Nork aski miratuco du, aldarean aguertcen duzun ontasuna? Sartuco naiz fede bici bathekin zure bihotz sacratuan eta icusiren dut cer eguinen dautan. Ycusten dut ene eritasunentzat duen urricalmendua, ene

sendatceco duen chedea, enetzat duen amodioa ; icusten dut ere eman nahi dautan erremedio baliosena, bere gorputza eta odola.

Gorputz saindua hilduratu zuen, odol sacratua ichuri zuen, ene neke eta pairuac, nahigabe eta arbuioac bere gain arthu cituen, ni sendatceco eta salbatceco. Ontasun ecin guehiagocoari, ekarriren diot amodio khartsua, ohoraturen dut sendatzaile miragarria, ezarico du confiantza haren yakitatean eta behar ordu gucietan ukanen dut harenganaco lehia. Zato beraz ô Yesus ! gucien sendatzailea ; zato eri den probe hunenganat ; senda zazu karitate escas gucien eritasunetic, urguiluzco ideietaric, eta amodio behar ez den gucietaco sugar gaichto gucietaric. Emadazu Yesus, aphal, lehial eta garbi bicitceco erremedioa. Zato Yesus, eta sendatua izanen naiz.

## Eskerren bihurtceco.

### § Iª

Ni baithan zare Yesus, ene sendatzailea. Nola eskerrac bihurtu eri

probe hunen bisitatcerat ethorri zarelaco! Oraino, ethorri izan bacen zure serbitzari bat, bainan zu Yauna ceure gracia eta erremedio guciekin. O Ceruac! lauda zazue zuen edertasuna; creatura guciac canta zazue haren loria.

Beha zazu Yauna, etsaiac ene ariman eguin dituzten zaurien handitasuna; icus zazu nola golpatu duten, urgulluac, colerac, lohikeriac eta bertce etsaiac; icus zazu zombat galdua dagoen ene bihotza, lilluramendutan adimendua, zombat gogoeta ni baithan, eta zombat nahasmendu sentsuetan. Horiec oro, bathean ni baithan caucitcen dire, nun zuc Yauna, sendatcen ez baduzu, bereac eguin du. Senda nazazu Yesus, zure icen sainduaren botherea aiphatceco, zure lorificatceco. Bertce orduz zure hitz eta unki bathec hoimbertce eri sendatu bacituen, nola orai, zure gorputz sacratua, zu Yaincotasuna bera, eneganat ethorri, ni baithan zaudenez guero, ez nauzu sendaturen? Nahi dut Yauna sendatu, eguizu nitzaz nahi duzuna; pica eta pusca

zazu, zure escutan naiz; mana zazu nahi duzuna, atseguin horren kentcea, ocasione horren picatcea, gorputzaren hilduratcea, eguinen ditut zure gracia sainduarekin.

O ene Yesus! sacramendu huntan, ene sendatzaile eta erremedio eguin zarena, izan zaitez, ene salbamendua, indarra eta ene bicia, gueldi zaitez enekin bathasunean eta sendaturen naiz. Eguizu Yauna zure egoitza ene bihōtcean, eta han den passionen sugar gaitza hilen duzu; gueldi zaitez ene penzamenduan eta gogoeta gaichtoetaric sendaturen nauzu; gueldi zaitez ni baithan eta gucia sendo eta askar izanen naiz. O Yauna! cer emanen dizut hoimbertce fagorengatic, ethorri zare ene bihotcerat, aberastu nauzu, zoriona emandatazu; helas! ez da ni baithan gauzaric, zuri emaitz on bat eguiteco gai denic. Bainan enekin zaudenez guerostic, ofreitcen dauskitzut ceure perfecioneac, ceure handitasuna, loria eta botherea, ecin guehiagoco amodioa, eta saindutasuna. Ofreitcen dauzkitzut, aingueru gucien ohoreac, dohatsu gucien ado-

racioneac eta creatura gucien laudarioac. Yzan zaitez Yesus, mihi guciez laudatua, bihotz gucietaz maitatua orai mundu huntan eta bethi, bethi zure lorian. Horra beraz eritasun gucietaric sendatua, cer eskergabea litzaken enea, berriz erori banedi eritasunean, becatu gaichtoan.

Artha handi batekin Yauna, nahi dut osazuna beguiratu zoina baitha, caritatea, beheratasuna, garbitasuna eta modestia. Hitz emaiten dizut Yesus guciz ona, hemendic aintcina, guelditurен naicela zure graciarekin, becatu eta haren iduri gaucen eguitetic. Hitz emaite dizut, zure bertutei ahalaz yarraikiren naicela, zure laguntzarekin.

O Yauna! icusten dituzu bertce ainitz eri mundu huntan, sendaitzatzu hec ere, zurekin izan ditecen orai eta bethi.

## § II[a]

Ez dut gogotic kenduco Yauna, niganat ethortcean eguin datasun fagorea. Eman datazu zure gorputz

saindua, ene eritasunen erremedio becela, miletan eskerrac bihurtcen dauzkitzut. Yzan zaitez ceure obraz laudatua, Ceruco izarrez, nola lurreco loreez ; egunaz nola gauaz, orai eta bethi. O Yaun soberanoa ! zure amodioac ez beztec izan behar zuen cerutic nigana yaus arazteco. Zu, Aita Eternalaren loria, Aingueruen Erreguea eta Ceruaren edertasuna !

Adoratcen zaitut eta maitatu nahi zaitut, Serafinen amodioarekin ene ongui eguile handia.

O Yesus ! egon zaitez bethi ene bihotcean, ceren cer naiz zu gabe? zure gracia gabe flacoa, laster eritu eta hil nindekena. Zu gabe erori nindeke leheneco sugarrean, pasioneen suan, eta guidatcen ez banauzu, becatuac galduco nau eta ithoco. Beguira nezazu beraz hiltcetic, ô biciaren arbola, eta utz ditzatzu ene bihotcean erro onac. O Yesus ! eguidazu gracia creatura gucietaric berechturic, sentsuec hilduratuz eta ocasione gaichtoetaric urrunduz, ene arimaco eguinbideri yarraikitcecoa, eta zu baithan biciz, guero zurekin bethi gozatceco.

Yzan zaitez Yesus, bethi laudatua eta maitatua.

## OSTEGUNEAN.

*Contsidera zazu Yesus ona, heldu zaitzula Arzain on bat becela, ardi errebelatuaren bilha ; orhoit zaitez zu zarela ardi hori, eta itzuli zaitez Arzainaren ganat.*

### § I[a]

Ni naiz ô Yesus ! ardi galdu hori, mortu ilhun huntan otsoaren basca izaiteco irricheuan nagoena ; urrical nazazu ô Arzain ona. Dehadarca egonen naiz ene bacartasunean ene arzainari, eta ez naiz guelditu, arrocari nigar eguin araciric ere, erraitetic, Yauna, cherca nazazu, zato, athera eta salba nazazu !!! O ene arimaren arzaina, aspaldian ene bilha ibili zarena, aditzatzu ardi probe hunen nigarrac ; zato Yesus, lecu icigarri huntaric atheratcerat, ez otsoaren fuliari utzi, bainan carraya zazu ceure artalderat.

Orai ezagutcen dut Yaunaren ganic urrun ibiltcea cer den, cer ikasten eta cer yaton den bicitce izpiritualaren pusuin hiltzailea.

Zureganat heldu naiz, Yesus, utziric becatorearen basca galgarriac; zureganat ceren ene lehialtasun escasa barcatuz, zure ardi onen lombrean condatu nahi bainauzu, sendatu eta ceure odol sacratuaz ascatu.

O Ceruco ascurri gozoa! Yaincosco yanaria! norc zutaz aseco nau? ardi errevelatuaren pare, goseac dago, Yesus, ene arima. Garbi nezazu, zu errecebitceco, ene arimaren yanaria, gostu guciac dituzuna. Zuc bortizturen nauzu, ascarturen eta finean salbaturen. O Yesus! zato, ene arimac errecebitu nahi zaitu.

§ IIa

Zu Yesus guciz ona ethortcen zare eneganat. Zu, ni probe eta becatoros bat baitharat. Nundic heldu zaut bisita saindu hau! nola ene hobenac ez zaituzte guibel arazten! Damustatu zaitut itsuzki, urratu ditut zure

bihotz eta arima, osticatu ditut zure legueac, arbuiatu zaitut ô ene Salbatzailea ! eta urrun zureganic ibili naiz. Cer eguin dut ? ene hitzez, ene manera gaichtoz, ene burua hobenaz cargatuz, bertce cembeit ekarri ditut zure etsai eguiterat zureganic berechterat. Hala ere, ô amodio ecin compreniturzcoa ! horiec oro ahantsiric, ene cherca zabiltce. O ontasun miragarria ! zure ardiac, ceruco saindu eta dohatsuac dire, Elizaco arima yustuac, horiec zure nahia eguiten dute, horiec maitatcen zaituzte, utz zazu beraz zureganic ihes eguin duena lecearen solan pulunpatua. Bainan ez, diozu, cerucoac ceruan utziric, artaldecoac beren bascan, nahi dut errevelatu hori chercatu. O amodioaren botherea ! horra cer eguiten duzun. Unkitua zure ontasunac, Yauna, cin cinez nahi dut ene eskergabea borratu eta zuri contsolamendu bat eman. Chede horrekin heldu naiz Yauna zureganat, beguitartea ahalgueac gorritua, bihotza, urrikiaren ezpataz igaana, zuri ene hoben gucien barcamendu galdeguiterat. Se-

culan guehiago Yauna, zure graciarekin ez dizut ezpacaturen, bainan nahi dut egon zure manuen pian.

Norenganat yoaiten ahal naiz, zure artha eta amodioa utciz ? Zuc maitatcen eta guidatcen dituzu, zure beguiac bethi heien beha daude, irrichcuetaric beguiratceco ; ascatcen dituzu, yanari gozoenaz, igortcen dituzu eta guidatcen bicitce bethiereco emaiten duten ithurrietarat ; pausatceco atherberic hobeena chercatcen darezu, zure bihotz sacratua ; eri direnean sendatcen dituzu, eta otsoaren aztaparretaric libratcen dituzu. Ceure gorputz sainduaz eta odol baliosaz ascatcen dituzu ; heiekin bici nahi duzu, heien nahigabe guciac yasanez. Yauna, eguin nezazu horien lombreco.

Bai ardi errebelatuac ere bereac ditu, heientzat yausten da cerutic aldaretarat, eguiten da bictima eta zabaltcen dare bere bihotza. Ah ! Yauna enetzat hoimbertce eguiten duzuna, emaiten dizut ene bibotz gucia, ene amodioa, nic ditudan guciac.

O arzain ona! luzaz ibili zare ene cherca, azkenic edirein duzu; huna hemen zure oinetan urrikietan sarthua, hor eguin nahi du bere egoitza eta ez du zureganic berechtu nahi; nigar eguin cenduen galtcean, contsola zaitez edireitean. Zato ene Yesus ona! errecebi zazu, eta eguin zaitez hunen yabe, aitchiki zazu bethi zeurekin. Zu zare ene yanaria, ene bicia! Sar zaitez ni baithan, ni sar nadin zure bihotz sacratuan.

## Eskerren bihurtceco.

### § I.

O Yesus! Yesus! maitatcen zaitut, eta bihotz guciaz! eneganat yautsi zare, probe eta ardi zorigaitzezcoaren gana; cer emanen dizut fagore hunengatic? Mila amodio, mila adoracione, laudario eta esker. Ofreitcen dauzkitzut ene bihotceco amodioaren marca guciac, errendatcen dauzkitzut ohore eta adoracioneac. Ceruco Serafinec enetzat maita zaitzatela, Aingueruec lauda, eta dohatsuac adora; creatura

guciec altcha bitez zuri ene phartez eta enekin eskerren bihurtceco.

Hemen zaudenez gueroz, icus zazu Yauna, zoin eri naicen, zoin itchu, gose eta flaco ; icus zazu zoin urguilluza, arima eta arroa naicen ; senda nazazu zure erremedio onaz, argui nazazu zure Yaincotasunaz; ase, zure gorputz sainduaz eta dohatsu zure graciaz. Ah ! erran cinduen, es tzaitzula Aita Eternalac eman ardietaric nehorc ebatsiren, ez utzi othoi ene ebasten, ez muduaz ez eta haren atseguin igancorrez. Uste dut Yauna zure ardietaric naicela, bainan hala ez balitz ere, othoi Yauna, enetzat hoimbertce duzunaz gueros, enetzat zure odola ichuri duzunaz gueros, eguin nezazu, nic ez mereci izanic ere, zuretaric bat ; emaizkidatzu behar ditudan bertuteac, inocencia, lañotasuna, eztitasuna eta obediencia, eta marca nezazu zeure odol sacratuaz. Orhoit zaitez ene arimaren salbatceco eguin dituzun lanez, ene edireiteco eman dituzun urhatches, eta cerurat eramaiteco sacrificioaz, horien merecimenduez othoi aberas nezazu.

Arzain maitagarria, zu zare ene esperantza, ene salbamendua, zuri osoki emaiten naiz. Eguizu nitzaz nahi duzuna, eguiteco chede cin bathekin nago ; mana zazu ene bihotcean. Ah ! ez zaitut bethi ezagutu eta bethi obeditu, zureganic urrun ibili naiz eta bertce artzainen peco. Hitz emaiten dizut, ez dudala bertceric ezagutuco , bertceric obedituco zu baicen ; bertceric maitatuco eta bertcei yarraikiren zuri, Yesus ona ! baicen. Zure amodioac ecarri zaitu eneganat nitzaz yabetceco, ar nezazu beraz, gorde nazazu zure bihotcean, hor eguin nahi dut ene egoitza, hor nahi dut bici eta hil.

Orhoit zaitez Yauna, ceure Elizaz, beguirazazu hereticoen otsoen pareco errabiatic, guida zazu, bortiztu eta emenda zazu bere ardien lombrea. Elizaco, arzainac gomendatcen dauzkitzut, argui itzatzu heien adimenduac, susta zure amodioan heien bihotzac, guida dezaten bide segurretic Ysrael, zuc hitzeman lurrerat, bethico loriarat.

## § IIª

Yesus ona, ascartu duzu ene arima flacoa, zure gorputz sainduez, berotu duzu eta sustatu ene bihotza zure odol sacratuaz, cer itzulico dautzut ontasun horrengatic ? Probe nintcen eta aberastu nauzu, eri eta sendatu nauzu, triste eta contsolatu nauzu, hitz batez, errecebitu nauzu amodio handienarekin. Othoi Yauna, ez ni abãndona, zu gabe galdua naiz, etsaiac errabian altchaturen dire ene contra, araguia bere pasionen suarekin, mundua, bere erran gaichtoekin eta debrua bere maliciarekin. Othoi Yauna, zaude enekin, zurekin guducaturen dut, zurekin ascar naiz eta gucia eguiten ahal dut. Yauna, nic ez zaitut utzico, arnegatu dut mundua zurekin egoiteagatic, astiatcen ditut haren atseguinac, zureac yastatceagatic, bethico haren ganic berechtu naiz, zure baithan bethi bicitceagatic. O Yesus ! zurekin beraz egon nahi dut, zure peco, zure manuac eguiteco. Zu zaren tokian, bethi caucitcen da, bakea eta zoriona, alegrancia eta bos-

carioa ; Yesus, Aingueruen compañian, creatura guciekin, nahi ditut cantatu zure misericordiac, nahi zaitut laudatu ohoratu eta eguin ahal guciez orai maitatu, guero ere maitatceco eta laudatceco.

## OSTIRALEAN.

*Contsidera zazu, Yesus arerostzaile becela heldu zautzula, Satanen gathibotasunetic libratuz, bere gathibo eguiteco.*

### § Ia

Orai arteio satanen eta pecatuaren peco egotu naiz, bainan huna hemen nun heldu den ene libratzailea, Yesus ene salbamendua. Egonen naiz haren igurikitcen eta ukanen dut haren gathibo eguiteco nahicunde handi bat.

Atseguin igaancorren gatic, ohore aiceac daramanaren gatic eta ontasun puchca bathegatic, herrotki eman naiz satani, haren lagunei eta eguin naiz heien cerbitzari, heien

gathibo. Zato Yesus, ene gatheen ethentcerat, becatutic yaiki araztera. eta zure haurren lombrean ezartcerat Ahalguezco gathibotasunean nago, ene costuma gaichtoen pian, ene guticia zarrac lothu eta amarratua; autsico ditut horien locarriac, zure graciarekin, garaituren ditut etsai horiec eta libraturen naiz.

Zato Yesus ona, libra zazu etsaien aztaparretan dagoen zure odolaren balioa, argui zazu ilhunbetan dagoen arima ceure graciez, eta areros zazu zure sacrificio miragarriaz.

Altchatuco naiz Yauna, aspaldian nindagon estadu zorigaitcezcotic, autsico ditut ene costuma gaichtoen locarriac, eta gathe pezu horiec utziric, zureganat ethorrico naiz.

Bai Yauna, zu baithan caucituren dut ene pausea, bakea, eta zori ona; zato beraz, ichur zazu zure odola ene arimaren gainera eta dohatsu izanen naiz.

§ IIª

O Yesus, cer ontasun paregabea

aguertcen dautazun ! Yausten zare egun cerutic aldarerat, ni, etsaien errabiatic libratceco ; aingueru bat igortcen ahal cenduen, bainan ceronec nahi nauzu, zure haur eguin. O cer ontasuna ! cer amodioa !

Yadanic ene arerosteco hoimbertce pagatu cenduen mundu huntan, zure lanac, neke, icerdiac, zure sofricari icigarriac ; pagatu cenduen aitaren iusticiari, Olibetaco baratcean ichuri cenduen odolaz, eta ucan cenduen agoniaz ; pagatu cenduen, ene amoregatic, sokaz lotcen eta errestatcen utzi cinenean ; pagatu cenduen azpian egotu cinenean ; pagatu cenduen gurutcean itzatzeco, besoac zabaldu cinucenean. O Yesus ! oraino ez da hortan guelditu, enetzat duzun amodioa, gurutcetic aldarerat ethorri zare, ceure merecimeduekin Aita Yaincoaren iusticia apaceguatuz eta nic darozcotan zorrac pagatuz, gathibotasunetic libratceco.

Mundu huntaco Erregueac eilharrez edo bertce cembeit gaucez baliatcen dire hobendunen libratceco, bainan zu, emaiten zare enetzat dituzun

guciekin, zure misericordia eta botherearekin, zure ontasun eta aberastasunarekin; emaiten zare Aita Eternalari ni libratceco, zure Yaincotasunarekin berarekin. O Yauna, nola enetzat, becatoros dohacabeenentzat, horiec horo eguiten dituzu? Cerk hortarat ekartcen saitu? Ah! zure amodioac eguiten ditu espantu horiec eta guehiago eguinen ditu.

Munduco erreguеac, arerosten dituztenac igortcen dituzte marca ahalgue garri bathekin, zoinic baithire comunski zauriac probecia eta gose egarriac; zuc aldiz sendatcen dituzu ene zauriac, aphaintcen nauzu zure graciez, aberasten nauzu zure onguiez eta asetcen ceure gorputz eta odol sacratuez. Erregue horiec berehala igortcen dituzte edo aitchikitcen beren gathibo; zuc Yauna, gordetcen nauzu ceure etchean, ascatcen nauzu ceure mahainean eta ceure yanariaz. O Yaun guciz ona! norc ez tzaitu maitaturen! Emaiten dizut ene amodio gucia, emaiten naiz osoki zure cerbitzuco, eta ene bici gucian zu izanen zare ene nagusia, ni aldiz zure languilea.

Zato beraz, Yesus, ene esperantza, zato becatuaren gatheetaric ene libratcerat, zato etsaiaren escuetaric arerosiz zure haur eguiterat. Zureganat Yesus, heldu naiz, ene hobenen urrikiarekin, bihotceco amodioarekin eta zurekin bethi egoiteco chede cin bathekin.

## Eskerren bihurtceco.

### § Iª

Ni baithan zaude, ene bihotzaren erdian Yesus guciz maitagarria. Ah ! nola eguiten ahal othe duzu zure egoitza bihotz ilhun eta cikin huntan. Ene arimac zure beguietan untsa balios izan behar du, fagore handi eta seinalatu hunen eguiteco. Norc ez du miraturen Yainco guciz bothe-retsuaren ontasuna, eneganat ethortcean. Laudatua izan bedi bethi, enetzat hoimbertce caritate ukan duen Yauna ; Aingueruac eta Sainduac lauda dezatela bethi , ceren nic ahal guciac eguinic ere Yauna, deus gutti, izanen da zuretzat. Emaiten naiz Ye-

sus, zure oinetan ahuspez, tchucaturen ditut ene urrikiaren nigarrekin, ene ezagutza nola bait zuri aguertceco. Bihurtcen dauskitzut eskerrac ene bihotz guciaz, enetzat ukan duzun amodio neurri gabecoaren gatic. Ofreitcen naiz eta miletan ofreitu nahi nuke zure serbitzari eta gathibo becela; aithortcen dut goraki, ene gorputzez, arimaz eta biciaz zuri eskerren bihurtceco, bictima eguinic ere, seculan ez dudala zuretzat aski eguinen.

Nun nintcen orai, neurri gabeco urricalmendua enetzat ukan ez bacenduen? Aspaldian ehortcia ifernuaren errailetan, pulunpatua haren solarat; aspaldian ene etsaiez ebatsia eta beren gathibo eguina. Ene eguinbidea handienetaric da, ceren bertce cembeit nic bezanbat hobenic gabe ifernuan dauden, eta ni hemen zure bihotcean. O ene Yainco Salbatzailea! ene gatheen picatcerat ethorri zarenez gueroz, libra nazazu ene etsai gaichtoetaric; ez othoi utzi becatuaren pian, yadanic desmaci handiac eguin baithitu ene ariman; picait-

zatzu ene bicio, pasione eta costuma zar guciac ; pica itzatzu ene eguinbideac bethetceco eta bertuteari yarraikitceco dudan lazakeria.

O Aita Yaincoa ene baithan da zure Semearen gorputza, ofreitcen dizut bictima saindu hau, ene becatuen barcamendutan eta ene arerosteco ; ofreitcen dizut Calvarioan ichuri izan tzuen odola, ifernua garaituric, gathibotasunean ceuden arimac gathibo Cerurat eraman cituena. O Yesus ! libra nazazu gathiboen artetic eta ezar nazazu zure haurren lombrean. Emaiten dautzut ene adimendua, zutaz osoki arguitua izaiteco ; ene nahia, zureari bethi igual arazteco ; ene sentsuec, eguitzu zure gathibo, esar tzatzu zure azpian, esteca tzatzu amoregatic ez diteien arimaren contra altchatu. Etsai gucietaric zureganat ekarri ondoan, Yauna, esteca nazazu ceuri amodio garbizco eta ecin autsizco locarriaz ; ene adimendua zure eguiaz, ene nahia zure iusticiaz, ene sentsuac zure hildurapenez. Zure ganat ekharri nauzunez gueros, zure cerbitceco naiz, marca nezazu beraz

zure odolaz ez nadin errebela eta galdu.

Orai erraiten ahal dut, Yesus maitearen gatibo naiz, Yesus onaz garaitua eta haren menean ezarria. Yesus, zu zare ene yabea, gueros gucia zuri emaiten naiz, zure manuac behatuco ditut, zure ustarria carrayaturen dut. Ez dut bertceric cerbitzaturen, ez urguilua, ez medicencia, ez yeloskeria, bainan Yesus eta haren bertuteac. Zoin dohatsu nahi cen Yesus onarekin, Yesus gabe, ifernua da, Yesusekin Parabisua. Norc beraz berechten ahal nau haren amodiotic? ez munduco atseguinac eta ontasunac, ez munduco nekeac, penac eta nahigabeac, ez eta ere beheratasunac eta arbuioac, ez goi ez aphal diren gauzac ez naute Yesus onaren amodiotic berechturen. Yesus amultsuarekin nahi dut bici eta bethicotasunean gozatu.

Othoizten zaitut ene Salbatzailea, emaezu zure haur guciei zure librantza, athera tzatzu Satanen aztaparretaric, becatu gaichtotic eta esar ditzatzu Evangelio Sainduaren pian.

Gomendatcen dauzkitzut bereciki N..... Yauna izan zaitez aldarean, bethi adoratcera maitatua eta laudatua.

§ II[a]

Berriz ere arerosi nauzu Yesus, sacramendu huntan bictima enetzat eguinaz eta sacrificio miragarriaren frutuac enetzat Aita bethicoari ofreituz. Eskerrac bihurtcen dauzkitzut fagore seinalatu hunen gatic.

Orhoit zaitez Aita ona, zure Seme Yaincoaz berriz ere arerosia naicela, ez nezazula utz etsaietarat erortcen, bainan gorde nazazu zure urricalmenduaren aldean. Ez dut guehiago Yesus onaren odola galduco, arbuiatuco, ez dut guehiago abandonatuco.

Urrun eneganic munduaren handitasunac, atseguinac eta aberastasunac, urrun haren arinkeri eta alegrancia hobenezcoac. Urrun eneganic munduaren hele eta manera lillugarriac. Arnegatcen ditut, Yesus ! mundua, debrua eta becatua ; ez dut heien azpico izan nahi, bainan hec

garaituz zure peco eguin nahi dut. Zurekin beraz Yainco ona, bici nahi dut, zure legue sainduaren arabera, aphal eta modest ; zuc igorri gurutceac carrayatuz, pena nahigabeac zure amoregatic yassanaz. Zure bertutei ahal guciaz nahi dut yarraiki, guero zurekin lorian izan nadin. Izan zaitez Yesus, maitatua, adoratua eta laudatua.

## LARUNBATEAN.

*Contsidera zazu Yesus heldu dela zure arimaren espos becela, bathasun miragarria eguiterat.*

### § Ia

Huna hemen nun heldu zautan ene Yaincozco espos ona ; altcha eta yoanen naiz biderat, garbituco dut lehenic ene arima, aphainduco dut eta edertuco. Bainan Yainco ona nola garbitu hoimbertce demboran cikina dagoena ! nun edireinen dut zure ongui errecebitceco arropa churia ! Zurea da Yauna ene garbitcea,

zurea ene arimaren ceure graciaz eta merecimenduez aphaintcea.

Hil zaitez, enekin batasun miragarriaren eguiterat, ene zoriona, ene loria bera. Cerutic yausten zare aldarerat, handic ene bihotcerat ethortceco, ni baithan zure egoitzaren eguiteco, eta nic zu baithan. « Ene araguiā yaten duenac, diozu, eta ene odola edaten duenac, ni baithan du egoitza eta nic hura baithan. » O bathasun miragarria ! Yainco bat guizonaren bihotcean, eta creatura ez deus bat Yaincoarenenean ! handitasuna, aberastasuna eta saindutasuna bera, bihotz ttipi, probe eta becatuzcoan ! Zato Yauna eneganat, emadazu zure gracia eta aberastuco naiz ; zure amodioa eta sainduтuco naiz. Zato Yauna, ene arimaren bakea, zoriona eta bicitce bethicoa.

§ II[a]

Erregueen Erregueac galdeguiten nau, eta nahi du eguin bathasun bat, osoki saindua, Yaincozcoa. Erregue gucien gainecoac, cere den infinituki

suhurra, iustia, ona, saindua ; infinituki aberatsa, bothere tsua, eztia eta urricalmenduzcoa. Bainan Yauna nola nahi duzu zure perfecione guciekin, bihotz probe huntarat ethorri ? O amodioaren indarra , aphaltcen duzu mayestatea bera eta ekartcen duzu guizon hobendun bathen bihotcerat ! Nitzaz orhoitcen zare Yesus, hoimbertce eskergabez damustaturic ere ! Ah ! zombat gracia yadanic ez ditut errecebitu zureganic eta guciac arbuiatu ditut ! zombat dehitce ezti, bihotcic gogorrenac ukitceco eta cambiatceco gai cirenac ez ditut errecebitu, eta hetaz ez naiz bathere baliatu ! eni biciaren emaiteco, hil zare ; ene eritasunac sendatceco, zauriz estali zare , zure graciaz aphaindu eta edertu nauzu, zure ontasunaz aberaztu nauzu eta horien gucien gatic, lehialtasuna galdu dizut, utzi zaitut, astiatu zaitut , madaricatu zaitut. O eskergabe gastigu guciac mereci dituena ! Eta horien belztasuna ezagutuz eta lombrea , berriz ere eneganat ethortcen zare ! Yainco ona ! Bada othe amodio yene-

rosagoric? Ah! erortcen naiz, Yauna, zure oinetarat, barcamenduaren galdez, ceren ene eskergabeac goren gorenerat igaan baithire; bihotza sahurtua, barcamendu berriz galdeguiten dizut; barca ene amodio escaza, ene bihotceco ostasuna eta epheltasuna. Hitz emaiten dizut, lehenago cer nahi nahiago dudala pairatu ecen ez zu berriz damustatu.

Urriki dut Yauna, ezagutcen ene hobena, badakit ez dudala barcatcea mereci, bainan zure Prophetac phizten du ni baithan, zure alderaco confianza, « Yaunac ez du arbuiatcen « bihotz urrikietan sarthua.» Erraiten datazu oraino bertce batez « izanic ere ene arima belztua, zureganat itzultcen banaiz, eguinen duzula elhurra bezain churi. » O Yauna garbi nazazu ene eskergabe gucietaric, ceren ez guehiago eguiteco chede cin bathekin bainago.

Zato beraz Yesus, ene bihotcerat, zato ene consolatcerat. Sar zaitez ni baithan eta eguizu zure bihotz sacratuaren idurico, susta zazu zure amodioan.

## Eskerren bihurtceco.

§ I[a]

Bihotcean dut amodio saindua, Yesus ni baithan da ; adoratcen, laudatcen zaitut. Zurea dehitcen naiz gucia, zuri emaiten naiz gucia, errecebi nezazu zure bihotcean.

Ez dezazula ene arima utz lehialtasunaren golpatcen, bainan bortiz zazu zure amodioan, aitchiki zazu ceure aldean, gorde zazu ceure bihotcean ; ascar nazazu Yauna, zure eguia sainduekin, besti nazazu, zure iuzticiaz, eta eguidazu ceure bihotcean ene atherbea ; guida nazazu zure legue sainduaz, garbi nazazu zure saindutasunaz, senda nazazu zure odolaz eta sar nazazu zure lorian. O Yesus ! horiec horo, galdeguiten dauzkitzut ceure icenean, eta ordainez emaiten dizut ene amodioa, ene lehialtasuna, ene errespetua eta confianza gucia. Emaiten dauzkitzut ene omayac, ohore eta adoracioneac.

O Yesus adoragarria ! lur huntan egotu cinenean eztcen duen ukan,

lan, nahigabe, pena eta pairu, arbuio eta gurutce baicen, horiec nic ere zure amoregatic besarcatcen ditut. Nahi dut zurekin Calixa hortaric edan asken tchortaraino, guero Ceruan edateco ithurri ecin agortuzcotic, bethico zori ona. Zuri yarraiki nahi dut, bainan Yauna, othoi, utzic eguiten badut ez ni abandona, zeronec correi nezazu.

Gomendatcen dizut, zure Esposa Eliza eta Elizaren haur guciac, igor zaezu zure gracia beren eguinbedeac beguiratceco, becatoreac convertitceco, iustuac bertutean aintcinatceco eta oroc zurekin ceruco lorian erreguinatceco.

§ II[a]

Cer emanen dizut, amodio pareric gabea, eguin datazun fagore handi onengatic? Ni baithan direnac gauza gutti dire, denac ere zureac dire. Ah! Yesus, izan zaitez, Serafin loriosaz maitatu, creatura guciec aipha ditzatela zure loria eta edertasuna, maita dezatela Yesus, bere handita-

sunean bereziki aldareco Sacramendu Sainduan. O Yesus, galdeguiten datazu ene bihotza, ar zazu oso osoa, gucia zurea da ; hor, zu baithan eguinen du bere egoitza, hor zurean amodios erreco da, eta zurearekin bath eguin nahico du.

O Yesus guciz ona, hoimbertce maitatu nauzuna, izan zaitez gure aldaretan laudatua eta maitatua. Halabiz.

✝

# FRANCIZCANEN CALENDARIOA

edo

## SAINDUEN EGUNEN MARKHA (1).

---

### *Urtharrilean.*

†† 1. Urtheberri. Yesus hasi cen guretzat odol guciz baliosaren ichurtcen.

†† 6. Trufania. Izar miragarriaz guidatuac, hirur Erregue Magoec, edirein izatu zuten Yesus, eta present ekarri ciozcoten urhea, mirha eta isenxua.

† 14. Yesusen icen Saindua. Icen ohoragarriena, handiena, baliosena. Bihotzez aipatcen bada, garaitcen dire tentacioneac, ikaratcen ifernua eta arima contsolatcen da.

† 16. San Berar eta haren martir lagunac. 1. O. Aita San Francizcoc

(1) Gurutce batek erran nahi du indulgencia osoa; bigac absoluzio yenerala.

berac igorri izatu cituen Africarat Ebangelioaren hedatcerat.

† 28. Mathieu dohatsua. Aphezpicu. 1. O. Ainitz arima Yaincoaren ganat itzuli cituen bere predicu eta exempluaz.

† 30. Santa Hyacinta, Birgina. 3. O. Lehenbicico epheltasuna, borratu zuen penitenciaric gogorrenekin.

† 31. Luisa dohatsua, alharguntza. 3. O. Probeac biciki maite cituen.

*Otsailean.*

† 1. Andres dohatsua. 1. O. Gucien cerbitzari humil bici izatu cen, izanic ere Aita Saindu cembaiten ahaide.

†† 2. Ganderailu. Birgina Maria, humilki yarraikitcen legue unkitcen ez tzuenari ; notaric gabea, notadun becela aguertu cen Temploan.

3. Oderic, dohatsua. 1. O. Chinan, hogoi miletaraino fede gabeco arima bathayatu cituen, hoin tcen khar handitacoa.

† 4. San Josep Leonizacoa, Capucina. Mizzionesta khartsua.

† 5. San Petri-Batista eta haren

martir lagun sainduac. 1. O. Yaponen gurutceficatuac izatu ciren.

7. Antonio dohatsua. 1. O. Modestian eta beheratasunean bici izan cen ; comentuco escalea cen.

14. Biridiana, Birgina, 3. O. Ifernuac bere indarrac bilduric atacatu zuen luzaz eta bortizki, bainan fermutasunarekin eta Yaincoaren graciarekin, gucia garhaitu zuen.

15. San Antonio Paducoaren gorputzaren lekhuz khambiatcea.

† 16. Filipina dohatsua, Birgina, 2. O. Munduco gauzac arbuiatuz, probecian eta probeen cerbitsuan bici izan cen.

19. San Conrado, 3. O. Huts bat eguin tzuen, baiñan Yaincoac unkituz, osoki eta bethicotz lothu cen berthuteari.

21. Santa Angela, Birgina, 3. O. Othoitz khartsuetan, eta nescatch gazteen altchatcen iragan zuen bere bicitce saindua.

† 22. Santa Margarita Cortonacoa. 3. O. Madalena bekatorosa imitatuz, eguin cituen haren penitencia dorphe eta icigarriac.

25. Sebastien dohatsua, 1. O. Hain cen garbia eta perfeta nun, Ainguerruac noiz nai laguntcen baitzuten.

27. Estokia dohatsua, Birgina, 2. O. Ama Birginaren debocioneari osoki eta cinez eman tcen.

28. Thomas dohatsua, 1. O. Kharrez gainditua cen Sacramendu Sainduaren alderat, egun batez, consecratu zuen ostia haur ttippi baten itchuran yarri izan citzayoen.

*Martchoan.*

1. Mathiasa dohatsua, Birgina, 2. O. Yesusen pasionean zuen bere gogoa bethi eta nigarretan urthua egoiten cen.

† 5. San Yoanes-Yoseph. 1. O. Apez hilduratua, gorputzean bethi, punta zorrotzco gurutcea ekartcen zuen.

6. Santa Coleta, Birgina, 2. O. Aita San Francizcoren izpiritua, lehen eta bigarren ordenan berritu zuen.

† 9. Santa Catalina Bologniacoa, Birgina, 2. O. Arimac hoimbertce maite cituen nun, Yaincoac hala nahi

izaterat gogotic bere burua aurdikiren zuen ifernurat, hango sua hiltceco.

†11. Santa Francizca, alharguntza. 3. O. Erran hoi zuen emaste bathec utzi behar duela devocionea, etcheco lanetan haren beharra denean.

13. Roger dohatsua, 1. O. Aita S. Francizcoren laguna eta imitatzaile lehiala.

14. Petri Treyacoa, dohatsua, 1. O. Mikhael Arkhangeluaren aldareco zuen debocione bicitic graciaric seinalatuenac ardiesten cituen.

15. Hirur ordenetaco Elicetan, erlikiac dituzten Sainduen orhoiztapena.

16. Petri Sienacoa, dohatsu, 3. O. Hori cen guizon languilebat dohain berecienez ceruac aberastua eta horiec beheratasunic handienarekin gordetcen cituena.

18. Salbador dohatsua, 1. O. Oficio humilena zuen comentuan, bainan berthutean aintcinecoetaric cen.

† 19. San Yosep, Patriarca handia, Eliza guciaren patroina eta San Francizcoren ordenaço atherbe berecia.

Cerbaiten beharrean dagoena, yoan bedi Yoseperen ganat fidanzarekin eta galdeguina ardietsiren du.

20. Yoanes Parmecoa, dohatsu, 1. O. Ordena gucico yeneral aiphatua, San Francizcoren izpiritua berritu zuena.

† 22. Bienbenu dohatsua, 1. O. Aphezpicutasunean bici cen fraideen hildurapen eta penitencietan.

††-25. Anonciacionea. Yautsi cen aitaren loria, Ceruaren edertasuna, Yainco Semea, bethicotasunetic, Mariaren erailla garbietarat, gure amoregatic guizon izaitearen artcerat.

26. Ricie dohatsua, 1. O. Tentacioneac bentsutceco, penitenciaz eta othoitzaz baliatcen cen.

27. Peregrin dohatsua, 1. O. Yakintsun cen, bainan bethi humil bici izan cen frerac becela, eztzen behin ere beheratasunez asetcen.

28. Marc, dohatsua, 1. O. Bekhatoreen conbertitceco zuen kharrez seinalatu cen.

29. Paulina dohatsua, alharguntsa, 3. O. Hoin saindutasun handitacoa cen, nun, guciec, bere cerbitzariec

ere burlan zarabilaten. Gucia pacienki eta alegueraki yassaiten zuen.

† 30. Angela dohatsua, alharguntza, 3. O. Yesus maite zuen eta bere zoriona cen Yesusen Pasionean meditacione eguitea.

† 31. Marc, Bologniacoa, dohatsu, 1. O. Misionesta famatua izan cen.

*Aphirilean.*

† 3. San Benuat, 1. O. Comentuan yanhari prestazaile cen ; behin meditacionean zagolaric, horena igaan ciozan eta beldurrez yoan tcen zucalderat gaucen preztatcerat, bainan orducotz Aingueruec apairua preparatua zuten.

† 4. San Isidoro aphezpicu eta Elizaco dotorra.

† 6. Yoanna dohatsua, Birgina, 3. O. Artzaintsa. Bere artzain lagunac bilduz, bethi Yaincoaz mintzatcen zayoten.

† 7. Antoaneta dohatsua, Birgina, 2. O. Yaincoaren gracia adituz, hari lehialki bethi yarriz, berthutean gora altchatu cen.

8. Yulien dohatsua, 1. O. Hilduratuz eraman zuen bethi bere gorputza, satitcen zuen, eta garizumetan baba hosto batzuec baicen bezteric ez tzion emaiten.

12. Ange dohatsua, 1. O. Haur haurretic emaiten cen gurutcearen oinetan ahuspez ; Aita Sainduec berec confiantza handia zuten hunen othoitcetan.

14. Santa Lidwina, Birgina, 3. O.

† 16. Rafael Arkangelua. Egun profezionea berritcen da eta berthutean aintcinatceco chede cin bat artcen.

18. Andres dohatsua, 1. O. Purgatorioco arimentzat devocione handia zuen, bethi heientzat indulgencia irabasten ari cen.

19. Conrado Azcolicoa, dohatsu, 1. O. Yzanic ere orduco yakintsunetaric famatuena, maiz erien cerbitzatcerat yoaiten cen.

† 23. Gilles Asisacoa, dohatsu, 1. O. Aingueru iduri bici izan cen ; aski zuen aditcea Yaincoaren icena, choratua becela yartceco.

† 24. San Fidel martira, capucina.

Predicatcen ari celaric, protestantec harrica hil araci zuten.

25. San Marcoz Evangelista.

27. Yacob dohatsua, 1 O. Yatecoen prestatceco sua ikusi eta bethi ifernuco suaz orhoitcen cen.

28. Lucius dohatsua, lehenbicico hirurgarren ordenan, Aita San Francizcoc errecebitu zuena.

Pazcotic hirurgarren igandean, San Yoseperen patrocinioa.

Pazcotic bortzgarren igandean, Asisaco, Aita San Francizcoren Elizaren dedicacionea.

### *Mayatcean.*

† 13. San Petri Regalat, 1. O. Meza saindua erraiten zuen devocione handiarekin, eta aldi guciez nigar eguiten zuen.

14. Francizco Fabrianocoa, dohatsu, 1. O. Predicari famatua, behin hilen mezan, *Requiescant in pace* erraitean, ainitzec amen ihardetsi cioten.

15. Bienbenu Recanaticoa, dohatsu, 1. O. Bethi gauzaric aphale-

nac eta asken tokiac chercatcen cituen.

† 17. San Pazcal-Bailon, 1. O. Sacramendu Sainduaren alderaco amodioz erretcen ari cen, nun hil ondoan ere, haren gorputza altchatu cen ostia sainduaren adoratceco.

† 18. San Feliz, capucina ; bere burua handizki arbuiatcen zuen, eta haren guticia cen, oroc ez deuszat atchikitcea.

19. San Ybez, Bretagnaco apheza, 3. O. Oguian eta urean egoiten cen penitenciazko egunetan, probeac biciki maite cituen, berac cerbitzatcen cituen eta ikhuzten cembeit aldiz.

† 20. San Bernardino , Italiaco apostola, 1. O. Lilien pare bere garbitasunaren usain gozoa emaiten zuen ; ez tcen nihorc haren aintcinean hitz arin bat erraiten ahal zuenic, bainan cikinenac ere ikaratcen ciren haren biztan.

22. Humiliana dohatsua, 3. O. Hainiz pairatu zuen etsaien eta yenden aldetic ; bere pacienciaz oroc garhaitu cituen.

† 23. San Crispin, 1. O. Humil bethi bici izan cen.

† 25. San Francizcoren gorputzaren lekhuz khambiatcea.

28. San Fernando, Castillaco erreguea, 3. O. Soldaduei emaiten zaren Yaincoaren beldurra eta armaden buruan Mariaren imaia zaraman.

29. Herculano dohatsua, 1. O.

† 30. Yoanes dohatsua, Martira, 1. O. Legue gabeac, Yesusi nahiz irabaci, Maroken hartu cituen nekeac, izan zaizkion saristatuac, burdinaz cargatua egon ondoan, azkenean haizcora golpez chehacatua izan baitcen.

† 31. Gerar dohatsua, 3. O. San Francizcoren escutaric errecebitu zuen penitenten arropa ; probeac hazteagatic bera zabilan eske borthaz bortha.

*Errearoan.*

1. Yacobe Estrepacoa, dohatsu, 1. O. Fraideen miraílla eta missionest khartsua.

2. Batizta Barani, dohatsua, Birgina, 2. O. Yaincoac eritasunic garratcenac igortcen cerauzcon, pairat-

ceco zuen guticia handia asetceco.

4. Andres Hizpelacoa, dohatsu, 1. O. Erreguela bicia bera cen.

5. Pacifico dohatsua, 1. O. Yakitatez famatua cen, eta haren medioz Yaincoac eguiten cituen bekhatorosen conberzioneac.

7. Esteven eta Erramon, Avignoneten martirizatuac, 1. O.

† 12. Gui Cortonacoa, dohatsu, 1. O. San Francizcoren dicipulu eta predicari saindu bat cen.

† 13. San Antonio Paduacoa, 1. O. Francian, Espanian eta Ytalietan, milaca eta milaca conbertiaraci cituen bekhatoros eta hereticuac berac, bere predicu, berthute eta miraculu famatu eta lombre gabecoez.

16. Yolanda dohatsua, alharguntsa, 2. O. Erregueen odoletic cen; ethorkisun handitacoa bacen, handiago baicic eztcen berthutean.

† 19. Michelina dohatsua, alharguntsa, 3. O. Ahaideec traba asmaala ezarriric ere, aintcinago baicic eztcen yoan berthutean eta bere obra onetan.

† 27. Bienvenu dohatsua, 1. O.

San Francizcoren dicipuluetaric cen; nahiago ukhan zuen aitoren seme baino fraide probe bat izan.

†† 29. Yondoni Petri eta Yondoni Paulo, apostoluac.

*Uztailean.*

†† 2. Ama Birginaren Bisitacionea. Bera Yaincoaren ama izan arren yoan cen, beheratasun pare gabean Elizabeth bere cusia bisitatcerat.

4. Hirur ordenetaco Elicen Dedicacionea.

5. Arkange dohatsua, 1. O. Aphez yustua.

† 7. Laurench dohatsua, capucina. Hongrian eta Ytalietan ainitz heretico, yudu eta bekhatore combertitu cituen.

8. Santa Elizabeth, Portugaleco erreguina, alharguntsa, 3. O. Miragarri cen ikhustea hunen paciencia gauzaric garratcenetan, eta probeen ganaco amodioa.

† 9. San Nicolas eta haren martir lagunac, 1. O. Eliza Erromanoa, Eliza gucien ama eta buruzagui dela,

eta Yesu-Christo errealki present Aldareco Sacramenduan dagoela bere guizon eta Yaincotasunarekin; bi eguia horien sinhes eta erakastea gatic, Protestantec hil cituzten.

† 14. San Bonaventura, cardinale eta Elizaco Dotorra, 1. O. San Francizcoren ordenaco, zortcigarren yenerala.

† 15. Angelina dohatsua, alharguntsa, 3. O. Ainguerueri bici ceraman, othoitz, barur eta bertce obra onetan.

18. Simon dohatsua, 1. O. Yzurristatuen cerbitsuan hatceman zuen bere heriotce saindua.

19. Yoanes dohatsua, 1. O. Uts ttippienaz nigar eguiten zuen.

† 24. San Francizco Solanocoa, 1. O. Ameriketaco apostolua, Yaincoac berac daki zombat ardi errebelatu, bereganat ekharri cituen! zombat ilhunbetan ehortziac zaudenac Ebangelioaz arguitu cituen! zombat espantu eguin cituen.

† 27. Cunegonda dohatsua, Birgina, Poloniaco erreguina, 2. O. Sorthu orduco abiatu cen Mariaren laudatcen eta maitatcen.

*Agorrilean.*

† 2. Andredena Maria Porcionculacoa. Yndulgencia famatu huntaz cerbait erran dut, lehen phartean.

† 4. Gure Aita San Dominica. Dominicanoen Patriarkha eta Aita San Francizcoren adizkide handia.

†† 12. Santa Clara, Birgina, 2. O.

† 13. Petri Moncanococoa dohatsu, 1. O. Egunac eta gauac iragaiten cituen yendeen cofesioen entzuten.

† 14. Santes dohatsua, 1. O. Nahi gabezco zorigaitz bat ukan tzuen ; halaric ere bihotza saurthua, ikaran ezurretaraino, mundua utziz comentuan sarthu cen, nun bici izatu cen berthute ederrenetan.

†† 15. Ama Birginaren Cerurat igaitea.

† 16. San Roke, 3. O. Içurristatuac, gurutcearen seinaleaz, tempez sendatcen cituen.

† 19. San Luis Tolosacoa, aphezpicu, 1. O. Mundua utciric bere guisa, francizcano eguin cen cioela : « Yaincoa da aberastasun bakharric thirriatcen nauena. »

†† 25. San Luis Franciaco Erreguea, 3. O. Saindutasuna eta Erresumaco eguinbideac untsa elgarrekin antolatcen cituen ; hirurgarren ordenaco arropa aguerian eramaiten zuen prosesionetan, absolucio yeneral hau, berriki, Aita Saindu Pi IXac emana.

*Buruilean.*

1. Yzabela dohatsua, 2. O. San Luis Franciaco Erregueren arreba. Gortheco ohoreac baino nahiago zuen birginitatea beguiratu eta San Francizcoren comentuan aphal eta ahantsia bici.

† 3. Yoanes eta Petri Martirac dohatsu, 1. O. Espanian, Balencian, Mahumetanoez martirisatuac izan ciren.

† 4. Santa Rosa Biterbecoa, Birgina, 3. O. Ama Birginaren manuz hirurgarren ordenan sarthu cen zazpi urthetaco.

5. Gentil dohatsua, 1. O. Missionets famatua eta martira.

6. Bichincho akilacoa, dohatsu,

1. O. Urean eta oguian belhar cembaitekin ceraman bicia.

†† 8. Ama Birginaren sortcea.

† 9. Serafina dohatsua, alharguntsa, 2 O. Eztitasun handitacoa, deusec garhaitcen ahal ez zuena.

† 11. Bernar dohatsua, 1. O. Hiltceracoan galdatu cion aitcindariari cerurat yoiateco baimena, hain cen obedienta.

13. Santa Beronica, Birgina, 2. O. Bethi Yesusen Passionean pentzatcen zuen.

† 17. Aita San Francizcoren zauri miraculuzcoen besta.

† 18. San Yosep Cupertinocoa, 1. O. Hunec eguin cituen gauzac espantagarrienetaric dire, noiz nahi eta nun nahi, lurra utziric, airean guelditcen cen, hitz on bat erraitea aski cen.

23. Santa Clararen gorputzaren edireitea.

† 24. San Pacifico, 1. O. Mezaco demboran maiz ikhusten zuten airean altchatua.

26. Lucia dohatsua, Birgina, 3. O. Modestia pare gabecoa cen.

27. San Elzear, condea, 3 O. Garbitasun oso batean eta bere azpicoen artha handian bici izatu cen.

28. Bernardino dohatsua, 1. O. Missionest khartsu bat cen, eta Yesus eta Mariaren icenen alderat guciz debota.

*Urrian.*

† 1. Luisa, dohatsua, alharguntsa, 2. O. Gorthean sorthua izanic ere, S. Francizcoren ordenaco gauzaric aphalenetan nahi zuen bici, eta hala gauza hec bethi chercatcen cituen.

† 4. Aita San Francizco, Patriarka eta hirur ordenen eguilearen besta.

† 5. Yoanes Pinacoa, dohatsu, 1. O. Guciez maithatua eta miretsia cen bere eztitasunaren gatic.

† 6. Santa Maria Francizca, Birgina, 3. O. Yesus Chriztoren amodioan sustatua, asmatcen cituen frango gauza, haren amoregatic gorputza hilduratceco eta pairatceco.

† 8. Santa Birgita, Nericiaco Princeza, alharguntza, 3. O. Behin ikusi zuen Yesus gurutcean odolstatua; haren ohartcean nigarrez zagon.

† 12. San Cerafin, 1. O. Ainitz nigar ichurtcen zuen bekhatuaz eta Yesusen Pasioneaz orhoituz.

† 13. San Daniel eta haren Martir lagunac, 1. O. Mahumetanoez martirisatuac izan ciren African.

† 19. San Petri Alcantara, 1. O. Hil ondoan santa Theresari aguertu citzaion, cioela : O penitencia, benedicatua , hoimbertce loria ardietsi dautazuna !

22. Ladislao dohatsua, 1. O. Egun batez predicatcen ari celaric, guciec ikhusi zuten airean altchatua.

† 23. San Yoanes Capistranocoa, 1. O. Ecin akhituzcoa cen, nun ere Eliza beharretan cen, han cen ; Ebangelioa hedatcen ez daiteke hemen erran zombat tokitan ibili cen.

25. Francizco Calderolacoa, dohatsu, 1. O. Arimetaraco khar handia zuen.

† 26. Bonaventura dohatsua, 1. O. Obediencia gucien modela cen.

27. Paula, Mantuacoa, dohatsu, Birgina, 2. O. Hilduratcen cen bethi eta gauza gucietan ; prudencia, eztitasuna eta beheratasuna, gradu goorenean cituen.

† 30. Liberat, dohatsua, 1. O. Ange Agricoa, dohatsu, capucina.

31. Thomas Florenzacoa, dohatsu, 1. O. Behin atchiki cituen luzaz ahurrean ikhatz gorriac erregabe obedienciaz.

*Hazaroan.*

†† 1. Omia Saindu edo Saindu gucien besta.

2. Hilen eguna. Purgatorioco arimentzat da ilhabete hau.

4. Helena dohatsua, Birgina, 2. O. Bere gauen pharte bat iragaiten zuen Yesusen Pasioneaz phentzatcen.

5. Raynier dohatsua, 1. O. Guciz probec eta humilla cen.

7. Bernardino Fossacoa, dohatsu, 1. O. Yesusi arima biltzailea.

10. Atsalde huntan hasten ahal da, Santa Elizabethen, bederatci hurrena.

† 12. San Didaz, 1. O. Yaincoaren amodioac ainitz erakatsi cion, comentua guidatceco eta arimac salbatceco.

14. Gabriel Ferreti dohatsua, 1. O.

Missionest famatua cen, eta bere buruari osoki uko eguina.

† 16. Santa Agnes, Santa Clararen ahizpa, Birgina, 2. O.

† 17. Salome dohatsua, Birgina, 2. O.

† 19. Santa Elizabeth Hongriacoa, 3. O. Hirurgarren ordenaco arreben patroina.

†† 21. Ama Birginaren Presentacionea.

† 26. San Leonardo, 1. O. Missionest famatuenetaric, hunec hedatu zuen Gurutcearen bidea eta Maria notha gabeaz bethi mintzo cen.

27. Delfina dohatsua, Birgina, 3. O. Bere senhar Elzear Sainduarekin, Aingueruec bezain garbi bici ciren eta bere gorputza zatitcen zuen, arima ez haren gathibo ikustea gatic.— Egun berean, San Raymondo Lulle, martira, 3. O.

† 28. San Yacobe Marchecoa, 1. O. Hogoi mila pagano bathayatu cituen, berrogoita hamar mila hereticu itzularaci.

† 29. Hirur ordenetaco Saindu gucien besta.

*Abendoan.*

† 5. Elizabeth dohatsua Birgina, 3. O. Bethi Yesusen Pasionea gogoan zuen, eta bethi haren nahigabea cen ez tzuela michterio hortan aski phentzatcen.

†† 8. Ama Birginaren contcebicione notha gabecoa. Ordenaco patroin berezia.

12. San Francizcoren gorputzaren edireita, duela berrogoita bederatci urthe edireina izan cen, 1820$^{an}$.

† 17. Margarita Colonacoa, dohatsu, 2. O. Birgina. Bere ontasun gucia probeekin emplegatu ondoan, hec becela eske ibili cen.

19. Conrado offidacoa, dohatsu, 1. O. Beheratasunean, gucietaric lehena cen.

23. Nicolas dohatsua, 1. O. Bekhatoreric gogorrenac, gaichtoenac ez ciren hunen predicuei ihardokitcen ahal.

†† 25. Eguberri. Yesus haur sorthu berriarentzat debocione handia ukan zuen Aita San Franciz-

coac ; aguianbere haur guciec hala ukhanen dute.

**Laus Deo Dei parœque Virgini.**

# AURKHIBIDEA.

## Lehen Phartea.

Planan

Ien Capitulua. San Francizco Asisacoaren lehen ordenaz....... 9
IIen Cap. San Francizco Asisacoaren bigarren ordenaz.......... 39
IIIen Cap. San Francizco Asisacoaren hirurgarren ordenaz...... 60
IVen Cap. Hirurgarren ordenaco gracia bereciez............... 69
Ven Cap. Hirurgarren ordenaco erreguelaz................... 80
VIen Cap. Hirurgarren ordenaco izpirituaz................... 96
VIIen Cap. Hirurgarren ordenan sartceco cer behar den eguin.... 100

## Bigarren Phartea.

Planan

Hirurgarren ordenaco arroparen artceco othoitzaz.......... 103
Profezionearen eguiteco othoitzaz.. 112
Biltzarrietaco ceremonia eta othoitzaz 118
Profezionea erreberritceco othoitzac. 127
Aitcindarien bilcuretaco othoitzac.. 132
Aitcindariac hautatceco moldeaz... 134
Aita Sainduaren benedicione eta absolucio yeneralaz.......... 141
Salmu *Miserere* eta *Exaudiat*..... 145

## Hirurgarren Phartea.

Hirurgarren ordenacoa darazten devocione bereciaz.......... 149
Mezaco sacrificioaz.............. 149
Meza Sainduco othoitzez.......... 152
Cer den gurutcearen bidea eta nola eguin behar den........ 160
San Francizcoren ordenaco arrosarioaz.................... 186
Erien bisitaz eta agoniaco othoitzez. 189
Maiz comuniatcen direnentzat aste gucico Exercicio izpirituala. 198
Ordenaco Calendarioa........... 259

Bayonne, imp. Lamaignère, rue Chegaray, 39.